

# **ORIXEREN MENDEURRENA**

*Uitzi, 1988-XI-27*



## EUSKALTZAINBURU ETA EUSKALTZAINDIKO BAZKIDE AGURGARRIOK

*Uitzi, 1988-XI-27*

*Juan Cruz Martirena Sagastibelza*

*herriko Alkatea*

– Nafarroako Komunitate Foraleko agintariok.

– Euskal Komunitate Autonomoko agintariok.

Jaun andreok:

Aurten bete dira Orixek —Nikolas Ormaetxea zena— jaio zela ehun urte.

Ez bazen hemen Uitzin jaio ere, Uitzikoa bezela ezagutzen zuen bere burua zentzu askotan, eta uitziarra bezela onartzen dugu guk ere uitziarrok. Gure herria askotan aipatzen da bere idatzietan; hemengo hizketa aintzat hartu zuen eta bere idatziak askorentzat eredu eta adibide izan diren neurriak gure herriko hizkuntza ere altxatua eta onartua ikusi dugu eta gertatu da.

Amak hiru ume eta bi titi, idatzirik utzi zuen bera jaio berria eta hirukia zenez, gero Uitzira ekar zezaten izan zuten arrazoina aipatzeko. Hementxe ba Orixek Uitzin edan baldin bazuen ama ordearen titia, entzun izanen zituen ere, bere euskarazko lehen hitzak; hemen ikusiak zituen nekazako laneko ohiturak, nekeak, ezinak eta baita ere urtaro bakoitzat zekazkien pestak eta lanak.

Uitzin ikasi zuen Orixek, euskaldunok, lana askotan apostua bihurtzen dugula eta apostua eta joko beste hainbestetan lana eta nekea bihurtzen zaizkigula. Edo berdin dena, bizimodua, gizarteko goraberak, ohiturak, harremanak, lanak, jokoak eta pestak osatzen dutela.

Horrengatikan *Euskaldunak* izena duen haren liburuan bizimoduko gauza guzti horiek agertzen dira.

Eta baita ere hemen herri honetan hasi zen zalantzarik gabe Orixek orain dela ehun urte ez bakarrik euskara entzuten eta euskara ikasten

baizik baita maitatzen, eta gure herriaren ezaugarriak nabarmena bezela ezagutzen ere. Euskararik gabe, herri hau ez zela herri berdina izanen, idatzirik dago, *Euskaldunak* liburuaren hasieran “Egin dezagun euskarak, iraun dezan, edo, bestela aitor dezagun, herri hau izan zan”.

Baina, horretaz gainera, geroago ere adineko gizona zenean berriro Uitziko herriak eta batez ere Uitziko batzuk eman zioten Nikolas Ormaetxea, Orixerri, behar zuen laguntza eta babesa bizirik iraun zezan eta askatasunera itzul zedin. Hementxe egon zen gordeta eta gau ilunen batean kapusalez jantzita, artzain itxura hartuta, mando baten gainean ihes egin omen zuen, hizkuntzara eta bizimodura hemen sortua izan zena berriro ere bizitzara eta askatasunera hemendikan zuen bidea hartu.

Uitzi Orixerentzat eper kabia omen. Uitzi izan zen baita ere beretzat gorde leku, eta baita ere herria, Euskal Herriaren itxura hemen ikusi zuen, eta hemendik hartu zuen gero ondoren betirako ezarririk utziko zuen Euskal Herriaren irudia.

Guk, gaurko uitziarrok, guk gaurko nafartarrok ere, bere lebatako batzuk, Orixeren kezka batzuk aurrean ditugu. Gure bizimodua, gure euskalduntasuna, gure izaera eta etorkizunak, gure lana eta jokia salatu beharra eskatzen digute aurrerabidean.

Lana egiteko prest bagaude ere, lan horrek jokia badirudi ere askotan, beti jokia, lana eta gure izaera euskalduna bizkor eta tinko eutsiko ditugula zin dagigu eta aitortu nahi dugu.

## “ORIXE”-REN JAIOTZAKO MENDEURRENEAN

*Uitzi-n (Nafarroa), 1988-XI-27*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

- Juan Kruz Martirena, Uitziko alkate jaun agurgarria.
- Juan Jose Ekisoain, Nafarroako Gobernuaren Euskara zerbitzuko Zuzendaria.
- Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politikarako Idazkari nagusia.
- Imanol Murua, Gipuzkoako Diputadu Nagusia.

### Euskaltzainkideak

Uitziarrak, eta Uitzira Orixeren oroitzapenezko ospakizunera etorri zareten guztiok.

Egun on:

Lehenik eta hasteko, eskerrak zuri, alkate jaun horri, eta eskerrak Uitziko herriari Euskaltzaindiari egin diozuen harrera ezin hobeagatik. Atzo eta gaur Uitzin dago Euskaltzaindia zenbait lan eta ekintza egiten: Lexikologi Erizpideak finkatzeko taldearen X. Jardunaldiak, Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea, eta gaur, bereziki, Orixeren omenez antolatu duen batzarre ageri hau.

Bai. Hau izan da batez ere Euskaltzaindia Uitzira etortzearen arrazoia, aurrean betetzen baitira ehun urte Nikolas Ormaetxea jauna (izen ordez “Orixe”) sortu zela. Ez zen hemen sortu, Gipuzkoako Orexan baizik, baina lehen hautzarotik eta Xabier-era ikasketak egitera joan arte, hemen bizi izan zen, hemengo ohitura, mintzamolde eta bizikeraz bat eginik. Berberak *Kiton arrebarekin* izeneko liburuan esango digu artzai-kondo ibili zela hemen.

Eta ez da inor ez dakienik *Euskaldunak* bere poema handiaren kokalekutzat Orixek herri hau hautatu zuela. Horiek hola, betiko gelditu

dira Uitzzi eta Orixe elkartuak. *Kiton arrebarekin* izeneko liburu horretan Uitziri buruzko oroigarri asko gogoratzen ditu. Adibidez, eta bat aipatzeagatik, esango dizu hemen ikasi zuela Arrizurrietaren euskarazko kristau dotrina, etab.

\* \* \*

Euskaltzaindia —hots, euskararen Akademia—, mendeurrenak ospatzeko asmoz eta euskararekin zer-ikusi duten gertaldiak gogoratzeagatik, herrietara joan ohi da eta beroietan jende-aurreko batzarre ageriak antolatu ohi ditu. Nafarroan, esate baterako, ni euskaltzainburu izan naizen denboran, Iruñean egindako batzarreak kontuan sartu gabe, honako herri hauek bisitatu izan ditu: Altsatsu, Arizkun, Auritz, Bera, Elizondo, Lakuntza, Leitza, Lekunberri, Luzaide, Urdazubi... eta beldur naiz ez ote ditudan batzuk aipatu gabe uzten.

Zergatik egiten ote ditu, ordea, Euskaltzaindiak joan-etorri hauek euskal herrietan barna? Turismo egiteagatik? Ez, noski. Hori ulertzeko, jakin behar da zer den Euskaltzaindia eta zertarako den. Euskaltzaindia euskararen Akademia da, esan nahi baita, euskararen arta eta kargu hartzeko jarririk den batasuna. Gure inguruan diren hizkuntza handiek, bai gaztelaniak eta bai frantsesak, badute zeinek bere Akademia, hizkuntza hauei dagozkien gauzez arta hartzeko jarriak. Hizkuntza horiei buruz arau gidariak emateko auktoritatez hornituak dauden erakundeak, alegia.

Euskara, horien aldean, hizkuntza nimiñoa da, eta gainera, guztia beharrean dagoena; baina gurea da. Beraz, arrazoi gehiagorekin behar du izan nork zaindu eta artamendatu. Eta, hain zuzen, horretarako sortu zen Euskaltzaindia, euskararen Akademia. 1918an sortua da. Eta nork sortua? Euskal Herriko agintariak, hau da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek. Beraz, herriko agintariengandik du erakunde honek, bai eskubidea, bai auktoritatea eta bai mandatua ere, hizkuntza honen arta izan dezan. Baita Erregeren oso-osoko onespena ere badu, 1976an emana.

Beraz, erakunde bat da Euskaltzaindia, instituzio bat, alegia, propio eta berariaz euskara artamendatu eta euskarari buruz arau gidariak emateko jarria. Eta lan horretan ari da. Hizkuntza honen Ortografia, Gramatika eta Hiztegia finkatzen, alegia.

Bazterrerat utziak edo abandonatuak egon diren hizkuntzak —eta hori da euskararen kasua— gaurko mundu korapilatsu honen mintzagaiak taxuz adierazteko, birmoldaketa bat jasan beharrean egoiten dira, eta hori da Euskaltzaindiak euskara batua eginez erdietsi nahi duen xedea: euskara egokitu, gai bihurtu, trebatu eta trenpatu, idatzizko zereginetan batez ere, gaurko kultura eta zibilizazioko mundu hori adierazteko. Baina hori egiten duen bitartean, Euskaltzaindiak nahi du, baita ere, tradizioz heldu

zaizkigun literatur euskalkiak atxiki eta landu, baldintza batzuekin, ordea: hizkuntzaren ortografia orokorra eta oinarrizko egitura errespetatzekotan. Batuaren eta euskalkien artean Euskaltzaindiak ez du, bada, borrokarik nahi eta ezta etenik sortu ere etxeko eta familiako eta eskolako euskararen artean. Tokia da bai bata eta bai bestearantz, esandako baldinkizun horiek gordetzen badira, behintzat.

Euskarak, guztiok dakigunez, eremu handiak galdu ditu, batez ere Nafarroan, azken mendeotan. Zer dela eta, gertatu da galera hori? Oker egoteko beldur handirik gabe esan daiteke hauxe izan dela zergatikoa edo arrazoia —besteak beste—: euskaldunaren beraren begitan euskarak ez zuela prestijiorik, eskolan gure mintzairak ez zuela sarrerarik, administrazioan ere ez, duintasun-maila zerbait zuten arazoetarik baztertua zela. Tresna ezteusa zen, eta orduan ez da harritzekoa herriak berak gaitzetsi baldin badu. Askotan euskararen ikusi izan du euskaldunak bere zorritxar guztien erroa.

Orain bada, gauzen egoera hau iraultzen eta atzekoz aurrera jartzen ez den bitartean, ez dugu euskara bere ahulezia eta jausialditik aterako. Euskaltzaindia herrietara agertzen baldin bada eta honelako festak antolatzen baldin baditu, horrexegatik da batipat: herriak berak euskararen balioa ikus eta ikas dezan, bere mintzairaren estimua eta amodioa haritzen ikas dezan. Herriaren atxikimendu hau gabe ez dugu euskara salbatuko XX. mendeko kenka larri honetan.

Erdaraz ere ikasi beharra dagoela? Bai, eta ez dugu hori ukatzen. Batak ez du betea kentzen ordea. Eta bego hau garbi: Euskaltzaindiak euskararen aldeko obra hau burutu nahi du politika, hots, alderdien politika, alde batera utzirik. Hizkuntza herri osoaren ondarea da eta ez dugu nahi ezin hautsizko lokarriz aukera politiko jakin batzuei lotua ager dadin. Horrekin jende asko euskaragana erakarri beharrean, hastandua egiten baita, hoztu eta etsaitu. Gizarte pluralista batean hizkuntzak behar du orekena izan eta alderdien gainetik egon.

\* \* \*

Orixeren eguna dugu gaur. Nortasun handiko gizona izan zen, zalantza gabe, lekuko aparta. XX. mende honetan mugarri antzo ageri zaigu Orixe. Badakigu gaurko ospakizuna baino gehiago merezi duela eta izango ere duela. Hor dabilta berari buruz mahai inguruak, hitzaldiak eta liburuak prestatzen. Itzultzaile miraritsua, olerkari, poema egile, prosista. Ia euskalki guztiak menderatu eta erabili izan zituen. Ez da erraza Orixe eskola jakin batean sailkatzea, zeren pixka bat bere bidetik ibili baitzen beti. Fededun handia, bestalde. Hori egiaztatzeko, ez dago bere lanetan fedeari eskaini dion tokia ikusi besterik.

Euskaltzaindiak, sortu berri hartan, 1919an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Orixe, eta badakigu lehenbiziko euskaltzainburuari, Azkueri, Euskaltzaindiko lanetan laguntzen ziola Bilbon. Urte asko geroago, Ameriketatik etorri zenean, euskaltzain oso izendatua izan zen, eta, hain zuzen, Leitzan, 1957. urtean, egin zuen bere sarrera-hitzaldia. Baina ez dut bere obraren itsaso neurgian sartzeko ez asmorik eta ez astirik ere. Baditugu gaur hemen hiru hizlari —Altuna, Aranalde eta Lekuona— Orixeren pertsona eta obrari buruz mintzatuko zaizkigunak. Beste gabe, beroiei pasatzen diet hitza.



## ORIXEK JESUSEN LAGUNDIAN EMANIKO URTEAK (1907-1923)

*Uitzi, 1988-XI-27*

*Patxi Altuna*

### 1. ORIXE XABIERREN (1905-1907)

Lagundian eman zituen urteak (1907-1923) dira berez nere txosten honen aztergai, ez lehenagokoak, baina Loiolan jesuita izaten hasi baino lehen, eta jesuita izateko gai zen ala ez ikustearren, Xabierren bi urte exkax eman behar izan zituen eta nolazpait nere txostenari dagozkiola uste dut, besterik ez bada ere, oso gutxi ezagunak direlako Orixeren bizitzako bi urte horiek. Are gutxiago ezagunak, eta ez halere ardura gabekoak, dira honako beste puntu eta galdera hauek: nork erakutsi zion Xabierko bidea? Nola ernatu zitzaion harako gogo? Horien berri ematen digu aita Juanito Goikoetxea zenak EUTG-n hil zenean utzi zituen paper-muturretako batean. Honek 1966ko Apirilaren 7an, Ostegun Santu egunez —hala dio paperak— anai jesuita Zakarias Ariztimuñorekin —Uitziarra zen eta txosten honetan behin baino gehiagotan agertuko zaizkigun Aitzolen bi anaia jesuitekin ez zuen ahaidetasunik— hitz aspertu luzea egin zuen eta hark kontatuak gero paperera aldatu. Uitziarra izateaz gain, Orixeren kidekoa eta haurtzaroko laguna ere izana zen. Hona zer kontatu omen zion Uitziarrek:

“Errekalde-txiki-n bizi zan. Iñoiz, festetan eta, bere etxeokak etortzen zitzaizkion. Errekalde ontan iru pamily bizi ziran. Azpian bizi zan Orix; gañean Don Fermin Lasarte, Hijas de la Caridad-eko kapillaua, eta gañera beste famili bat. Orix ni baño urte pare bat zaarrago ta, 1888 inguruan jaioa izan bear du (Generación del 98). Nik baño tipo obea zuan Mikolax-ek; ni zalkor antzekoa naiz, ua tentea zan eta bikañagoa. Ikasteko azkarra zan, buru argikoa; eskolan leena edo leenenetakoa beti. Kontuak oso ongi ateratzen zituan, regla de tres ta oiek denak. Dictado ta ematen zizkigutenean, guk danok *h* ta, *b* ta *v* ta oiek edozein moduz ipintzen genituen; arek ordea oso nekez, gutxitan, utsegiten zuan.

Lagunartean oso koldarra edo, bildurtia edo zan; gu alkarrekin asartzen giñanean, edo bata-besteari eldu ta eraso, ura aparte geratzen zan, beti gelditi; etzan eztabaidan sartzen. “Era especie de cobarde” esan

dit erdera pitxian bi bider Ariztimuñok. Mutil saiatua zan Mikolax eskolan; jolasean ez artarañokoa. Eta bere ontatik berriz erderara aldatuta, Más bien era pacífico, no era de esos albor... Paketsua zan, ez zalaparturu oietakoa. Ni baño geio zan burrukarako; aixa menderatuko ninduan nai izan ezkeru, ni baño mardulagoa, sendoagoa baizan eta bi urtez zaarragoa. Nik eldu nion bein asarre asko, baño arek etzuan eltzen ez erasotzen, utzi bezela egiten zuan. (Etzuan ori usteko Mikolas-ek; gero 'feri animi' edo dio olerki latíñezkoan).

Ikasteko azkarra zan. Erderaz poliki ikasia zegoen Mikolas erritik Colegiora aldatu zanerako. Errian irutariko jendea zegoen: banakatxo batzuek, erdera utsa zekitenak; beste asko, euskera utsekoak; tartean, bietatik zekitenak, eta auetatik zan Mikolax. Nola ori?, galdetu diot. Ba eskolan erakusten zan erdera ta dana erdera utsez, ta arek asko ikasten zuan. Gañera apaiza ere etxean zeukan eta erdaldun umeeekin ere jardun bearko zuan, plaza ondoan bizi zalako, noski. Nik orregatik uste det.

Lelengo jaunartzea egin genduanean gure Bikario jauna asko alegindu zitzaigun illeroko jaunartzalle gindezan (Jaunartu genezan). Ni ala asi nintzan, illero; andikan laster amabostero, ta gero astero. Egunero asi nintzanean, erligioso nai nuala azaldu nion aitorleari. Don Fermin ori zan berau, Orixeren etxean bizi zana, ta onek mezatakhoa izan nendin nai zuan, eta ala 1904-1905 neguan Loyolara zuzendu (bidaldu) ninduan nere gurasoekin, artarako nundik moldatu jakitera. Errira itzulita apaizakin latiña ikasten asi nintzan. Artan, udaran Xabier'era joateko nengoala, Mikolax aurreratu zitzaidan. Agorrean joan zan ura, ni urrian. 1905 urtean zan ori. Xabier'ko ikastetxean zegoan arrautzatik erteten. Apaizak anai bat zeukan jesuita ta ortik nunbait bere erriko ta etxeko auek jesuitetara zuzendu. Orixek 17 bat urte zituan dagoneko; ikasten asteko geiegi, noski, baño Jainkoaren alabearra izan zan liburu-lanean ezarri izana; beste erriko lagunari, bi urtez gazteagoa izanik ere, ezezkoa eman baitzioten. Erriko bi mutikoez asmokide izan arren, etziran berrikide; etzekiten bata-bestearen berri; dana ixilik eraman zan eta etzan sekretoia inondik zulatu. Erriko jendea txor-txor asi etzedin joka zuten orrela, oi dan bezela”.

Lekukotasun aukerakoa benetan! Irakurlea ohartu da, noski, Juanito Goikoetxeak bere baitako gogoeta batzu ere txertatzen dituela Ariztimuñoren hitzetan. Bizpahiru puntu polit jakinerazten digute hauek: gaztelearra marraskatzen zuela gutxienez -“poliki ikasia” dio lekukoak— Xabierra baino lehen. Latina ere ez ote zuen beste hainbeste, etxapeko apaiza Ariztimuñori irakasten hasi zitzaionez gero? Auzokoari bai eta etxekoari ez? Xabierra noiz joan zen ere adierazten digute: 1905ko Irailean.

Urtebete lehenago irekia zen estrainengo aldiz Xabierko ikastetxea eta urte hartan han bildu ziren hogeitabost mutikoetatik bat Ignazio

Ariztimuño, Aitzolen anaia zen. Bestea aita Ramon Arsuaga, Loiolan oraindik bizi dena eta datorren hilean laurogeitamabost urte beteko dituen (1). Burua aski arindua du, baina hona zer kontatu zion orain baino lehen aita Intxaurrandietari: “Fui del primer grupo en la Fundación de la Escuela Apostólica de Javier en 1904. Nuestro Superior era el P. Millán. Conocí en Javier al P. Saturnino Iburguren. Este Padre, en la inauguración de la Capilla nos cantó: ‘Bedeinka, bedeinka zazu nere anima, bedeinka, bedeinka zazu Jaungoikoa’. Nuestro estudio era sobre todo y casi exclusivamente latín y griego. Recuerdo como profesores al P. Antonino Atucha, Diez... Ignacio Ariztimuño era uno de mis primeros compañeros. Nuestro grupo se componía de 25 niños... Ormaechea era grande. Enfermó no sé de qué y bajaba las escaleras de espaldas...”.

Orixe ez zen, ordea, aita Arsuagarekin batera joan Xabierra, urtebete geroago baizik. Oso gizaseme handia zela; hamabi urte baizik ez zituen Ramon Arsuagari hala iruditzen, agidanean, hamazazpitako Nikolas. Eder da ere jakitea euskal kantak, bere xotilean, ez zitzaizkiela arrotz Xabierko bazterrean. Hiru urte geroago, Arrasateko seme zen aita Angel Alberdik han bertan Lagundiko urre ezteiak ospatu zituztenean, bi mutikok, Patxi Pagadizabalek eta Etxarri batek, euskal bertsoak egin zizkieten eta gugaino heldu dira. (Diodan bidenabar aita Angel Alberdi horrek berak ia mende erdi bat lehenago junior gazte zelarik eginiko euskal bertso batzu ere gordeak daudela Loiolan).

Latina eta gerkeraz besterik ez zutela ia ikasten. Halaz ere Orixeren notetan gerkerarenik ez da ageri. Lehen ikasturtean, 1905-1906koan, latineko eta historiakoak bakarrik ageri dira; bietan Bikain atera omen zuen urteko hiru azterketetan. Bigarren ikasturtean ere Bikain latinean eta geografian. Ikasturte honetan, halere, Ekaineko notarik ez du Orixek, ikasturtea amaitu baino lehen joan baitzen Loiolara jesuita izaten hastera. Hori zergatik izan zen, etxeko historiolaria jakinerazten digu: “...magnis angustiis rei familiaris pressa fuit domus Xaveriana... Fortasse haec magna egestas una e causis praecipua fuit, cur mense Martio et Maio alii novi alumni ad tirocinium missi sunt”; esan nahi baita, ondasunen gabezia larria izan zutela etxean eta horregatik aurreratu zietela zenbaiti nobiziadura joateko muga.

Ia hamazazpi urtetako mutil koskorra lehenik Xabierren eta ia hemezortzikoa gero Loiolan apaiz ikaskizunak egiteko hartu izanak asko esan nahi du Orixeren alde. Bi urte gazteago zen Zakarias Ariztimuño, eta berak esan bezala Uitzin bertan latin pixka bat ikasten aritua, eta ez zuten halere hartu anai laguntzaile izateko baizik. Are gutxiago hartu behar zuten Orixek. Ez da dudarik gazteleraz eta latinez poliki hornitua eta buruz ongi jantzia ikusi zutelako utzi ziotela apaiz-bidea hartzen.

(1) Txosten hau Uitzin irakurri eta gero hil zen Loiolan 1989ko Urtarrilaren 17an.

Izan al zen Orixe Uitzin inude-amandreei eta Orexan gurasoei agur egiten Loiolara baino lehen? Nik baietz uste, edo hartako astia izan zuen bederen, Xabierretik Martxoan atera zirela irakurri baitugu latinezko albiste horretan eta bai baitakigu Loiolan ez zela Apirila arte sartu. Hamasei hilabete doi-doi eman zituen Xabierren eta jesuita izateko ezpala zuela iritzi zioten hango agintariek.

## 2. LOIOLAN NOBIZIO (1907-1909)

Orixe 1907ko Apirilaren 10ean iritsi zen Loiolara, asteazken batean: “Procedentes del Colegio apostólico de Javier han llegado e ingresado en Primera Probación los Sres. Ormaechea, Urarte y García”. Ez zetorren beraz bakarrik. Nikolas zen hiruretan zaharrena, hamazortzi urte eginak zituen Abenduan. Beste biek, aldiz, batak hamabost zituen, besteak hamabost ere ez artean. Horrez gain Nikolas bi urte bakarrik egona zen Xabierren, Urarte bezala; Garcia aldiz hiru urte. Badu honek zerrikusia gero esango dugun zerbaitekin.

Nobizioen Maisu edo zuzendari eta aldi berean etxeko erretore zen aita Cesareo Ibero azpeitiarrak eta beste bizpahiru apaiz jesuitek bi egunez esaminatu zuten, zertan aritu zen Xabierra baino lehen, nola jakin zuen Xabierko berri eta nork bultzatu zuen hara joatera, gurasoak bizi al zituen, gogo onez utzi al zioten bizibide berri hura hartzen, zerk zeragion jesuita izatera, eta abar galdeginez. Ostiralean, hilaren hamabian, hartu zioten ofizialki izena eta esan has zezakeela bizimodu berria. Nikolasek honako agiri hau sinatu zuen, hitzemanenez prest zegoela bere burua Lagundiari lotzeko zinitzen bidez. (Ikus hor bere eskuko agiria).

“Lehen Probantza” zeritzana jasan behar zuen hamabi egunez, ondoren hasiko zuen Nobiziaduko ohiturak eta azturak ikasiz: noiz jaiki ohetik, noiz oheratu; noiz eta nola otoitz egin; zein ziren isilik egoteko ordu luzeak eta zein jolasteko aldi laburrak; nola egiten ziren etxetik kanpoko pasiuak, astean hirutan hirunaka atereaz eta bidean errosarioa erreztatuaz; nola etxe barneko jolasaldiak, nahiz baratzen pasiatuz nahiz hirugarren solairuko pilotaleku handian pilotan jokatzuz, eta abar; baina batez ere hautatu zuen Institutuaren, Jesusen Lagundiaren, legeak, arauak eta izpiritua ahalik ongiena ezagutzeko zenbait liburu irakurritz. Guzti hori irakasteko nobiziogai berriari urtebete lehenago sarturiko nobizio bat eman ohi zitzaion gidari, “aingeru” deitu ohi zena, eta Nikolasi Aitzolen anaia, Ignacio Aristimuño, izendatu zioten. Xabierren urtebete elkarrekin egonak ziren. Azkenik hiru egunetako erretiroa egin eta hilaren 21ean, garai hartan San Joseren festa ospatu ohi zen egunean, jantzi zuen lehen aldiz sotana eta nobizio izaten hasi zen, horretarako aurretik ilea arras moztu eta kaskamotz utzi ondoren. Orduz gero gainerako nobizioek

110.

Ego Nicolaus Amacchoa Hispanus oratus sum die sextae  
 Decembris anni millesimi octingentesimi octogesimali octave  
 dieoanni Vitervensi, provincia Tujpuacua ex legitimis parenti-  
 bus Johanne et Maria Ignacia suticadilibus.

Humanioribus litteris etiam dedi duobus annis sub T. Abra-  
 ham in Schola Apostolica.

Denique, melioris vitae flagrans desiderio ad Societatem Jesu a-  
 ingra a P. P. Ignacio Maria Abate Praeposito Provinciali pro  
 Castellae admissus sum.

Ad Tertium Loyolanum anni, idique primam probationem ingressi  
 octavo mense Aprilis anni millesimi octingentesimi septimi.

Examinatus fui a P. P. Rectori et Magistro studiorum. Causam  
 examinis generale Societatis Jesu et Diplomata Apostolica Pau-  
 l. III. constitutionesque servare desidero et nominationem quae ad obedia-  
 tiam et perfectitudinem utique et quavis in se pertinent; item ac-  
 censionem ad quemvis Societatis gradum et reddendam conscientiam  
 in contrariis ut omnes errores et defectus mei et res quaecumque q-  
 uerantur et observatae fuerint per quemvis qui contra Confessionem ca-  
 n. praeceperit, superius manifestetur.

Paratus item ad aliorum correptionem ferre, aliorumque de-  
 manifestare, secundum praescriptionem et voluntatem Superiorum.  
 Item, Divulgationi necesse ad civium officia et litteras perpetua-  
 das.

Præmittit etiam omnia mea bona post clausuram ab ingressu  
 unum, cuandocumque id a Superioribus injungatur, relicto.

In quorum fide haec manu mea scripsi et subsignavi.

Probat in Tomo Probationis Societatis Jesu, die duodecima  
 Aprilis anni millesimi octingentesimi septimi.

A. M. D. G. Nicolaus Amacchoa

beren artean hartu zuten, alaiki agurtuz eta guztiek besarkada emanaz. Jai eguna eta igandea zenez gero, arratsaldean elizkizuna izan zen Basilikan, aita Ramon Laskibarrek predikua euskaraz eginik. Hura izan zen segurki Nikolasek Loiolan entzun zuen lehenbiziko euskal sermoia. Ez zekien asko, handik urtebetera berak hartu beharko zuela, urtebetean zehar, parte nagusia pulpitutik Basilikako elizkizunetan! Egun hartantxe suertatu zen Etxe Santuko San Joseren kapila berrituaren sagaratzea eta juniorren latinezko egunkariak honela dio egun hartan: “Attulit Divus Joseph, ut solemnitas maior celebraretur, tres novos tyrones”; San Josek, alegia, bere festa handikiroago ospa zedin, hiru nobizio berri ekarri zituela egun hartan Loiolara.

Nobizioen egunoroko bizitza lan txiki eta eginkizun ñimiñoz betea zegoen garai hartan, orduoro eta are orduerdi oro lantegi bat eten eta berriari ekinez. Ez zukeen inor berehalakoan loak hartuko! Nobizioen bedela behartua zegoen egunoro bere egunkarian egun bakoitzeko ordu-tegiaren berri ematera, batez ere arrazoiren batetatik aldatzen bazen, eta Nobiziaduko bizitzan gertatzen zen edozer berrikeria bere kuadernoan adieraztera. Egundainoko albiste xeheak aurkitzen ditugu horri eskerrak urteroko egunkari horietan. Nikolasen izena aipatzen deneko batzu aldakotako ditut hona. Baina hori baino lehen beste gertari baten berri emango dut, Nikolasekin gero zerrikusi handia izango duen lagun bati dihoakiona.

Ekainaren 14ean iritsi zen Bilbotik Loiolara, Deustuko ikasketak bertan behera utzirik eta, poeta famaz gain, lepondoa estaltzen zion txima luzeaz apaindurik orduko poetak gisa, gero bizi osoan Nikolasen adiskide min-mina eta are literatur gidaria izango zen gazte txiki bat, Jose Maria Estefania zeritzana. Bi hilabeteren alde baizik ez dute, beraz, Lagundian. Halere, gezurra badirudi ere, Orixe guztira hamasei urtez jesuita izango den arren —eta Estefania gehiago, noski—, horietatik lau urtez bakarrik biziko dira biak batera eta elkarrekin, ikusiko dugun bezala. Aski izan ziren lau urte, ordea, bien bizitzak inoiz etengabeko eta are ezin etenezko adiskidetasun lokarriz lotzeko.

Hona orain bedelaren egunkaritik harturiko pasarte batzu:

“Julio, martes 2... Ha sido nombrado ventanero de San José el H. Ormaechea”.

“Julio, lunes 8... Salieron al ejercicio de modestia los HH. Urarte, García, Ormaechea y Salazar”. Hor duzue lehen aldiz Nikolas nobizioen Maisuaren oinetan eta beste nobizio guztien aurrean belauniko lurrean, egotzi nahi zizkioten bekatutxoak, hutsak eta erruak entzuten. Zer esan ote zioten!

“Agosto, domingo, 18,... En el recreo de la noche... tuvimos el ejemplo...; lo dijo el H. Ormaechea”. Erljio kutsuzko gertari edo ipuin

miragarriren bat kontatu behar izaten zuen batek, nobizio guztiek entzuten zutela.

“Septiembre, jueves 12. El H. Hormaechea —hemen lehen aldiz H-z idatzia dago haren deitura— ha quedado esta mañana en cama en la enfermería por sentirse indispuerto”. Eta hilaren 21ean oraindik esaten zaigu: “Por estar el H. Hormaechea enfermo...”

“Octubre, domingo 6, ... hicieron la confesión general del semestre” zortziren izenak ematen zaizkigu eta horietan azkena Nikolasena.

Urriaren 11an hilabeteko gogojardunak hasi zituzten azken hamaika hilabetetan nobizio sartu ziren berogaitamar nobizioek eta azaroaren 12an bukatu. Biharamonean, San Estanislao eguna izanik, bigarren urteko nobizioek akademia edo jaialdi poetikoa eskaini omen zuten: “declamaverunt optime aliqua carmina” dio juniorren bedelak, euskarazkorik izan zen ala ez argitu gabe.

“Noviembre, lunes 18. Hoy a las 7 de la mañana han marchado a Burgos para hacer el mes de Hospital los Hnos. Laburu, Urarte, Leturia Pedro y Hormaechea”; eta Abenduaren 16an esaten zaigu itzuli zirela.

Juniorren bedelaren latinezko egunkariak Eguberri eguneko jaialdiaren berri ematen digu, esanez: “carmina lingua et hispana et vasca” irakurri zirela.

“1908. Enero, miércoles 8. Tonos el H. Hormaechea”.

“Abril, lunes 6. Salieron al ejercicio de modestia los HH. Urarte, García, Ormaechea y Salazar”.

“Abril, Viernes Santo 17. Sei hilabeteko konfesioa egin zutela sei nobizioek eta haietako bat Nikolas izan zela.

Ezin naiteke honela jarrai, lan hau azkengabea izango ez bada, eta albiste txiki batzu aipatu gabe utziko ditut. Ohar zaitezte, ordea, igaro dela urtebete Nikolas nobizio sartu zenetik; bigarren urtean haren bizi-modua pixka bat aldatuko da. Hala dio bedelaren egunkariak ere:

“Abril, martes 21... De particular fue el pasar a 2.º los HH. García, Maguregui, Ormaechea, Obieta y Urarte, después de cumplido el 1.º año de Noviciado, a ser “cicerones”. Lehen urtean ez zuten ia ikasketarik egiten —egunean ordu eta erdi bakarrik— eta bigarren urteari ekitean, berriz, hamabost ordu edo ematen zitzaizkion astero latina eta gerkerak ikasteari; eta Orixek lehen maila, gramatika, ongi ikasia baitzekarren, Xabierren ikasi guztiek bezala, “humanitate” direlakoak ikasten hasi zen. Hortik zuten “cicerones” izena. Eta biharamonean egunkari berak dio: “Empiezan sus tareas literarias de 2.º los HH. Maguregui, Obieta, García, Ormaechea y Urarte”. Ikaskideetako bat Pedro Leturia izan zuen.

Maiatzaren 2an iritsi ziren Loiolara Boloniatik aita Kardaberazengorpuzkiak. Jaialdi eta elizkizun izugarriak izan ziren, jendea Basilikak hartzen ez eta atarian eginak. Jesuita gazteek ere omenaldi bat eskaini zioten 10ean: “carmina hispana et vasca sunt lecta”. Ez zaigu esaten egileen izenik eta ez zaizkigu ere heldu, baina Orixerenen bat ere izango zen apika.

Ekainaren 20an “a las 9 academia celebrada por los HH. Humanistas... sobre el 1.º centenario de la Independencia”. Bi ordu luzatu omen zen eta “Los Hermanos estuvieron elocuentes y entusiastas”. Orixe ere humanista zela esan dugu.

Otoitzek eta ikasketek besterik ere egiten zuten, noski. Hona jokaldi baten berri:

“Jueves, domingo 21, San Luis... Siguióse el partido de pelota entre Juniores y Novicios. Jugaron los PP. juniore Huici, Aguirre y Pérez—hirurak apaiz zirelarik nobizio sartuak, horregatik ‘Padres’— contra los HH. novicios Hormaechea, Zalacain y Obieta J. Ganaron los juniore”. Orixe eta galdu, beraz.

Beste albiste berria. “Agosto, sábado 29. Cincuentenario de la Ordenación Sacerdotal de su SS. Pio X...; el Santísimo Rosario, rezado bajo la dirección del H. Hormaechea”, pulpito gainetik, noski; eta harrez gero beste bizpahiru igande eta jaitan gauza bera esaten zaigu: “rezando el rosario el novicio H. Ormaechea”. Urte hartan Orixe izan zen, inondik ere, Basilikako elizkizun guztietan errosarioa errezatu zuena.

Handik egun batzutara etxean gelditu zela esaten digu egunkariak “por estar cojo”. San Estanislao egunean beste pilota jokoa, ez ordea juniorren aurka, nobizioen artean baizik: “en él tomaron parte los HH. Ormaechea, Huarte y Mendicute por un bando y por otro los HH. Larrañaga, Echeverria y Goicoechea. Los primeros ganaron el partido”. Bazkaldondoan olerki saioa izan zen, nobizioek egin eta berek irakurri.

Horrela jarraitzen da egunkaria etengabeko jarioan Nobiziaduko gertari apurren berri ematen: humanisten beste ospakizun literarioak, bata Azaroaren 28an, bestea Abenduaren 8an; haien beren —eta Orixeren, jakina— lehen azterketak Abenduaren 23an; Inoxente eguneko akademía, juniorrek egina, non eman baitzuten “Pello, Perejillondo eta Vixente Iñaxio” zeritzan euskal antzerkia; nola hasi zen Orixe Martxoaren 13an sukaldeko lanetan laguntzen hilabetez; nola kontatu zuen beste esenplu bat nobizio guztien aurrean; nola juniorrek Fray Luis de Granada gai harturik beste akademía bat egin zuten, nobizioak entzule zirelarik; nola humanistek izan zituzten Aste Santu aurreko azterketak, eta abar luzea.

Pixka bana, eta ez haatik Orixe nahi bezain laster, bigarren urtea ere azkenera hurbiltzen ari zen eta Orixe zetorkion egun handirako



prestatzen bere barnean antsiz eta irrikaz. Sotana berria egin diote, Apirilaren 13a, Bazko hirugarrena, zinitzak meza bitartean, ohi zenez, egiteko eguna baitu. Meza laguntzaile bietako bat nor izango, eta Estefanía: “En este día hicieron los votos del bienio los HH. Urarte y Ormaechea, y ayudaron a misa los HH. García y Estefanía”. Eta juniorren bedelak ere honela dio bere latinezko egunkarian: “Meridie FF. Urarte et Ormaechea amplexi sumus, nam hodie vota nuncupaverunt”.

Osatu ditu Orixek Nobiziaduko bi urteak, egin ditu lehen zinitzak eta egun berean lekuz eta gelaz aldatzen da: nobizioen solairua utzi, Estefanía eta utzi, —ez baitzen inola ere zilegi nobizioak eta juniorrak elkarrekin mintza ere zitezen, urtean bospasei jai egun handitan izan ezik—, eta juniorrak bizi direnera aldatzen da. Baina batez ere bizimodua aldatzen du egun hartatik hasita: otoialdi laburragoak eta ikastaldi luzeagoak; erlijiozko liburuen ordezkuntzak —latina etta gerkerak— eta literatura ikastekoak erabiliko ditu eskuartean lehen baino gehiago, eta batez ere lagun berriekin, nobiziaduan ezagutu dituenekin, hasiko da bizitzen, jolasten, pasiura irteten eta ikasten. Elizan igande arratsaldeetan errosarioa erreztatzea ere utzi du, nobizio baten eginkizuna baitzen hori: “Mayo, domingo 2. Desde este día rezará el Santo Rosario en la Iglesia el H. Larrañaga por haber pasado al Juniorado el H. Ormaechea”.

Anai Estefanía oraindik nobizio izaten jarraitzen da. “Junio, miércoles 2... Improvisó el H. Estefanía sobre las palabras de Jesucristo (S. Juan): “Nemo potest venire ad me, nisi Pater, qui misit me, traxerit eum”. Baina bi hilabete igaro eta honi ere zinitzak egiteko eguna iritsi zaio: “Junio, viernes 18. Fiesta del Sdo. Corazón. En la misa de 6,30 se consagraron a Dios por medio de los Santos Votos el P. Vicente Alcorta y los HH. escolares Daniel Salazar, Julio Fernández y José María Estefanía...”

Horra berriro bi hilabeteren buruan elkarrekin Orixe eta Estefanía, hau latinaren eta gerkeraren gramatika buruan ezin sarturik gatazka bizian, hura berriz Erromako eta Greziako idazleen obrak atseginez eta ezitan dastatzen. Denbora gutxi gelditzen zaie, halere, elkarrekin egoteko. Humanitate direlako ikasketen ondoan Retorika ikasi ohi zen bi urtez eta hori ikastera Burgosa joango da Orixe, beste erretoriko guztiak bezala. Loiolan gramatika eta humanitateak ikasi behar zituzten juniorrak bakarrik gelditzen ziren eta bi maila horiek iada gaindituak ditu Orixek; erretorika, aldiz, Burgosen ikasten zen garai hartan.

Ez da, ordea, ikasturtea oraindik bukatu eta humanistek egiten dituzten akademia eta ospakizun literarioetan esku hartzen du, lanak eginez eta irakurritik, eta igande arratsaldeetako “tonuak” direlakoak txanda dator-kionean deklamatu. Apirilaren 29an “academia hispana” izan omen zuten. Maiatzaren azken egunean ospakizun poetikoa, bederatzi juniorrek berek eginiko olerkiak irakurri zituztelarik. Uztailaren 15ean humanistek

Fray Luis de Leonen poesia eta hitz lauzko zati batzu deklamatu zituzten beste akademia batean eta hari buruz eginiko idazlan bat ere irakurri. Azkenik hil beraren 28an egin zituzten azterketak eta ikasturtea amaitutzat eman.

Ez da guganaino heldu, esan bezala, garai hartako akademia eta jaialdi literarioetan irakurtzen zen ia batere idazlanik edo olerkirik eta heldu diren bakanek ez dute egilearen izenik; bai, ordea, ekain hartako egun batez Orixek ondu zuen olerki txiki-polit bat. Ez da, seguru aski, bizian egin zuen lehena; bai, halere, nik dakidala, egin zituenetarik gelditu zaigun zaharrena. Orduan —eta orain ere bai— Nobiziadua bukatzean eginiko zinitzak berriitu ohi zituzten jesuita gazteek urtean bi bider: Ekainean, San Pedro egun inguruan, eta Urtarrilean, Errege Magoen egunean. Orixek ere lehen zinitzak egin eta bi hilabeteren buruan berriitu zituen lehen aldiz bereak. Horretarako hiru egunetako gogojardun laburrak egin ohi ziren eta —orduko ohitura, geroago galdu eta nik neronek ezagutu ez nuena!— junior guztiei gelaz-gela pasatzen zitzaien kuaderno bat; han idatzi ohi zuten hiru egun haietako isilaldietan paratu behar izaten zuten olerki bat; ez, ordea, gazteleraz —euskaraz ere ez artean—, baizik latinez, gerkeraz edo erretorikoek hebreoz ere bai. Orixeren hebreozko bat aurreraxeago aurkituko dugu; urte honetakoa latinezkoa da. “Se colocan los versos de renovación el día en que ésta tiene lugar en la solana; para esto se pide al H. Galarza el paño y el listón dorado donde se ponen y se dejan hasta la Octava”. Hona Orixek bere zinitzen lehen berrialdian egin zuen latinezkoa; “In Societatem Iesu”, Jesusen Lagundiari, titulua du:

Te nullus hortulus potest feracior  
 Toto esse, Mater, in solo;  
 Nam te hortulanus Iesus acriter colit  
 Curatque summo studio.  
 Rivo fluenti Cordis irrigat sui  
 Spinisque sepit asperis,  
 Quibus coronatum suum fuit caput  
 Fortique defendit manu.  
 Gemmis onusto pallio Mater tegit  
 Iesu, et favet benigniter  
 Ioseph, simul constans et acer angelus.  
 Terni hortulum custodiunt.  
 Quantum beatus ille qui tam dulcibus  
 Perfunditur solatiis!  
 Custodibus quis ergo palmes tam probis  
 Marcescet horto in compari?  
 Iesu benigne, Virgo coelorum decus,  
 Iosephque felix et pie,

Rogo colatis me, nec unquam languidum  
Spectetis heu! Tantum hoc precor. (2)

Eta azpian sinadura: F. Ormaechea s.j. Bi urte horietan hainbat akademia eta jaialditan Orixek segur aski olerki eta idazlan gehiago ere egin zituzkeela esan dut eta hau ez da guztiz oinarri gabeko susmoa. Hona froga bat. "Los Madrigales" titulua duen idazlan bat burutu zuen anai Jesús Zabalegik 1926an. Mutiko nintzelarik ezagutu nuen; hura orduko apaiz zen eta Bakion ito zen uda batean. Zabalegi horrek junior zelarik "madrigal" izeneko olerki motaren bereizgarriak ikertzen dituelarik, hiru jesuitek behiala eginikoak aipatzen ditu eta horietako bat, hain zuzen, "de Nicolás Ormaechea, muy hermoso en verdad y verdadero madrigal, aunque no tan claro en cuanto a la idea". Ene ustez, guztiz argia du esanahia. Anai Zabalegik txosten hori, esan bezala, 1926ko Ekainean ondua da; ez dakigu ordea Orixeren olerkia noizkoa den, ez eta nondik eskuratu zuen Zabalegik. Egingo nuke aita Estefaniak zeukala gorderik eta honek eman ziola bere ikasle Zabalegiri. Honek bere idazlanean Orixeren olerki hori aipatu ez balu, ez zitzaigukeen segurki helduko. "Al Smo. Sacramento" du izenburua "madrigal" bikain honek:

Pues has sido tan diestro en perseguirme,  
divino cazador, que me has rendido,  
¿qué tardas en herirme?  
O ¿no estás para herirme apercibido?

---

(2) Orixek berak mila bider hobeki itzuliko zukeen, maisua baitzen; haren itzulpenik ezean, hona hau, zer dioen latinez adi ez dezakeenarentzat:

Zu baino baratzño naraogorik  
ezin dateke, Ama, lur osoan,  
ezen Jesus baratze-zainak lantzen zaitu  
arduraz eta zaintzen arretaz,  
bere bihotzeko xurrua ixurberaz ureztatzen  
eta arantze latzez hesitzen,  
—burua koroatu zioten arantzez, gero!—,  
eta esku bortitzez gordetzen.  
Jesusen Amak harri-pitxizko soinekoz  
estaltzen zaitu eta San Josek,  
begirale erne-zintzoak, laguntzen.  
Baratze baten hiru zaindari!  
Oi dohatsu mila aldiz, horrelako bozkarioz  
gozatzen duen kristaua?  
Halako baratzean halako zaindarekin  
nola zimel daiteke kimurik?  
Jesus laztana, Birjina zeruko aintza,  
Jose zintzo eta leiala,  
Landu ni ere, otoi, eta ez inoiz zimeltzen  
utzi! Horra ene eskea.

Si es que es arco el viril y tú eres flecha  
 y yo la presa soy, tu ojo me acecha  
 e inquieto yo te espero a que me hieras.  
 ¡Cuándo será, Señor, que herirme quieras!  
 Mas... esperar el tiento de tu brazo  
 me es ya mortal flechazo.  
 ¡Hiéreme, pues, Señor, y dame vida  
 sanándome esta herida con tu herida.

Burgosa Erretorika ikastera joateko egunak kontatzen ari da agidanean Orixe, baina hara baino lehen Loiolan emango du uda osoa. San Inazio bigarrenez elizkizun arras nagusia izan zen Basilikan; Madrilako Nuntzioak eta beste apezpiku batek eman zuten meza eta aita Vilallongak, urte batzuren buruan Orixe Lagunditik aterarazi zutenetako batek, egin hitzaldia. Biharamonean hasi zituzten Loiolako gazteek udako opor handiak —handiak eta txikiak izan ohi ziren—, eta juniorrek Zumaian igaro zituzten bospasei egun bi txandatan, gainerakoak Loiolan gelditzen zirelarik beren txanda zain.

Opor handiak 16an amaitu, Burgoserako pardela prestatu, Loiolan gelditzen diren jesuita guztiak besarkadaz agurtu eta hor doaz guztiak hiru sailetan Abuztuaren 19, 20 eta 21ean; nor zein egunetan ez digu esaten Loiolako juniorren egunkariak; bai, ordea, Burgoskoenak: “Aug. 1909, 20, ven. ... Hodie Loiola Burgos pervenerunt FF. Zalacain, Zabalza, Arrizabalaga, Puig et Ormaechea”. Abuztuaren 20an, ostiralean, heldu omen zirela.

“Agur, Euskalerrri...”. Agur samina, segurki. Bederatzi urte igaroko ditu Euskalerrira, bizitzera bederen, itzuli gabe. Loiolak bihotzean txertatu dion maitasuna —Euskalerrri eta euskararekikoa— ez zaio sekula itzali-ko; are gehituz eta handituz joango zaio, oztopoak oztopo.

### 3. BURGOSEN RETORIKA IKASLE

Lehendik ere ezagutzen zuen Orixe Burgos; han egina zuen hilabete-ko egonaldia gaixotetze batean, esan dugun bezala, nobizio zelarik. Bi urtetarako joan da orain, “La Merced” zeritzan etxera, Retorika delakoa ikastera. Bi mailako ikasgaiak hartzen zituen izen horrek bere baitan. Lehen mailako ikasgai nagusiak, asteko egunik eta ordurik gehienetan ikasi behar zirenak, hauek ziren: latina, gerkeria eta hebreoa, antzinako Greziako eta Erromako idazlerik hoberenen obrak, bertsozkoak nahiz hitz lauzkoak, poetika eta estetika, eta literaturaren —Espainakoaren ia bakarrik— historia. Bigarren mailakoak, aldiz, haien osagarri gisa jai edo erdi-jai egunetan, ostegun eta igandeetan batez ere, ikasten zirenak beste

hauek: historia orokorra, aritmetika eta geografia, eta hizkuntz moderno-  
ren bat.

Bedelaren egunkariak ez du gehiago Nobiziadukoaren emanik; jario urriagoa du, eta juniorren izenak ere gutxiagotan aipatzen ditu. Orixerena bizpahirutan bakarrik agertzen da. Hogeitalau lagun ziren Retorikako lehen ikasturtean. Horien artean badira Orixe baino urtebete, eta are bi urte, lehenago Lagundian sartuak: hots, Burgosa baino lehen Loiolan gramatika eta humanitateak ikasi behar izan zituztenak; beraz lau urte Loiolan bizi izanak. Horretarakoxe gelditu zen han Estefania ere beste bi urte eta, Orixe eta biak Nobiziaduan bateratsukoak izanagatik, bi urteren alde kendu zion batbatean Estefaniari. Geroago honek alde hori berdindu eta are aurrea hartuko dio.

Urte hartan, 1909an, Probintzi-buru aita Pedro Bianchi donostiarra zen eta Probintzia –jesuiten barne-administrazioko probintzia, noski-geroago zatituko eta bereziko ziren Leonek eta Castillak osatzen zuten. Euskaldunak, gaztelaukoak eta leondarrak baturik zeuden, beraz, etxe hartan. Bai ote da esan beharrik han ez zuela Orixek Loiolan bezalako euskal girorik aurkitu, ez eta, esate baterako, Loiolan 1907ko Irailaren 15ean bezala, On Mateo Mujika, artean Gasteizko kalonje gazte zenaren, euskal predikurik entzun? Arras bestelako giroa bizi du Gaztelauko bihotz-hiri hartan; etxean latina, gerquera eta hebreoa aritzen da jo eta ke ikasten; auzoan, aldiz, ez du gaztelera baizik entzuten. A, hori bai: gaztelera eder, bizi, zailua, eta hura ere biziki maitagarria gertatu zitzaion Orixe gazteari eta sakonki menderatu zuen, lehen irakurri dugun olerkiak eta, beste gehiagoren artean, Berzeoren hizkera imitatuz behin paratu zituen bertsoek ezin hobeki erakusten digutenez. Leongo eta Granadako bi Fray Luisen eta Abilako Teresaren eta Gurutzeko Juanen hizkera liluragarri zitzaiola ondotxo dakigu.

Etxeko erretore aita Jose Mari Salaverri Mondoñedotarra izan zuen Burgosko lehen urtean eta gogo-zuzendaria euskalduna, aita Inazio Aramburu Segurako semea. Irakasleen artean ere bazuen euskaldunik: Balentin Galdos eibartarra, euskal letretan ezagunxeagoa dugun Romualdoren anaia. Gerquera batetik eta bigarren mailako historia orokorra eta geometria erakutsi zizkion honek Orixeri lehen urtean. Aita Camilo Abad-ek, aldiz, poetika eta estetika latinezko eta gerkerazkoa, eta literatur historia. Frantsesezko eskolen arduradun ere berori zen.

Irakasle gutxitxo aukeran eta gai gehiegixko irakasle berak emateko. Bai, ez da dudarik. Artean bakanak ziren ikasgai bakarrean edo gehienez bitan espezializatzen zirenak. Ikasle gazteei ematen zitzaaien hazibidea ere orokorra zen, ikasgai askotxo besarkatzen zituena, ezertan gehiegi trebatu gabe. Urte batzuk igaro beharko dute Espainan nahiz erbesteetan espezializaturiko Errandonea, Rufo Mendizabal, Estefania eta gainerako irakasle iaioagoak –Zaitegik, Lauaxetak, Ibiñagabeitiak izango zituztenak–

juniorren irakasle izatera etortzeko. Halaz ere, egia esan, ikasle gazte haien bere gisako jardunak eta gatazkak eta ordu handitako egunoroko ahaleginak osatzen zuten nolazpait irakasleen ikasgai guztietara ezin hedatzea. Ondorioak ikusi besterik ez da!

Hiruzpalau hizkuntza aski ongi ikasirik ateratzen ziren bi urte haietako jardunetik. Latinez, gerkeraz, hebreoz, frantsesez —honen orde bestebatzuk ingelesez— onduriko olerkiak dira diogunaren lekukorik hoberena. Ez zaizkigu heldu damurik bi urte haietan Orixek —ez eta bestek— ondu behar izan zituen latinezko mintzaldiak, gero txandaka buruz ikasita —ez irakurrita, gero!— jantokian guztien aurrean egin behar izaten zituztenak; ez eta urtean zeharko jaiegun berezietarako —Ama Birjinaren festak, Maiatzeko azken eguna, Eguberriak eta abarretarako— paratu ohi zituzten olerkiak; ez eta afalartean jantokiko pulpitutik egin ohi zituzten gaztelezako prediku laburrak... Bai, ordea, sei hilabetez behin zinitzak berritzerakoan paratu zituen latinezko olerkiak. Lehengo hura “Jesusen Lagundiari” bezala, 1910eko Urtarrilean tolestaturiko hau “Ad S. P. Ignatium” egina da. Behin Erroman gau oskarbi batean San Inazio zeru ederrari begira esan omen zituen hitz “Zein nardagarri deritzadan lurrari zerura begiratzean!” haiek ditu kantagai. Hona olerkia:

Desistit rumor perstantque silentia cuncta  
 Noctequ siderea  
 Assidet in tecto curarum Ignatius experts.  
 Inspicit astriferum  
 Coelum, et ferventi in patriam devinctus amore  
 Luminibus rutilis,  
 Vultum cum lacrimis irrorat, talia fatus:  
 “Heu mihi, quam nihili,  
 Quam, dicam potius, spernenda haec sordida terra est,  
 Tegmina cum tueor  
 Aetheris immensi, clara quae luce refulgent!”  
 Indigus hoc precibus  
 Assiduis supplex, Pater, unum eflagito, Sancte,  
 Ut mihi perpetuum  
 Concedas clemens, regni coelestis amorem  
 Et miseri exsilii  
 Istius horrorem moestum, capitaleque semper  
 Obtineas odium. (3)

---

(3) Surmurrak geldi, isila da nonnahi nagusi  
 eta gau izartsuan  
 Inazio etxegainean lasai da eseri.  
 Zeru oskarbira

Ikasturtea oso luzea, astuna eta trinkoa izan ohi zen; udako bi hilabetetako oporraldi handi eta txikiak kenduz gero, ia gainerako guztia: Urriaren lehen egunean hasi eta San Inazio bezpera arte. Eguberrietan eta Bazkoan ere izaten ziren eskola gabeko egunak; ez, ordea, norberak bere gisa egin beharreko ikastaldi gabekoak. Eguberri egunean berean ere bi ordutako ikastaldia egin behar izaten zen. Ostegunetan ikasgai nagusiak bazterrera uzten ziren, baina hizkuntza modernoak ikasteko eta gero haietazko eskola hartzeko ordu eta erdi izaten zen gutzira, bai eta bakoitzak idatzi behar izaten zituen latinezko mintzaldiak arretaz lantzeko beste ordu eta erdi ere ilunabarrean. Ostegunetan izan ezik, astegunetan bataz beste lau ordu izan ohi ziren nork bere gelan ikasteko eta beste hiru edo lau ordu eskolak hartzeko. Horretarako bazuten gazteek bere liburategia: “Para sacar un libro de otra biblioteca que la del Juniorado se requiere permiso del Rector”.

Ordu eta erdiko ibilaldia izan ohi zen astearte eta larunbata arratsaldeetan etxetik kanpoko bide eta herrixketan barrena: “No vayan a la Catedral y en general no pasen por los puentes de Santa María, San Pablo y Besón hasta la ciudad, a no ser que la necesidad los obligue”. Ostegunetan hamar eta erditan edo hamaiketan, hizkuntz eskola amaitzean, txango luzeagoa egin ohi zen: etxetik atera, leku zelai edo kaxkoren batean bazkaldu eta bostak aldean berriro etxera: “Tampoco pasen a lo largo de la vía del ferrocarril; a lo más se permite atravesar el puente que está al terminar la Quinta”. Ibilaldi horietara hirusunak atera ohi ziren; inori ez zitzaion zilegi beste bi lagunak berak hautatzea; aitzitik hirusunako sailak bedelak izendatzen zituen egunean-egunean txandaka, guztiek guztiekin harremanak izan zituzten eta ez beti lagun berekin. Lehen ordu erdian elkarrekin gazteleraz mintzatzea galerazia zegoen, latinez hitz egin behar zen: “La media hora del latín de martes y sábados empieza a contarse desde que se sale de la portería”. Ez da harritzeko, beraz, azkenerako batzu latinez ia gazteleraz bezain aise mintzatzeko gai

---

begira, izarren argiek zeru egarri bizia  
 diote irazeki;  
 eta begitartea negarrez bustirik honela da mintzo:  
 “Ai ene, bai ezdeus,  
 are bai nardagarri deritzadala lur satsuari,  
 egurats zabaleko  
 eremu argi garbiz distiratsuei nagoela so.”.  
 Errumes honek  
 batño dizu eskatzen Aita on horri:  
 idazu, otoi,  
 zeruko erresumaren betiko maitasuna  
 eta erbeste dohakabe  
 honen higuin muzina eta gorroto bizia.  
 Idazu bai, arren!

gertatzen baziren. Hala moduko latina batzurena, bai; eta guztiz dotorea eta aberatsa gehiagorena. Bazen garai hartan bat baino gehiago hitzetik hortzera latinezko bertso biribilak egiten zekiena; hala diote ni baino zaharragoek aita Florentino Ogara Etxanoko semeaz, esate baterako. Berebiziko etorria eta erraztasuna omen zuen.

Ezin esan daiteke bere garaiko munduak ezagutu zituen aurrerapenetatik erabat aldenduak bizi zirenik; gramofonoa entzun eta are zinema ikusi egiten zuten bederen Eguberrietako atsedean eta jolas aldietan: "...convenimus ut gramophonum aliasque compositiones ligatas audiremus", irakurtzen dugu egunkarian Eguberri eguneko olgeten artean; eta "convenimus in aulam magnam ut cinematographum videremus gramophonumque audiremus" biharamonekoen artean.

Lehen ikasturte hartako beste latinezko olerki bat ere badugu. Ekainean berriro zinitzak berritzeko hiru-urrenean ondu zuen. San Pedro jai inguruan izan ohi zen batzutan berritu aldi hori eta San Pedrori egina da olerkia. "Pasce agnos meos" du izenburua:

Qualis cum puro spargens aurora per umbras  
 Lumine, silvestris pastor per gramina ducit  
 Gregem quaeritque intonsum de vertice montem,  
 Quo neque sint limosae squalentesve paludes,  
 Quo gelidum rorem solvat rubicundus Apollo  
 Et rigui fugiant capientes murmure fontes,  
 Haud aliter, precor, ut Solis possimus Iesu  
 Lumine perfundi, duc nos ad culmina montis  
 Nec coeni gregem patiaris labe foveri,  
 Neve error turbet quandoque obnoxius alium,  
 Sed per gramineum campum, per pabula laeta,  
 Torrentem in fluvium quo Christi pectore manat  
 Compellas, quaeso, atque illic dulcedine abundet.

Hexametroak dira bertso guztiak, Virgiliorenak bezalakoak, eta badute honen bertsoen errainua eta oihartzuna. Orainokoetan ez bezala, gaztetango Orixe, mendi eta basa kume, artzainen bizimoduaren jakile eta maitale, agertzen zaigu hemen. Hona zer eskatzen dion San Pedrori laburkiro esanik: artzainak artaldea egusentian belardietan barna eraman eta, lohirik gabeko kaxko belartsuen bila, eguzkiak intza urtu eta ur-xurruapak dauden muinoetara gidatzen duen bezala, halaber Santuak ere eraman gaitzan Kristoren bihotzera, han ezti-gozotan bizitzeko.

Bigarren ikasturtean (1910-1911) etxeko erretore eta irakasle berriak ditu. Erretore aita Mauricio Cid eta irakasleak aita Isacio Morán eta aita Ramiro Arri. Lehenak Retorikaz gainera hebreoa eta gerquera eta aritmetika gehiago irakasten dio; bigarrenak poetika eta estetika, lehen urtean baino autore zailagoetan, eta literatur historiaren beste zatia. Hogeitazaz-



pi ikaskide dira bigarren mailan. Ikasturte honetan ere, lehenbizikoan baino areago, egin behar izan zituen, ohi zenez, zenbait txosten, idazlan eta “konposizio” zeriztenak; bai eta jantokian etxeko bazkaldar guztien aurrean egin ohi ziren gaztelerazko eta latinezko mintzaldi aski luzeak; bai eta, astebete lehenago Ebanjelioko pasarte bat gaitzat hartu eta, afalarlean prediku gisa pulpitutik egin ohi zen hitzaldi koxkorra edo homilia; bai eta eskoletan ikertzen zituzten Greziako eta Erromako autoreez, halaber gaztelerazko idazle klasikoez ere, idazlanak, urtean zehar bi hilabetez behin edo izan ohi ziren ospakizun literario dotore eta nagusietan irakurri ohi zirenak, eta abar. Hala badakigu bedelaren egunkariari eskerrak urte hartako Azaroaren 13an, San Estanislao egunean, prediku saio bat egin zuela Orixek latinez jantokian: “De S. Stan. verba fecit latine F. Ormaechea”. Orobat Abenduaren 18an, Peredaren “Peñas arriba” aztergai zutelarik, akademia bat egin zutela —“dissertatio et declamationes”—, nahiz zeintzuk parte hartu zuten ez digun esaten, aita Arri txostenen zuzendari izan zutelarik, eta bi egun geroago “ludi optimum exitum” ospatu zutela. Eguberri egunez ere ez zitzaien barkatzen, esan bezala, ordu pare bateko ikastaldia, eta egun hartan goizeko 6etan jaiki eta gaueko hamarrek arteko egutegi zehatza zein izan zen daukagu egunkarian adierazia. Bada hor irakurtzen dugu goizeko 8etan ordu bete-ko ikastaldia eta 11,15etan beste hiru ordu laurdenetako izan zutela, eta arratsean zinema, biharamonean bezalaxe, eta Inoxente egunez “cine, gramophonum, sombras chinescas et alia eiusmodi”.

Eguberrien ondoren Errege egunez zinitzen berritzea, hiru egunetako gogojardun laburrak aurretik eginez. Eta egun horretantxe ondu zuen latinezko beste olerki hau, “Ad PP. Lusitanos e patria depulsos” titulua duena:

Quales dulcisonae volucres super arbore sidunt  
 Magnificumque canunt festivo gutture Patrem  
 Aetheris immensi, ponti nemorumque satorem,  
 Haud aliter vitam placidi sine labe tulistis  
 Laetitiamque diu vestram Lusitania vidit.  
 Sed veluti fagum cum ingrata falce viator  
 Percutit, errantes tum pura per aethera surgunt,  
 Non secus injuste patrio de littore pulsi  
 Quaeritis enixe sedem requiemque serenam.  
 Surgite, Loiolae nati, capita alta ferentes,  
 Vos iterum spectat frondoso tegmine quercus.

Bertso zati osoak dira Virgiliorenak berberak eta haren adabakiz osatua dela esan daiteke ia soineko guztia. Hainbestetaraino zekizkien buruz Mantuako poetaren bertsoak; eta hori ez da harritzeko, berrogeitamar urte geroago guri ere buruz ikaserazten baitzizkiguten Virgilioren eta gainerakoen sail luzeak. Portugaletik iraitzi berriak ziren jesuitei hauxe

## יחוח

ישוע גטו נצור משרשי ישי אשר ענו לכ  
 אשר זאב עם-כך כש ונמר עם-עגלה הושכו  
 תולדי רום ענוח ויראת יחוח  
 אשרת שפת עש עת כרדי על מחמרו  
 ונטו את-ידך עלי ותיח ענו

### Interpretatic.

Hos tener est Jesu, natus de stipite Jesse,  
 Fortis at imbellis, cordeque blande Suer,  
 Ursus qui vitulis, agnum qui jungis et boedum  
 Imparidis monstis, me quoque vince ferum.  
 In casto exultans qui ludis pectore Matris  
 Brachia si tendas et mihi, suavis ero.

A. M. D. G.

N. Ormaiztegui II.  


kantatzen die gutxi gorabehera: pagu baten gainean baketsu eta txioka dauden txoriak, nekazari ankerrak igitaiez adarrak inauustean, hegan beste zuhaitz batetara ihesi doazen bezala, halaber aizatu omen dituzte Portugaletik jesuitak, baina aurkitu ere bai hauek ostape ederreko beste arte bat.

Errege ondorenean eskolak hasi zituzten berriz. Otsailaren 28an gartzelako presoek bisita egitera lau junior aita Arambururekin joan zirela ere badakigu. Presondegia hartantxe egongo ziren preso hogeitamar urte geroago euskal gudariak eta hantxe bertan aterako zuten izkutuan *Espe-txean* izeneko aldizkaria, non idatzi baitzituen Mitxelena bere lehen artikulutxoak eta paratu bere *Bertso berriak* 1940ko Irailaren 18an, Donostiko *Amaikak Bat*-ek estropadak irabazi ondoan. Martxoaren 26an beste akademia bat izan zuten eta han badakigu Orixek lan bat irakurri zuela, honela zeritzana: "El aula y el campo". Gero Ekainean zinitzen berritzea ostera ere. Berrialdi hartako olerkia hebreoz egin zuen; bost lerroz osatua da eta hona hemen berorren fotokopia. Bost bertso horien ondoan latinezko sei oratu zituen, hebreozkoen itzulpena agian, *Interpretatio* izenburu pean. Hona hauek:

Flos tener, oh Iesu, natus de stipite Iesse,  
 Fortis at imbellis, cordeque blande Puer,  
 Ursum qui vitulis, agnum qui iungis et haedum  
 Impavidis monstris, me quoque vince ferum.  
 In casto exultans qui ludis pectore Matris,  
 Bracchia si tendas et mihi, suavis ero.

Hauek distikoak dira. Orainoko guztietan baino areago mintzo da hemen Orixe bere buruaz, besteak baino pertsonalagoa deritzat honi. Isaiasen oihartzuna entzuten dugu hiru lehenbiziko bertsoetan. Jesus haurrari, hartza zekorrarekin eta bildots-ahuntzak bidutzi izukaitzekin batean bizierazten dituenari, garraxi sarkor hau egiten dio: "me quoque vince ferum", "ni naizen basati hau ere mendera ezazu!". Eta honela burutzen: "Amaren sabel garbian jauzika jostatu zinen horrek neri ere besoak luzatzen badizkidazu, otxan naizateke". *Ferum* omen da eta *suavis* izan nahi. Hezikaitz ikusten zuen bere burua inondik ere!

Junioradua amaitzera doa Orixe eta puntu honetan ohar bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Haren gerkerazko olerkirik ez da ageri zinitzen berrialdiko olerkien bildumetan; beste zenbaitenak bai, aldiz. Ez ote zuen bere burua hain trebe ikusten hizkuntza horretan? Ez litzateke harritzeko. Beste mutikoak hamar edo hamaika urte zituztela joaten ziren Xabierra, eta Orixe hamazazpi zituela. Alde handia da, noski. Horrez gain hiruzpalau urtez aritzen ziren haiek han latina eta gerkerak ikasten, eta Orixe biez bakarrik. Hebreoarena oso gauza desberdina da: guztiak batera hasten ziren Burgosen ikasten eta ez zion inork inori ikasten

jarduniko urteen alderik kentzen. Gerkerara beste batzuk bezain ongi menderatzen ez zuelako susmoa indartuko digu Oñako beste gertari batek.

Ikasturtearen bukaeran, Uztailaren 26an, “academia finalis” izan omen zen. Gaia “La usurpación de los Estados Pontificios: discurso preliminar, cantos, poesías”. Hemen ere ez digu bedelak txosten eta olerkigileen izenik eman. Azterketak eginez amaitu zuten ikasturtea. San Inazio eguna handikiro ospatu eta, ohi bezala, hamabost egunetako opor handiak izan zituzten, berehala Oñara aldegitako pardelak eginez. Loiolatik Burgoseratu behar zutenei lekua uztearren, Burgoskoak joan ohi ziren Oñara lehenbizi eta ondoren Loiolakoak etorri. Beraz ez zuten Estefaniak eta Orixek Burgosen elkar ikusi. Abuztuaren 17an agurtu zituzten afari-merienda batez han jarraitu behar zuten lehen urteko juniorrek eta irakasleek: “...merendam lautam ad valedicendum 28 FF. qui die crastina, Deo volente, Onniam sunt petituri. Inter prandendum versibus et canticis his 28 FF. valedictum est”. Eta biharamonean, egunkariak hala diosku, goizeko hamarretan atera ziren etxetik.

#### 4. OÑAN FILOSOFO (1911-1914)

Burgostik Oñara hiru urtetarako joan da Orixe filosofia ikastera. Hogeitabi urte eder ditu. Etxeko egunkarian honela idatzi zuen egun hartan “Scriptor domus” kargua zuenak: “Agosto 18... han llegado a las 3,15 de la tarde de Burgos 28 para Filosofía”; eta gauza bera latinez filosofoen bedelak, hauxe erantsiz: bat Burgosen gelditu zela gaixorik. Berrehun eta hamabost lagun bizi dira guztira Oñako etxe kankailuan, haietatik hirurogeitamabost filosofo eta hirurogeitamazazpi teologo. Baina filosofoek eta teologoek ez dute beren artean batere harremanik, urtean bospasei jai handitan izan ezik. Bi lagunarte edo komunidadegisa bizi dira. Filosofoen artean batzu ezagunak ditu, baina gehienek aurpegiak berriak. Izenak agian entzunak ditu, batez ere Burgosko ikaskizunetan latina eta gerkerara eta hebreoa hobekien omen zekitenenak, edota predikak egiten nahiz olerkiak tolestutzen gehiena nabarmendu omen zirenenak. Hala gertatu ohi baitzen: ahoz aho ibili ohi ziren ondorengoan artean aurreko ikasle iaio eta trebeenen izenak eta sendagailak. Laster ikasiko ere zuen zeintzu ziren Filosofiako bigarren eta hirugarren ikasturteetako ikasleen artean azkarrenak eta zorrotzenak.

Zer sentitu ote zuen Orixek? Erretorikako jardunaldiak bezain errazak gertatuko zitzaizkiola Filosofiakoak? Olerkigintzarako bezain dohatua eta hornitua zuela adimendua Filosofiako argudio mehe eta zorrotzetarako? Ez ditugu inon aurkitu Burgosko notak; ez ziren beharbada gorde ere egiten, ez baitzuten inolako eraginik jesuitaren geroko *status*-ean.

Pentsa dezakegu, halere, oso onak izan zirela, latinean eta literaturan batikpat. Filosofiakoak bai aldiz, gero esango dugunez, eta ez agidanean berak uste bezain onak. Inori ez zitzaion gaztigitzen nolakoak irabazi zituen eta ez zituen inoiz jakiten; azterketa gainditu zuen ala ez esaten zitzaion soil-soilik. Baina ez ditzagun gauzak garaiz lehen konta.

Oñara iristean, aita Isidoro Zameza mungiarra zen erretore; hiru hilabeteren buruan, ordea, Azaroaren 21ean, erretore berria izendatu zuten, aita Enrique Carvajal, eta Filosofoen arduradun, egunoroko gorabehera txikietarako erretorearen ordezkari, aita Gutiérrez del Olmo zen, Orixe Loiolan nobizio zenetik ezagutzen zuena, aita Cesareo Iberoren laguntzaile izana baitzen bigarren urtean.

Urriaren 3an hasi zituzten lehen mailako ikasgaien eskolak, bezperan Espiritu Santuaren meza entzun eta "lectio brevis" zeritzana burutu ondoren. Ez da erraz jakiten zein eta zenbat izan zituzten urte hartan eta ondoko bietan goi-mailako ikasgaiak. Katalogoek ez egunkariek ez dute horien berri zehazkiro ematen, iragaitean bata edo bestea aipatu baizik, eta ikasturteko azken ahozko —besterik ez zen— azterketen notak ez ziren ikasgai bakoitzean mereziak ipintzen, baizik aztertzaila bakoitzak nota bakarra ezarri ohi zuen azterketa osoari bere ustez zegokiona. Eta, zer esanik ez, urteen joan-etorrian ikasturte bakoitzeko ikasgaien ordena aldatu egiten zen, edo hobe beharrez edo irakasleen komenientziak.

Akademiak, zirkuloak, errepikapenak eta bigarren mailako ikasgaiak Urriaren 16an hasi zituzten, aldiz. Bigarren mailako ikasgai direlakoak gehienez hiru hilabete luzatzen ziren eta ikastaro gisakoak izaten; bata amaitu bezain laster, haren azterketa egin eta beste ikastaro bati ekiten zitzaion. Egunkarian ikastaro horietako bakoitzaren azterketa eguna adierazia daukagu eta badakigu horrenbestez lehen ikasturtean Dialektikaz gainera Matematika, Trigonometria —edota bestela Kimika— izan zirela. "Akademia" deitu ohi ziren ostegun eta igandeetan bakarrik ikas zitezkeen hizkuntzen ikastaldiak eta eskolaldiak. Gerkera eta hebreoa ikasten jarraitzen ziren batzu, horietarako trebeen zirenak eta egunen batean horien irakaskuntzan aritzeko gogoia zutenak. Beste batzu, aldiz, frantseza, ingelesa, bai eta alemana ikasten ere. "Tonuak" izeneko deklamazio saioak, inoizko sermoigintzarako hain beharrezkotzat jotzen eta igande arratsaldeetan izaten zirenak, Urriaren 29an hasi zituzten aita Aniceto Galdosen gidaritzapean.

Hortik aurrera ezer gutxi kontatzen digute —Loiolakoek eta Burgoskoek baino askozaz gutxiago— Filosofiako egunkariek. Orixeren —eta beste askoren— izenik ez da lehen urtean aipatzen. Ez dakigu ere urte hartan eginiko olerkiren berririk. Ikastaroen azterketa egunak, bai ematen zaizkigu, esan bezala: Dialektika, Azaroaren 26an; Matematika, Maiatzaren 1ean; Kimika, Uztailaren 2an. Eta beste hitzaldi ospetsu batena, San

Juan Crisostomo egunez, Urtarrilaren 27z, jantokiko pulpitutik urteoro egin ohi zen gerkerazkoarena. Ez zitzaion edozeini agintzen, bistan dagoenez, gerkerak hobekientsu zekien bati baizik. Hilabete bat lehenago izendatu ohi zen hizlaria eta, lana osorik idatzia zuenean, buruz ikasi eta igo ohi zen jantokiko pulpitura, entzule guztien epai-nahiak zorrotzki zituen begi eta belarrien gozagarri —eta zenbaiten bazkariaren gazigarri?— ordu erdiz gerkeraz mintzatzera. Urte hartan anai Páramo bigarren urteko filosofoak egin zuen; hurrengoan anai Guereta legazpiarrak, hirugarren urtekoak; hurrengoan anai Olondrizek, hirugarrengoak, Orixeren ikaskideak. Orixek, aldiz, behin ere ez, eta beste askok eta askok ere ez, noski. Baina gauza bat esan behar da hemen bertantxe Orixeren alde: gerkerazko predikalari Páramo eta Olondriz Filosofia bukatzean Comillas-a igorri zituztela “maisú txiki” izatera eta latin-gerkerak irakastera, eta Orixe ere bai. Ez zen, beraz, herrena Greziako hizkuntzan! Gero han “de facto” latin-gerkerak irakatsi zituen ala ez, bere garaian ikusiko dugu.

Uztailaren 22an hasi zituzten lehen ikasturteko filosofoek —gainerakoek orduko burutuak zituzten— ikasgai nagusien azken azterketa ahozkoak. Lau irakaslek osatu ohi zuten orduan epaimahaia eta Orixe nortzuk aztertu zuten badakigu: aita Arrazola, Galdos, Ibero eta Maestro-k. Nola-ko notak ipini zizkieten ere bai, geroxeago esango dugunez.

Oñako udaldiek ez dute ia parerik eguraldiaren aldetik. Ez dago esan beharrik han bertan ematen zutela uda osoa, inora atera gabe. Atera bai, hobeki esan, baina egun berean etxera itzultzeko, inguruko herrixkaren batera txangoa egin ondoren. Hori hamabost egunetako opor handietan; txikietan jolasaldiak urritu eta ikastaldiei ekiten zieten berriro: hizkuntzak ikasteko neguan baino ikastaro trinkoagoak egin ohi ziren. Ohartu orduko, gainean dute berriz ere ikasturte berria, Irailaren azken egunetan zortzi-urreneko gogojardunak —urte hartan aita Astrain historiolaria buru zutelarik— egin ondoren. Urriaren leian “lectio brevis” delakoa hartu eta geroxeago eman zitzaie abia tonu, zirkulo, akademia, errepikapen eta behe mailako ikasgaiei. Hauetako bi Biologia eta Fisika bederen izan zirela badakigu, egunkariak gaztigatzen baitigu zein egunetan izan ziren bion azterketak: Uztailaren leian eta Uztailaren 26an, egun honetakoa bi egun geroago, astelehenean, egiten jarraitzeko 26an egiteko astirik izan ez zutenak.

Ikasgai nagusietatik bi aipatzen ditu egunkariak: Sikologia enpirikoa, aita Jose Maria Iberok azaldu zuena, eta Etika, aita Jose Mostazak irakatsia. Hau bi urteren buruan Comillas-en biziko da Orixerekin batera eta honen etsairik handienetako bat izango. Ez dakigu beste ezertxo Orixeri dihoakionik, ez baitu honen izena aipatzen ere egunkariak. Hau aurrerago eta hitzetan zuhurrago da, bidezko denez. Olerkirik ere ez zaigu aipatzen eta geure bilaketan ere ez dugu batere aurkitu; hurrengo ikasturtekorik bai, halere, aurki esango dugunez. Uztailaren 18an anai

Páramo, gerkerazko predikugilea, Comillas-era doa, esan bezala, “magisterio” zeritzan aldia igarotzera. Egun horretantxe hasi ziren bigarren urteko filosofoen azken azterketak eta ondoko egunetan jarraitu. Orixe honako irakasle hauek aztertu zuten: aita Galdos, Ibero, Mostaza eta Dominguez-ek. Laster jakineraziko dizkizuet notak.

Uda hura lehengoak baino luzeagoa iruditu zitzaion Orixeri, apika. Burgosko juniorrak, han Retorika bigarren urtea bururatu zutenak, noiz iritsiko zain zegoen irrikaz. Haien artean etorri behar zuen Oñara anai Estefaniak, Orixe bezain olerkigile trebeak. Ez dirudi Loiolan nobizio sartzean euskara zekienik; heldu zaizkigun olerkiak ere —latinezkoek gain— guztiak gaztelerazkoak dira, honako ale pitxi hau, gaur lehen aldiz argitara agertzen dena, eta beste bat izan ezik. Bere aitari eskaini zion sorta handi baten hasieran dago. Holandako Valkenburg-en teologiako hirugarren urtea ikasten ari zelarik ondua da bere aitaren egunean. Aitak ba ote zekien euskara? Bere xotilean, euskara maite ez ezik, ikasi ere ikasi zuelako ezaugarri polita da. Honela dio:

#### Nere aitari

Erbesteñetik zure egunean,  
txoritxu bat lez egazka,  
nere au zure seme-biotza,  
aita! of doa zeugana.

(Valkenburg'tik)

Baina Valkenburg geroko utzi —horiek 1923ko kontuak baitira— eta itzul gaitezen 1913koetara, Oñan gertatu zirenetara. Irailaren 2an Oñaratu zen anai Estefania: “Por la tarde han venido... los HH. Retóricos Estefanía y Larrea a Filosofía” idatzi zuen egun hartan “Scriptor domus” delakoak. Biharamonean jaialdi edo academia arranditsua egin zuten filosofoek, eta bazen zergatik. Hiru hilabetez lehenago Erromako aita Jeneralak gaztigatu zion Probintziko nagusiari, aita Bianchi donostiarrari, harrez gero Txinan misio bat izango zuela bere Probintziak eta hasteko lehen bait lehen gazte batzu hara bidaltzen. Sei destinatatu zituen lehen kolpean: lau apaiz, Videgain, Serapio, Ponsol eta Ruiz, eta bi filosofo Orixeren ikaskide: del Olmo eta Rodríguez. Egun hartan, Irailaren 3an, egin zieten etxeko lagun guztiek literatur jaialdi batez agurra, Probintziko beste etxe eta ikastetxe batzutako buru edo agintariak ere, aita Bianchi Probintzialaren kontseilari zirenak, entzule zirelarik: alegia, aita Bianchi bera eta honen idazkari aita Ciarán; aita Cesareo Ibero Gijongo erretorea, Loiolan Orixe nobizio hartu zuena; aita Baltasar Irigoyen Valladolideko erretorea; aita Pedro Basterra Urduñako erretorea; aita Martín Garmendia Burgosko erretorea eta aita Santiago Sádaba Tuterako erretorea. (Benetan seinagarria da ez zela orduan jesuita euskaldunen eskasari Probintziko kargurik handienetan!). “Pulcherrima academia ad PP. eta

FF. *missionarios*” dio bedelak egunkarian, nortzuk parte hartu zuten zehaztu gabe. Egun horretako gertakizunari alderik alde dihoakion Orixeren olerki latinezko bat gorde zaigu beharrik eta, nahiz *Ekaina 1914* data daraman, egingo nuke Irailean tolestatu zuela eta gero aurkitu dugun kuadernoan data berriarekin ezarri. Hau ez da haatik gauza segurua; izan daiteke 1914eko Ekainean egina ere, Orixeren beste ikaskide batzu izan baitziren orduan ere Txinara destinatuak. Tituluak salatzen du ezin hobeki egin zeneko parada: *Ad navim fratres vehentem* (“Anaiak daramatzan itsasontziari”):

Fortunata ratis, piam  
 Christi quae sobolem militiae rapis  
 Lascivae! Pete concita  
 Oras in placidas. Nescia criminis  
 Arcâ tuta domesticâ  
 Risit diluvium casta columba, tum  
 Intacta super elevans  
 Plantas et fugiens summa cadaverum  
 Ramum cum viridem tulit.  
 Sic te, fida ratis, quod socios precor  
 Ducas per freta sic meos!...  
 Fortunata nimis! Iam mare mitigat  
 Undarum strepitus, videns  
 Sacras divitias. Oceanum lege  
 Heu! tranquila per aequora  
 Spirantis Zephyri seu ope murmuris (4).

Duda-mudazko “*precor quod*” bat gorabehera, ezin uka biziki polita dela. Egun hartatik beretik filosofoen arduradun berria izendatzen dute aita Gutiérrez del Olmo-ren ordeztu: aita Armisén nafarra, aurrera ere

(4)

Ontzi dohatsua, Kristoren  
 gazte garbiok lizunen samaldatik  
 ostutzen dituzuna! Zoaz  
 arin-arin ur-bazter gozoetara.  
 Etxe-kutxara bildurik  
 uso xuri-otxanak irri dagio uholdeari,  
 zuhaitzen gaindi igo  
 eta sarraski pilotik ihesi, adaxka  
 berdea eramanez.  
 Halaber zuk, ontzi segurorrek, gida, otoi,  
 ene lagunok itsasoan barna!...  
 Milatan dohatsu! Itsasoak ematu du  
 uhinen burrunba, ezagutuz  
 gordailu sakratua. Araka, ai, Ozeanoa  
 ur geldietan zehar  
 sartaldeko haizearen ufaz zein xixtuz.



Orixeren pertsona eta bizitzarekin topo egingo duena. Urteroko gogojardunak 21ean hasi zituzten aita Pérez Goyena nafarrak emanik. Egun haietan anai Estefanía Salamankan da, uste dudanez Deustun hasiak zituen Unibertsitateko ikaskuntzen azterketak burutzerara joana. Urriaren leian ohizko "lectio brevis" izan zuten eta biharamonean eskolei ekin. Akademiari 16an eta zirkulu, errepikapen eta gainerakoei 17an eman zieten hasiera. "Kristau arte"-ko eskolak aipatzen zaizkigu hurrengo egun batean, hirugarren urteko filosofoek egiten ari omen ziren ikastaro batekoak. Abenduaren 8an, Birjina Sortzez Garbiaren egunean, Orixek paratu zuen gaztelerazko beste olerki bat ere heldu zaigu. "Oña 1913, 8 Dic." dio gainean eta izenburu hau du: "Regina sine labe concepta". Luzea da, Erromantizismo ondoko oda dirudi. Hona:

Entre triste y sublime escucha un grito  
que, aunque en su timbre entremezclar parece  
recuerdos de un delito,  
también gloriosos triunfos enaltece;  
que si el vencido canta,  
contigo el grito vencedor levanta.

Habrá en mi canto un dejo de tristeza,  
porque formado en sombras de malicia  
me avisa tu pureza  
de la perdida original justicia;  
mas venza la alegría,  
que tu victoria fue victoria mía.

Gima la hollada sierpe en los zarzales,  
la que venciendo la mortal flaqueza  
dejó en ella sus males;  
que nunca derrocó tu fortaleza,  
ni en tí cebó su diente,  
Virgen más linda que el marfil de Oriente.

Y aunque al ganar al hombre dejó impresa  
en él la huella que al pecado inclina,  
por tu virtud la presa  
abandonó; y a tí, Madre divina,  
por singular manera  
te preservó la Redención primera.

Fuera mi canto digno de tu gloria,  
si nunca como a ti dragón maligno  
me cantara victoria;  
mas... perdona si juzgo ser más digno;  
que algo sublime expresa  
el canto vencedor de quien fue presa.

Hoy cesa de los vicios el tumulto  
y aun el erial se torna en fértil prado  
para rendirte culto.  
Interrumpe el lenguaje de pecado  
el humano linaje  
y ensaya en tu loor nuevo lenguaje.

Lirio, huerto, paloma, cuantos nombres  
os impuso el Espíritu divino  
y os repiten los hombres,  
yo os entono también; pero imagino  
el más bello el de “huerto”,  
cerrado al vicio, a la pureza abierto.

¡Ay, que me siento en otro muy florido  
cerrado al aquilón de las pasiones,  
donde el fuerte latido  
oigo de estos ardientes corazones  
que te aman con delirio  
y cual flores se rinden ante el Lirio!

De este huerto de paz que el mundo ignora  
y semeja el Edén de la inocencia,  
oye una voz sonora,  
pura, de tu pureza rica herencia,  
que clama enardecida:  
Salve, Madre, sin mancha concebida!

Bedelaren Egunkariak ez du jaialdi horren berri ematen, bai ordea Urte zaharrez izan omen zenarena, parte hartzaileen izenik ez aipatu arren. Bai eta ikasturtea hasi zenetik Urte Berri egun arte bospasei filosofo hirugarren urtekok —Leturia, Laburu, Goicoechea, Maguregui, Zabalza eta Murugarrenek, iguztiak euskaldunak!— egin zituzten predikuen berri. Orixe ez da, haatik, inondik ageri. Estefanía bai geroxeago, Urtarrilaren 18an.

Sartu gara horrenbestez 1914eko Urte berrian, Orixeren aurreragoko nahigabe eta zoritxarren abiapuntu, ene ustez, izango den urtean. Ba ote zuen artean gauzak okertuz zihoazkiolako edota Lagundiko agintariek bere jokabidea begi txarrez ikusten zutelako susmorik edo bihozkadarik? Ez, ene ustez. Ezerk ez digu garai horretan heldulekurik eskaintzen horrelakorik susmatzen zuenik pentsatzeko, ez eta ere, hark ez susmatu arren, zerbait bazela uste izateko. Burgosko “me quoque vince ferum” hura bizi osoan aitortu zuen bere aiurri zakarraren keixua izan zitekeen, eta ez gehiago. Arestian irakurri dugun olerkian horrelako edozein susmo desegin dezaketen esaldiak aurkitzen ditugu gainera: “Ay, que me siento en otro (huerto) muy florido, cerrado al aquilón de las pasiones...”

eta gero “De este huerto de paz que el mundo ignora y semeja el Edén de la inocencia...”. Bake baratzean bizi uste du artean Orixek, eta ez dugu guk arrazoirik besterik pentsatzeko.

Elurte ikaragarri batez agurtu zituen Urte berriak Oñako biztanleak: Urtarrilaren 2an laurogeitabat zentimetroko elurra metatu zen herrian. Biharamonean berriz ere zinitzak berrizteko hiru-urrena hasi zuten eta Errege egunez berritu. Hona egun haietan ondu zuen olerkia, ezagutzen ditugun Orixeren latinezkoetatik azkena. Orain artekoek ez bezalako argudioa du kantagai, “Epistola ad musicum” tituluaren pean. Lehengoetan Virgilioren oihartzuna nabaria bazen, hemen Horaziorena ezin eta gehiago, honen “Epistola ad Pisones” ezagutzen duen nornahirentzat. Hortik hartu ere ditu bi azken bertsoak. Ez dirudi, damurik, osorik heldu zaigunik; hasierako bertso batzu, beharbada asko, falta dituela salatzen du lehen bertsoaren lehen juntagailu aurkariak. Eliz kanta nahiz eliz poesiak nolakoa izan behar duen ematen du aditzera hexametro izeneko bertsoz. Hona:

Sed neque saltandos componas more theatri  
 Seu cantes numeros Templi gradiendus ad aulas,  
 Tristia nec tardis imiteris funera signis.  
 Sunt quibus et sancta est demissum ducere vita  
 Collum; tu numeris quatias si tristibus aures  
 Insuperisque premas vulgus, ne crede canorem  
 Exhibuisse sacrum, nec gustus iura negaris  
 Vulgo; nam cunctis, ut docte fabula narrat,  
 Queis non est nulla, infandum!, dementia nata,  
 Sensus est quidam cantusque sacraeque poesis;  
 Cuique suum tribues sapienti atque arte carenti;  
 Non *proprio motu* ducaris pangere cantus,  
 Sed motu proprio: graves at multicolores.  
 Musica sit compar Biblis (en optima norma):  
 Tempore Paschali resonet sublimia Regis  
 Barbytos; adventusque prophetam concine grandem;  
 Hebdomada querulum sancta, tum luce carentum  
 Funera Job patiens comitetur. Nonne colores  
 Multos ac varios praebent sacra Biblia, amice?  
 At “motum proprium servo”. Tu solus haberis  
 Interpres? Reliqui cupiunt servare Parentis  
 Iussa, sed artificum pangunt modulamine cantus.  
 Ridiculus non sis miscendo tristia laetis.  
 “Est modus in rebus, sunt certi denique fines,  
 Quos ultra citraque nequit consistere rectum”.

Laburturik euskarara iraultzea zilegi bazait, hauxe dio eliz kanten edo eliz doinuen gainean: Izan bitez ez dantzarako bezain biziak, ez

geldiegiak, ez eta hiletetakoak bezain tristeak; eliz kanta izateak ez baitu esan nahi geldoak eta gatzgabeak izan behar dutenik. Herri gustokoak behar dute izan, herri ezjakinak ere bai baitu eliz kanta eta eliz poesi sena. Ikasiari eta ez ikasiari, nori berea eman. Ez bedi esan *zeure gisako* kantuak egiten dituzula, baizik kantu gisakoak: serioak, baina nabarrak. Hona eredurik onena: eliz-aro bakoitzeko Liburu Santuetako irakurgaiak. Bazkoan Dabiden lira entzun bedi, Abenduan Isaiasen hitz pisuak, Aste santuan Jeremiasen mingulinak, hilen mezatan Joben sofrikariak. Ez al da aukera ederra eta nabarra, adiskide? Bai, “baina nik neure gisara nahi”. Zu zara interprete bakarra, ala? Besteek Aita (San Inazio?)-ren esanak maite dituzte, baina kantak artez nahasirik. Farregarri da alaiak eta tristeak nahastea.

Eta, esan bezala, Horazioren beraren bi bertso ezagunez amaitzen du. Pasadizu txiki bat, Orixerekin neuri gertatua eta bi bertso horiei dihoakiena, kontatu behar dut hemen. 1959garren urtea zen eta Innsbruck-en ari nintzen teologia ikasten. Eguberrietarako zorionak emanez idatzi nion Añorgara, ez nuen ordea erantzunik jaso. Errege egun bezperan nere lagun aita Migel Etxeberria Aramako semeari —Araman igaro zituen urteak Orixek—, zorionak emanez nik bezala idatzi zionari, erantzun zion Orixek eta beste gehiagoren artean honako hau kontatu:

“A. Altunak ere egin zidan Eguberfiz, baiñan etzidan *Innsbruck* beste aztafenik ematen, idatzi nai ba'nio ere. Zuk egingo ba'zenio, bialduko al zenioke gibelean dijoan nota ori?”.

Eta nota, hain zuzen, Horazioren bi azkeneko bertso horien itzulpe-na zen, nik —auskalo zergatik!— neure gutunean eskatzen niona. Hona haren nota osoa:

“Est modus in rebus, sunt certi denique fines, quos ultra citraque nequit consistere rectum. Gauzek tamaña dute, beren mugarekin; andik pasa ezker, gauzarik ez da zuzenik.”

Eta gero beste hau:

“In medio consistit virtus = *zintzo ere, neuriz.*”

Gero zioena, bego; baina Orixeren eta kaxkar honen artean baze-goen leizea adinako tartea.

Itzul gaitzen oster a Oñara, hilabete gutxi gelditzen baitzaio hango txanda burutzeko. Beste lau hitzaldiren berri ematen digu egunkariak; ez da ordea Orixerenik horien artean —eta, berriro diot, beste askorenik ere ez, ez dezan inork pentsa izkutuko arrazoiren bat dagoenik isiltasun

horretan, nahiz arrazoia zein den ez dakidan; beharbada ez zuelako luzarora ikusten bere burua misiolari edo herriko sermolari izateko tre-bea—. Filosofo guztien eta hauen irakasleen aurrean egin ohi ziren “mensual” izeneko bi defentsa publikoren berri ere badugu, ez ordea defentsaileen ez eta erasotzaileen izenik. Apirilaren 4ean Astronomia eta Geologia ikastaroen azterketa izan omen zuten hirugarrengeok. Astronomia, bai, ez dut oker esan; aita Gutiérrez del Olmo-k irakatsi zien.

Orain dator azkena edo azkenaren atariko, baten baino gehiagoren loa aztoratu ohi zuen gertaria: hiru urteetako ardailen eta gatazken frogalarria izan ohi zen “De universa Philosophia”, rebalida gisako, azterketa-aren programa eskuratzea. Apirilaren 11an banatu zieten eta laurogei tesi hartzen zituen gutxi gorabehera, hiru urteetan ikasitako sei ikasgai nâgusietatik —Logika, Metafisika, Sikologia, Kosmologia, Teodizea eta Etikatik— hautatuak. Bi hilabete ematen zitzaien haiek lantzeko. Ez dakigu zein egunetan aztertu zuten Orixek; zinitzak 29an berritu zituela, bai, eta Uztailaren 3an aita Probintziala eta bere kontseilariak, aurreko urtean bezalaxe, Oñara bildu zirela ere bai. Edozein filosofoari zilegi zitzaion haietakoren batengana hitz egitera eta keixuak agertzera joatea: “licet omnibus petere eorum cubicula”. Joan ote zen Orixek? Ba ote zuen keixurik? Egund berean hasi zituzten hirugarrengeok zortzi egunetako gogojardunak aita Gómez de la Torrerekin. Hilaren 12an egin zieten azken agurra Oñan gelditu behar zutenek, aita Estefaniak ere bai: “post coenam te et academia ad valedicendum FF. 3<sup>i</sup> anni; eta 14ean “han salido en el Daimler los HH. Ariztimuño (La Habana), Pérez (Santiago), Azpiazu (Colombia) y *Orechea* (sic!) (Comillas)”.

*Orechea* delako hori gure Nikolas Ormaechea da. Comillas-a destina-tu dute “magisterio” zeritzan txanda burutzera; “maisú txiki” deitu ohi zituzten hartan aritzen zirenak. Esan dut zergatik igorri zuten hara, ene ustez; aski da berriz gogoratzea anai Páramo eta Olondriz ere, gerkerazko sermoigileak, haraxe igorri zituztela. Beraz ez da zuzen pentsatzea Euskal-leritik urruntzearren bidali zutela hara, zigorra ezarri edo. Beste batzu, zigorrik merezi ez zutenak, Txinara igorri zituzten betiko, edo La Habana-ra edo Santiagora edo Colombiara hiru urtetarako.

Zergatik ezarri behar zioten, gainera, artean zigorrik? Lagundian eginak dituen zazpi urte haietan euskarari itsuki emana zegoen ustea edo susmoa indartzeko argudiorik ez dugu inon aurkitu. Orduko olerki bat baino gehiago euskaraz ondua zuela? Nik hala uste dut, egunkariek esan baitigute euskarazko olerkiak ere irakurri izan zirela literatur jaialdi batean eta bestean, nahiz nork eginak ziren inoiz esaten ez diguten —beste hizkuntzetakoen egileak nor ziren ere ez— eta nahiz ale bakarrik guganai-no heldu ez den. Baina, bai, inork egitekotan hark. Eta horregatik zigortu? Hori ez zegoen inola ere debekatua; are publikoki irakurtzen ziren

euskarazko olerkiak. Eta zigortzekotan Orixe bakarrik zigortu horregatik? Ez baitzituen eskuarki hark bakarrik tolestatu euskal olerkiak urte haie-tan. Beraz ez dut uste Comillas-a igortzeko latin-gerkerak ongi mendera-tzeaz beste arrazoirik izan zitekeenik.

Eta notak, zer? Azkenerako utzi dut apropos puntu hau. Gauzak —bai ote da esan beharrik?— diren bezala kontatuko ditut, inori min emateko edo sasiak piztu eta eztabaidak sortzeko, are gutxiago Orixeren merezimenduak eta gure artean —bere garaikoen artean batez ere— beti izan zuen gizaseme argi, azkar eta adimendu bizkorreko fama ona zipi-tzik ere gutxitzeko asmorik gabe. Utikan! Baina, “amicus Plato, sed magis amica veritas”, esan ohi den bezala. Hona, bada, lehen urteko notak: bi “superavit” eta bi “attigit” —“gainditu du” eta “heldu da” esan nahi dute, eta gaurko “ongi” eta “aski” edo lirateke, apika—. Aldera itzazue orain anai Estefaniak, esate baterako, atera zituenekin: lau “supe-ravit” eta horietako bat gainera “cum excellentia”. Bigarren ikasturtean hauek: hiru “superavit” eta bat “attigit”; anai Estefaniak, aldiz, lau “supe-ravit” eta horietako bat berriz ere “cum excellentia”. Hirugarren ikastur-tekoak, Rebalida antzekoa izan ohi zen “De universa Philosophia”-koak, bi “aegre (hots, doi-doi) superavit” eta hiru “attigit”; Estefaniak, aldiz, bost “superavit” eta horietako bi “cum laude”.

Ezin esan daiteke azterketa gainditu ez zuenik, ez eta nota distiraga-riak atera zituenekin ere. Horrenbestez Orixeren lagun mina eta miresle kartsua zen aita Felix Areitio jesuitaren honako hitz hauek, behin aita Juanito Goikoetxeari Loiolan esanak, alde z egia dira eta alde ez: “Orixe nunca fue suspendido en sus estudios; él mismo decía que los asimilaba bien y que los aprobaba en los exámenes ampliamente y que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales”. Honi oso ongi lotzen zaio behin neuri aita Daniel Gaston-ek, Xabierren 1919-1920ko ikastur-tean Orixe ezagutu zuenak eta hau bezala poeta —aita Estefaniak oso istimatua, gainera— izanak, kontatu zidana: “Quizás llevado de su gran capacidad y afición a las letras vascas hurtó no poco tiempo al estudio de la Filosofía, sin olvidar además que desde siempre sufrió muy fuertes dolores de cabeza”. Horiek zirela eta, paper-liburuak irakurtzen ere ia uzten ez ziotelako, Pedro Leturiarekin batera, honek irakurri eta Orixek entzuna gogoan hartuz, prestatu zuela azterketa hura esan izan da gure artean.

Lehen esan dut eta orain berriro diot: ikasleak ez zuen jakiten nolako notak atera zituen, harik eta “maisu txiki” aldiko urteak burutu eta berriz teologia ikastera Oñaratzean esaten zitzaion arte zer egin behar zuen: “cursus maior” zeritzan goi mailako ikasbidetik burutu bere ikaski-zunak ala “cursus minor” zeritzanera jatsi. Utz dezagun horretan auzia eta goazen Orixerekin Comillasera.

## 5. ORIXE “MAISU TXIKI” (1914-1920)

Gero eta argibide gutxiago dugu Orixeren bizimoduaz eta egunoroko egitateez. Ez dakigu noiz heldu zen Comillas-era, zer egin zuen uda hartan, zer harrera egin zioten hango bizilagunek. Eta zer axola zaigu, egia esan, horiek ez jakitea, huskeriak direlarik urte haietan haren buru gainean gatzatuko zen hodei beltzaren eta jasan beharko zituen gertari latz eta mingarrien ondoan? Errepara ditzagun hauek, beraz, gainerakoez ahazturik.

Burgosko eta Oñako bizigiroa euskarari, euskaltzaletasunari eta Euskalerrinari zihoakienez hotza zela esan ahal badezakegu, jesuita gazteek debekatua baitzeukaten segurki gai horiek ahotan hartzea ere, Comillas-koa izotzaren pare jarri behar nahitaez. Irudimenari bortxa handirik eragin gabe nornahik asma lezake horiekiko erdeinua zela, baldin gehi-zeago eta okerrago ez bazen, etxe hartan nagusi eta gailen. Berrogeitazapi jesuita bizi ziren han, baina horietatik hamasei anai laguntzaile edo lego ohi deriztenak ziren —bereiz eta apart bere bizimodua egiten zutenak, gainerakoekin ia ezertan nahastu gabe— eta sei bakarrik “maisuu txiki”, apaiz ez zirelarik ikaslerik gazteenen maisu alegia, gainerako hogeitabost apaiz jesuitez ongi zainduak eta hobeki zelatatu eta barrandatuak.

Hauen artean baziren haatik euskaldun batzu eta ez nolana hikoak. Andoingo seme aita Manuel Arin erretoreagandik hasi eta etxeko “ministro” deitzen duguna, aita Bizente Alcorta tolosarra, eta gogo-arduraduna, aita Evaristo Ipiñazar Zeanuriko semea, hirurak ziren euskaldunak. Ez ziren gainera bakarrik. Han zeuden aita Larrarte eta aita Zurutuza —biak teologiako irakasle ospatsuak— eta aita Nemesio Otaño, azkoitiarra, musikari ezaguna ere. Euskaldun ez zirenak gehiago ziren, halere, alde batera uzten baditugu batez ere lego edo anai laguntzaile direlakoak, hauetan hamaseititik bederatzi bederen euskaldunak baitziren.

Gauza jakina da han herriko apaiz izateko seminarista edo apaizgaiak bizi zirela eta hauek, teologia nahiz filosofia ikasle izanik, “nagusiak” deitzen zirela eta besteak, latin eta gerkerak ikasleak, “txiki” edo “gazte-txoak”. Urte hartantxe hasi zuen han Aitzolek filosofia, apaizgai txikitako bost urte burutu ondoren. Azken hauek ziren Orixeren eta gainerako bost “maisuu txiki”-en ardurapean zeudenak. Bost hauetatik bi bederen ongi ezagunak zituen aspaldidanik Orixek: anai Páramo eta Olondriz, alegia, Oñan gerkerazko predikulari izanak. Lehena, Severiano (del) Páramo delakoa, Escriturista famatua izatera heldu zen urteen joan-etorrian. Orduko nabarmentzen hasia zela esan behar bere kideen artean, Katalo- goak beste bost lagunei baino eginkizun gehiago eta axola handiagokoak egotzen baitizkio: apaizgai txiki edo gaztetxo zirelakoei Retorika irakas- teaz gainera, “tonuen” arduradun zen, urteroko albisteak Erromara bidal-

tzeko gertari nagusiak biltzen zituena, etxeko “Scriptor historiae”, liburu-zainaren laguntzaile, eta azkenik apaizgai gazte horien Begirale nagusiaren kide. Ez zuen lan makala bere gain.

Olondrizek “humanitate” direlakoak irakasten zituen eta gerkerazko akademiaren arduradun zen; horrez gain, Páramo bezalaxe, Begirale nagusiaren kide edo laguntzaile. Beste biak, Hidalgo eta Munarriz ere, batak behe-mailako gramatika eta besteak goi mailakoa eta historia irakasteaz gainera, Begirale nagusiaren kide ziren, Páramo eta Olondriz bezalaxe. Eta nor zen, bada, apaizgai txiki edo gaztetxo haien Begirale nagusia, zeinen laguntzaile baitziren beste laurak? Gure Orixe, hain zuzen. “Praefectus morum” izendatzen du Katalogoak, gainerakoetan bakoitza “Socius praefecti morum” deitzen duelarik. Beraz hark zuen mutiko haiek zaintzeko eta begiratzeko erantzukizun nagusia, eskolak hartzen ez zeuden ordu guztietan: alegia, ikasten nahiz jolasten, bazkaltzen nahiz afaltzen, meza entzuten nahiz errosarioa erreztatzen ari zirenetan, beste maisu txikiek laguntzen ziotelarik berak bakarrik ezin zuenean. Bazuen, ordea, beste egitekorik ere; ikasle sail baten “tonuen” arduradun ere bazen eta irakasle ere bai; geografia irakatsi zuen urte hartan.

Hurrengoan, 1915-1916an, eginbehar berberak izan zituen, “tonuen” arduradun izatea salbu; hori kendu egin zioten eta Begirale nagusi izaten eta geografia irakasten jarraitu zen. Laguntzaile bat gehiago eman zioten, gainera: Páramo Comillastik atera eta beste bi berri igorri baitzituzten haren ordez, Olondrizek bere gain hartzen zituelarik lehen Páramok burutzen zituen lan batzu; hala nola, etxeko historia idaztea eta Erromarako albisteak prestatzea. “Tonuen” arduradun Orixeren ordez anai Lecumberri, berria, izandatu zuten.

Baina aldakuntzarik handiena beste jokabide batean somatu zuen Orixe dudarik gabe; ikasturte hartan ere bai zerbait, baina hurrengoan batez ere. Hots, etxean gero eta urriago ziren jesuita irakasle euskaldunak eta gero eta gehiago erdaldunak. Irakasleak diot, anai laguntzaile euskaldunen kopurua gehituz joan baitzen, hurrengo urtean hamairu izatera iristeraino. Irakasle euskaldunen urritzeak bazuen, bestalde, zergatik ezaguna eta nabaria, 1918ko gertari sonatu batek guztiz argituko diguna. Hori horrela delarik, ezin uka etxe hartako euskal giroa lehendik ere melarra eta urria baldin bazen, horrek are gehiago kutsatu zuela. Orixeren birikiek arnasa lasai hartzeko behar zuten aidea egunean baino egunean urriagotuz doa.

Aita Bizente Alcorta izkutatu zen ikasturte hartan Comillastik, gainerakoak han jarraitu zirelarik, baina 1916-1917ko ikasturtean aita Ipiñazar eta Zurutuza atera ziren handik. Orduarte erretore izan zen aita Manuel Arin ere bai, baina haren ordez izendatu zuten berria ere euskalduna



zen, aita Pedro Bianchi, lehen Probintzial izana eta horrenbestez Orixe oso ongi ezagutzen zuena. Ezagutzeaz gainera haren aldeko zen eta haren alde kopeta erakusteko prest zegoen ala ez, horixe ez dakigu. Guztien beharra izango zuen aurki asko Orixe!

Aurreko bi ikasturteetan baino lantegi gutxiago du. Pixka bana baztertzen, zokoratzen ari direla eta inguruko hesia ertsitzen ari zaizkiola esan behar. Ez da gehiago Begirale nagusia; hara destinatu berria den anai Nemesio Ariztimuño, Xabierko urteetatik hasita Orixe kidea duen Inazioren eta Aitzolen anaiak, kendu dio kargu hori; haren laguntzaile izatera pasa da, beste sei maisu txikiak bezalaxe. Hauen artean badu lagun berririk: Ariztimuñoz gain, Páramo itzuli da hara berriro eta beste euskaldun bat joan da lehen aldiz: anai Victoriano Larrañaga azkoitiarra. Begirale nagusiaren laguntzaile izateaz gainera eginbide bakarra du Orixe ikasturte hartan: betiko geografia irakastea.

Ez zuen denbora alferrik galdu horratio. Urte hartantxe sortu zuten Bilbon *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria euskaraz. Urtarrilean atera zen lehen zenbakia eta Orixe izan zen lehen orduko lankideetako bat ez ezik, zintzoenetakoa eta hoberenetakoa, idazlanen maiztasunari bakarrik behaturik ere. Lehen zenbakian haren olerki bat agertu zen, "Igesi" izenburua zuena; bigarrenean bi; hirugarrenean beste bi, eta abar, zenbaki batean ere huts egin gabe, eta boskarrenean lau lantxo —ia alearen erdia— bereak zituelarik. Ez dugu zer sines lan guzti haiek urte hartan eginak zituela; batzu agian Oñan edo are Burgosen onduak izan zitzakeen.

Ez ote zen hori izan Orixeren hondamendiaren iturburua? Baina horregatik hondamendia zer dela eta?, galdegingo du batek baino gehiagok. *Deya*-ko zuzendariak ez zukeen noski Orixe hainbat idazlan igortzearen damurik ez penarik; Lagundiko agintari aita Probintzialak ondotxo zekien, bestalde, lan haiek bururatzen zituela, argitara ateratzen baitziren; ez da sinesgarri azkenik hartan aritzea debekatu ziotenik, debekatzekotan argitara bederen ezin eman baitzitzakeen, Probintzialak *Deya*-ko Zuzendariari hitz erdi bat esatea aski zuenez gero. Zergatik hortaz hondamendia?

"Reinaba entonces en Comillas un ambiente de exacerbado patriotismo" esan zidan behin batek; eta "abertzaletasun" hori zein aberrirekikoa zen ez dago esan beharrik. "Los dos Padres Mostaza, tío y sobrino, Miguel y José respectivamente, la emprendieron duramente con él, le enfilaron", aitortu zidan beste behin garai eta gertari haien lekuko aukurakoa izan zen beste batek. Bi horietatik ilobak gainera lehendik ezagutzen zuen Orixe, are ikasle izana zuen Oñan; ez dakidana da ea lehenago ere begitan hartua zuen. Osabak, berriz, teologia gaietan gorengo eta itzal handiko zelarik, Lagundiko Agintarien aurrean eta are Erromakoen aurrean begiramen eta burupe izugarria zuen. "Era además un exaltado españolista", gaineratu zidan bi lekuko horietan lehenak.

Ez dugu, damurik, Orixek bere “maisu txiki” aldi horretako azken hilabeteetan bere Agintariekin izan zituen harremanen eta tirabiren berri-rik. Geroago aipatuko dugun latinezko eskutitz bateko hitzak ere ez dakigu uda hartako kenka larriari dagozkion ala geroagoko larriagoari; agian biei. Honela galdegingo du Orixek eskutitz horretan: “An quaestio est rursus de nationalismo?”, alegia, “abertzaletasuna al dugu berriz ere auzitan?”; eta horko “berriz ere” —*rursus*— horri bospasei urte lehenago trapu zaharren usaia, are kiratsa dario.

Dena den, guk gauza bat dakigu garbi: Orixeri teologia ikasten hastera Oñara joaten utzi ordez, bete urtebetez “maisu txiki” gisa ari zedin agindu ziotela. Egia osoa aitortu behar badugu, ordea —eta ez nuke inola ere nahi ez aitortuaren errurik neuregana—, laugarren urtez maisu txikitan aritzea ez zen beti, ez eta hurrik eman ere, zigorra izaten garai hartan. Askori eginerazten zitzaien laugarren urte hori, zigorrik ez merezi izan arren. Hortxe dugu, esate baterako, anai Páramo dontsua bera, Oñatik Orixe baino urtebete lehenago Comillas-era atera eta 1916-1917ko ikasturtean Orixerekin batean laugarren magisterio urtea egin zuena. Areago, Orixek berak aurrerago Erromara igorriko duen gutun batean ez du laugarren urte hori zigortzat joko; ondoko beste biak, bai.

Santandertik Palenziara, Comillastik Carrión de los Condesko mortura igorri zuten Orixe, han begitan hartu omen zutenengandik urrun. Ez dakigu hemen ere begitan hartu zuen norbaitek; ez dakigu ikasturte hartako ia batere konturik. Bere gain zituen zeregin apurren berri bai. Apurrak diot, lau maisu txikietatik berak baitzuen eginkizunik txikiena: bost nobiziori behe mailako gramatika irakatsi, Erromarako albisteak bildu eta etxeko gorabeheren historia idatzi. Maisu txikietatik bat anai Juan Jose Goikoetxea Zeanuritarra zen, gero herri misiolari famatua izan zena bere anaia Feliperekin batean. Etxeko erretore eta nobizioen Zuzendaria aita Antonio M. Arregui moralista ospatsua zen, nafarra eta euskaldunekiko gogor samarra, diotenez. Ikasturte hartan, 1918ko Martxoaren 12an, gertatu zen lehen iragaitean aipatu dugun eta Orixeri seguru aski poz txikia eman ez zion gertari sonatua. Honela kontatzen digu aita Leon Lopetegi historiolariak pasadisur hori bere egunkarian: “...aquel año, el 12 de Marzo, se había dividido la provincia religiosa de Castilla de la Compañía de Jesús, y el país vasco pasaba a ser la base y más de las cuatro quintas partes de la nueva provincia de Castilla que quedaba, y de la que se había desglosado la de León con toda la parte noroccidental de España, incluida Santander, para contar con los estudios filosófico-teológicos de Comillas, que nosotros ya teníamos en Oña (Burgos)”.

Orixeri poz eman zergatik? Artean ez zitzaion burutik pasa ere apika, beste urtebete luzatuko ziotenik magisterio aldia. Beraz gauzak erabat okertzen ez baziren, Oñara bilduko zen hurrengo udan teologia ikastera, eta ez zen gehiago euskararen eta euskaltzaletasunaren hain

etsai, edo kontrako bederen, giroan biziko. Ala auzokoak bezain etsaitzat ote zeuzkan etxeokak, etxeiko batzu behintzat, euskaldunak esan nahi dut? Eta euskarari hain atxikia izanak bakarrik sortzen ote zizkion etsaiak? Badakigu urte hartan ere etengabe aritu zela euskal lanetan eta *Jesusen Biotzaren Deya*-ra idazlanak bidaltzen. Urtarrileko alean hogeitamaika orrialdetatik hamaika bereak dira, Martxokoan ere bai, Abuztukoan hamar, eta gainerakoetan ere, Otsailekoan izan ezik, hutsik egin gabe agertu ziren haren olerkiak, latinetik itzuliak nahiz bere baitakoak, eta idazlanak. Hori egia; baina egia berebat Felix Areitiok, Joaquin Azpiatzuk eta gehiagok, artean Orixe bezalaxe Probantza aldian zirenek, argitara zituztela aldizkari berean beren lantxoak; eta hauei ez zieten zigorrik ezarri. Beste eginkizunei ostutzen al zien Orixe denbora eta horregatik —edo hori aitzakiatzat harturik— jazartzen al zuten, besteak ez bezala, gaizki nahi ziotenek? Ez ahantz Orixe berak Areitiori esan omen ziona: “...y que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales”. Eta hori ertsiki debekatua zegoen ikastaldietako urteetan.

Badaiteke arrazoa edo aitzakia hori izatea. Halako zerbait uste izateko bide ematen digu honako gertari harrigarri xamar honek. *Deya*-ren ondoko bi urteetako aleetatik ia osoro izkutatu zen Orixeren izena. 1919koetan “Cor arca” eliz kanta aurkitzen dugu Urrian euskarara itzulia, Orixeren sinadura daramalarik, eta Abenduan orobat Nemesio Otañoren musikaren letra, *Artzayak* titulua duena, Orixeren izenez ageri da. Eta kito! Urte osoan ez da besterik, haren izena duenik bederen, nahiz izenik gabeko eliz kanta batzuren itzulpena, hala nola “Adoro te devoto”-rena, harena den ia segurki. Eta are harrigarriago dena, 1920ko hamabi aleetan ez dago Orixeren lanik bat ere. Beraz galtzeko arrisku handirik gabe egin genezake apustu Agintariiek debekatu ziotela hartan jarraitzea, edota onbeharrez eskatu isil zedin eta lantegi hartatik geldi.

Carrionen ikasturte hura amaitu eta berriz ere Oñako bidea itxi zioten Agintariak: beste urtebete izan behar zuela maisu txiki. Orixeren haserrea eta amorrazioa! Probintzia Martxoan zatitu zenez gero, ez zuten gehiago han geldierazi, ez eta Gaztelauko beste etxeren batera bidali, baizik Tuterakora. Han berrogeitasei jesuistetatik ez zen ia bat ere euskalduna ez zenik. Lehengo etxeetan baino hobeki hartu ote zuten horregatik eta euskal giro beroagoa aurkitu ote zuen? Urte txarrak ziren, egia esan, jesuiten inongo etxetan —eta jesuita ez ziren gainerako fraileenetan ere hala moduan, noski, edo are okerrago— euskal giro berorik aurkitzeko. Horrez gain mundu guztiak zekien Orixe jipoitua zetorrela, jipoiazen arrazoa jakingo ez bazuten ere; bekokian zekarren zigorraren seinalea. Halere, etxeoko euskal giroa gorabehera, hark Abendu arte segitu zuen *Jesusen Biotzaren Deyara* lanak igortzen, lehen esan bezala; Urteberriz aldatu zuen, edo aldarazi zioten, bere jokabidea. Aita Joaquin Echenique donostiarra zen erretore eta Pedro Ongay Lizarragakoa gogo-zuzendari.

Baziren gainera beste bi apaiz gutxienez, Pedro Echevarria eta Bernardo Egaña, gero euskal sermolari izango zirenak. Tuteran egotzi zioten lana hauxe izan zen: literatur jenero edo motak irakatsi hangok mutikoei eta horrez gain literatur historia. Urte hartan haren ikasle izan zen gazte baten lekukotasuna jaso zuen aita Juanito Goikoetxeak paper mutur batean. Honela dio: “Deusto, 1966 inguruan galdetu” (Han eta orduan galdetu ziola, alegia, eta hark hauxe erantzun): “Tutelan euki nuan irakasle urtebete. Literatura irakatsi zigun. Datoak eta datoak eman ordez, literatura bizia eman nai zigun, zuzenean jaso. Ala, adibidez, Homero-kin. Homerokin asten zanean, etzekien non zegoan. —Joana?, diot nik—. Joana, baina extasian joana. (“Aquello no era absorto, aquello era éxtasis”). Gogoan dut lasterka-apustua irakurri zigun aldia, Ajax eta gainerako. Berrogei-bat ikasle izango giñan. Gutxi batzuk eskolan itxura egiteko geratuta, beste danak aldegiten genion. —Bera ez al zan konturatzen?— “Y él en la luna”. Ura Homerorekin asten zanean, arentzako ez zegoan beste ezer: mundu guziak aldegiten zion (Hau erdaraz esan dit...). Nosotros le veíamos en éxtasis y nos marchábamos de clase: volvíamos un poco antes de terminar la clase”.

Eta Tuterarekin zer ikusirik ez duen beste hau erantsi omen zion ondoren: “Bein, barkaziotan nengoela, ta neu Markiñatik Elgoibar aldera (bizikletan?), gizon bat topa nuan andik onera oñez. Orixe iruditu zitzaidan, baño ezin sinisturik gelditu nintzan. Etxeratzean aitari esan nion nere topoa ta susmoa, ta aitak baietz, uraxe zala ta berakin itzegitera zetorrela. Bizkaierakin ari zen nonbait Orixe, ta nere aitak “ao eder” edo itzlari onaren fama bait-zeukan, arengandik “giros vizcainos”-eta jasotzera zetorren agian”.

Aita Juanito Goikoetxeak jaso ere da Tuteran Orixerekin bizi izan zen anai laguntzaile edo lego baten honako beste lekukotasun hau: “éste destaca sus aficiones literarias euskéricas y lo mal visto que era por ese motivo por muchos: amorru aundia zeukakioten Tudelan bere euskaltasunagatik, baiña ura etzan bildurtzen”. Eta beste baten honako hau ere bai: “Etxenike le tenía enfilado”. Echenique delako hori erretorea zen. Honekin ez zen, dirudienez, ongi konpontzen. Behin mokokaldi zakarren bat izana izan behar zuten, eta Orixe ez zen, ongi dakizuenez, isilik egotekoa: zerbaitegatik aitortu ohi zuen bere buruaz “zitala” eta are “basurde” xamarra zela (“me quoque vince ferum”). Ez dakigu nork nori egin zion mokoka gehiago eta handiago, baina Orixe sutan atera zen nonbait eztabaida hartatik. Gero lagun batekin topo egin eta —“relata refero”— “cuentan que Orixe le comentó: Yo a ése le sacaría las entrañas y me las comería”. Berritio diot: ez dut fede ematen, baina hala kontatu omen ziotenak kontatu zidan neri, eta hau bai esan dezaket: horrek biziki maite zuen eta maite du Orixe. “Y tú sabes”, gaineratu zidan gero, “que decir eso de un Superior era cosa muy grave en aquel entonces”.

Berriro galdegiten dut: euskaltzale eta euskal idazle zelako *bakarrik* luzatu al zioten maisu txiki aldia? Laugarren urtea agian horregatik ez, ikusi baitugu eta ikusiko berak ere ez zuela hura zigortzat hartu. Boskarrrena eta seigarrena bai? Ala izan zen beste arrazoirik ere? Ez baitzuen apaiz ez zirenetatik hark bakarrik *Deya*-n euskaraz idazten; gehiena bai, alde handiaz gainera; ez baitzuen, ordea, ia batera idatzi 1919garren urteko aleetan, eta halaz ere urte hartako udan berriz ere Oñako ateark ertsi baitzizkioten eta seigarren maisu txiki urtea eginerazi. Euskal idazle zelako bakarrik? Ez dut baieztatzen ez ukatzen; nik galdegiten dut soil soilik, hiru urte geroagoko eskutitzek zerbait argituko digutelako esperantzan.

Seigarren urtea burutzeraz Xabierri igorri zuten, hamabi urte lehenago jesuita izaten hasteko atera zen lekura. Zenbat gauza ikasi duen, eta ez latina eta gerquera bakarrik, urte gazi-gozo haietan! Bat ez zuen apika artean ikasi, jesuitak ofizio horretan maisu goren omen diren arren: diplomazia, zurikeria, azpijoko pixka bat, edo nahiago bada, zeharka ibiliz helburura iristen. Agian ez zuen hori ikasi nahi ere, bai baitakigu edozer gauza edozeini berak uste bezalaxe esan nahiago zuela estalkirik eta hitz gozagarrikerik gabe. Zernahi dela ere, hor dugu berriz Xabierren, aita Modesto Armisén nafarra erretore duelarik, eta maisu txikiaren artean anai Jose Antonio Belderrain, Oiartzuarra, Orixeren oso lagun on eta zintzoa gero ere. Erdi mailako gramatika eta gerquera irakatsi zien mutikoei: horrez gain Erromarako albisteak bildu zituen eta etxeko historia koxkorra idatzi. Bizi dira oraindik urte hartan Orixeren ikasle izanak: aita Gaston, aita Jose Goenaga eta abar. Haietako batek, lehen ere aipatu dugun Leon Lopetegi zenak, honela gogoratzen zituen duela urte batzu orduko gertaerak:

“Con los cambios que trajo la división de provincias religiosas, en cuanto al personal docente de Javier, se notó en seguida una mayor benevolencia a todo lo euskérico, a pesar de que el nuevo Superior, el P. Modesto Armisén (de Cáseda, Navarra, no lejos de Javier), superior desde el 16 de Septiembre de 1918, no tuviera ningún interés por la lengua vernácula anterior de su comarca. Pero tanto el nuevo P. Provincial, Vicente Leza de Pamplona, como su Socio o Secretario el P. Gabriel Vilallonga Ibarra, de Bilbao, que había sido diputado provincial por Vizcaya antes de entrar en la Compañía de Jesús, nos animaban mucho a no olvidar nuestra lengua en las visitas que hicieron pronto a Javier. Tanto que nos llamaba la atención ese interés, pues ninguno de los dos la conocía.” [...]

“Por lo que hace a Javier, tuvimos durante nuestro último año o curso, 1919-1920, a un joven profesor, que llamábamos P. Ormaechea (el luego conocido como gran escritor y poeta vasco ‘Orixe’), que tuvo una clase de griego y latín, viniendo del colegio de Tudela, donde enseñaba preceptiva literaria e historia de la literatura. Cumplía entonces el sexto

año de magisterio, es decir, los años de docencia en un colegio, que la Compañía de Jesús solía hacer colocar entre los estudios de teología y filosofía. Entonces ya se había comenzado la regla de que fueran tres años por norma ordinaria, pero no eran aún raros casos de cuatro o cinco años, pero rara vez seis, como en este caso, y que no sé a qué se debería. El hecho es que para nosotros constituyó pronto una fuente de información sobre cuestiones de lengua o literatura euskérica, lo mismo que sobre los actos principales que tenían lugar entonces, desde el Congreso de Oñate y la creación de la Sociedad de Estudios Vascos, con la Academia de la Lengua Vasca, cosas novísimas para nosotros, y que no acabábamos de comprender bien, aunque atisbábamos su importancia en el renacimiento lingüístico que parecía percibirse.”

“Es indudable que las pocas veces que le oí a Ormaechea, especialmente durante algunos paseos, en los que coincidíamos, ya que no era nuestro inspector ni profesor, y luego por lo que decía a sus alumnos, de lo que también nos enterábamos pronto, me impresionó. Lo que de todo ello se veía claro era que se trataba de un cambio de posturas y posiciones, cuyo final era difícil de calcular, pues dependía de muchas circunstancias. De todos modos, yo seguí después, mientras me fue posible, la trayectoria de Ormaechea, tanto aquellos tres años en que aún fue jesuíta, como después cuando empezó ya sus publicaciones y se destacó como el mejor poeta, y siempre un gran escritor vasco.”

“Ormaechea fue a estudiar Teología en Oña en el curso de 1920-1921, mientras yo hacía mi noviciado en Loyola...”. Baina eten dezagun hemen Xabierko urte hartako lekukotasun aukerako hau eta ondoko hitzak geroko utzi, hurrengo hiru urteei baitihoazkie. Gauza bat ahaztu zaigu esatea: Xabier bezain laster ikasi zuen Orixek bere lagun min Estefanía, maisu txiki gisa hiru urte soilik burutu eta Oñara bildua zela teología ikastera. Orduarte Orixe zebilkion bi urte aurrerago eta orain urtebete atzerago! Beraz ezin zitekeen Estefaniarekin batera ere apaiz egin.

Ikasturtea aurrera doa. Orixeren lumak ihartua dirudi, ez baita 1920an haren lanik batere ageri *Deya*-n, esan bezala; iharrerazi egin dute, dudarik gabe, eta Orixek onbeharrez amore eman du. Erretore berriarekin ere lehengoarekin baino hobeki konpondu zela dirudi, bai baitakigu Orixeren alde atera zela eta teología ikastera joaten utzi behar zitzaiolako iritzia agertu zuela. Uda hartan aita Probintzialak Oñara joan zitekeela gaztigatu zionean, Orixek “Nunc dimittis” kantatu zukeen agidanean bihotz bihotzetik.

## 6. TEOLOGIA IKASLE (1920-1922)

Burua makur eta begiak laino sartu zen segurki Orixe Oñako etxe kankailuko ate handian barrena. Haren izena askoren ahotan ibilia zela

bazekien. Sei urtetako magisterioa, alajaina! Ez zioten, halere, muzin egingo gehienek; aitzitik, esango nuke gehienak alde jarri zitzaizkiola eta lotsa erakutsi ziotela. Hala egin ohi dugu ia beti sufritu duenarekin eta mendekoek batikipat Agintarien aurka elkar hartu ohi dute horrelakoetan: “zerbait egingo zian baina, ez zioate egur xamurra eman”. Estefaniak batez ere ongi etorri alaia eta bozkariozkoa egingo zion, batere dudarik gabe, eta “Izan bihotz, Nikolas”, esango, “negua iadanik igaro da eta uda laster helduko; nekez, baina iritsi zara portura. Gogoratzen al zara? Hementxe agurtu genuen elkar azkeneko aldiz duela sei urte. Gauzak aldatzen hasi dira gainera. Orain gure probintzian ia guztiok euskaldunak gara”. “Bai, baina”, erantzungo zion Orixek, “ni erabat jota nator. Ez dakizu nolako urteak igaro ditudan. Bihotza zauritua dut eta odola borbor darit”.

Ez dakit ezer, baina ez zen oso bestelakoa izango Irailaren lehen egun hartan bien arteko elkarrizketa, Oñako harresi barneko baratzen zehar eta aldapan gorako mendi kaxkora Santo Toribio ermitaruntz zihoa-zela. Bezperan iritsi zen Orixe Oñara: “Agosto, 31, martes. Llegan en auto los HH. Ormaechea Nicolás y López Jesús a estudiar Teología”, dio etxeko egunkariak.

Egin dezagun pausaldi txiki bat aurrera baino lehen, teologia ikastera joateak zer esan nahi zuen jakin gabe ezin adi baitaitezke geroko gerta-riak. Teologia ikastera inori joaten uzteak esan nahi zuen hark kitatu zituela lehen zituzkeen zorrak eta xahutu egin zituzkeen hutsegiteak eta “bekatutxoak”. Orduarteko agiria urratua gelditzen zen, nolazpait esateko, eta fitxa zaharra deuseztatua lehen izan zitzakeen salakuntzak ezin berriz aidera atera zitezkeelarik. Oker eta bekatu berririk, ez arinik noski, baizik astun eta larririk egiten ez bazuen, apaiz izatera heldu behar zuen eskuarki. Gero berriz aipatu beharko dugun Erromako gutun garrantzitsu bateko hitzez esateko, “elapso studiorum theologorum curriculo, Superiores prohibentur negare Ordines nisi de causa vere canonica”; esan nahi baita: teologiazko ikaskizunak igaroz gero, Agintari edo Nagusiek debekaturik daukate, arrazoi egiazki kanonikoagatik izan ezik, Apaizgoa ukatzea.

Honek gauza bat ipintzen digu agerian: baldin euskara izan bazen Orixeren orduarteko zigorren arrazoiak, ezin zitezkeen inola ere hura bera izan geroztikoena; are gutxiago, baldin orduz gero euskal lanetan nabarmentzen ez bazen, argitara emanik bereziki. Eman al zituen? 1920ko *Deya*-ko aleetan ez zen haren lanik batere agertu: 1921ekoetan ere ez Abendukoak arte; Abendukoan hasi zitzaizkion “Jesukristoren Berri Ona S. Joanek idatzi bezela” argitaratzen eta 1922koetan zatika ematen jarraitu; horrez gain Urtarrileko alean “Eguerritarako” eta “Herodes eta Magoak” izeneko olerkitxoak aurkitzen ditugu, eta kito. Eta hori gainera urte eta

erdi zeramalarik orduko, Euskal Akademia sortu berriaren Zuzendari izaten.

Horren sorreraren berri ona zehazkiago eman aurretik, ordea, ikasurtearen hastean berean Orixek jasan zuen beste albiste mingarri bat kontatu behar dut. Badakizue, lehen esan baitut, nolako notak atera zituen Filosofiako hiru ikasturteen amaierako “De universa Philosophia” zeritzan azterketan: bi “aegre (doi-doi, alegia) superavit” eta hiru “attigit”. Esan dezagun garbi, suspensorik ez, baina *Superavit* garbitik urruntxoko notak, eta —Orixek agian ez zekien, nik ere ez, harik eta duela ia hogeitamar urte neure irakasle izan zenagana horren argitasun eske jo dudan arte— azterketa hura gaindituzat emateko *Superavit* garbia beharrezko zen. Hori dela eta, urteroko gogojardunak aita Sautu herri misiolari famatuarekin egin eta ikasurteari ekitean, horra non gaztigatzen dion Erretoreak, aita Bianchik, “cursus maior”—eko ikaskizunak ez baizik “cursus minor”—ekoak egin behar dituela, nota eskaxak atera zituelako. Albiste honek lehengo makiladez gain gihian ukitu zuen eta aurrerago Erromara idatzi zuen eskutitz batean zartada horren asperenak entzungo ditugu. “Cursus minor”—era jaisteak berekin zekarren, gero azken zinitzak egiterakoan, lau zinitz sonatuak ez baina hiru egitea; bestela esan, lau botutako Profeso ezin izana.

Irentsi zuen, haatik, beherapen hori ere eta Urriaren lean “lectio brevis” ohizkoaz ekin zion teologiari. Ehun eta sei teologo ikasle ziren guztira eta bedelaren egunkariak aditzera ematen digu 24 Leondarrak zirela, 3 Toledokoak, 8 Portugesak, 2 Mexikarrak, 3 Missouriakoak, 9 Californiakoak, 1 aragoitarra, beste bat alemana eta gainerako 55ak Castilla probintziakoak, ia denak euskaldunak.

Egun gutxiren buruan izan zuen, haatik, albiste pozgarri bat ere, bere eta beste lagun gehiagoren ardailen eta gatazken fruitua, nahiz berandu samar heldua. Hona nola ematen duen horren berri etxeko Kontsuluten Liburuak: “3 de Octubre de 1920. A la proposición del P. Rector, si convenía poner una Academia de lengua vascongada solamente para los que ya saben hablar vascuence y con el único fin de que se hagan aptos para oír confesiones y dirigir la palabra al pueblo sencillo, todos los Consultores contestaron afirmativamente, haciendo la observación de que no se hiciera en la clase mención alguna sobre la cuestión nacionalista”.

Muga mugaren gainean eta baldintzak baldintzen gainean, baina itxura ona du auziak: azkenik euskara ikastea zilegi izango dute Oñako gazteek. Gezurra dirudi —ez hain gezur, orduko berri dakienarentzat— hainbeste urte behar izanak euskal akademia sortzeko. Baziren, izan ere, orduko han bertan hainbat hizkuntzen akademiak: frantses, ingelera,



gerkera, hebreo, aleman, txino ikastekoak eta nahi zuenak nahi zuena ikasten zuen; txinoa Txinara destinaturik zirenek, noski. “Euskara azkena, beti bezala” pentsa dezake norbaitek, baina juzku txarra egingo luke. Berrogei urte lehenago ere bazen junior gazteen artean euskal akademia; Frantziako Poyanne-n jesuitak erbesteraturik bizi izan zirenean sortu zen iadanik eta aita Jose Ignazio Arana azkoitiarra izan zen haren eragile, eta beste askoren artean Urraburu haundia ikasle eta idazle eta euskal bertsoen egile. Gero, ordea, nazionalismoak fraile etxeetan ere piztu zituen iskanbilak eta kalapitak zirela bide, desegin zen eta galdu.

Entzun dezagun, ordea, Kontsulten Liburuak aurrerago dioena: “1 de Noviembre, 1920. Rezadas las preces acostumbradas y aprobado el Acta de la consulta anterior el P. Rector dio cuenta de que en vista de la unanimidad de pareceres de los Consultores, había establecido la Academia de la lengua vascongada entre los HH. estudiantes, pero sometién-dola a ciertas bases. En primer lugar, habían de tenerla por separado teólogos y filósofos. Además se habían de sujetar a las siguientes reglas. 1.<sup>a</sup> El fin de la Academia no es formar literatos de la lengua vascongada, sino preparar operarios apostólicos de la Compañía, que el día de mañana puedan con fruto ejercitar los ministerios de confesar y predicar en los pueblos vascongados. 2.<sup>a</sup> Conforme a este fin, los académicos se perfeccionarán en el vascuence popular teniendo ante todo la mira puesta en hacerse fácilmente inteligibles a la gente sencilla de los pueblos y caseríos, procurando toda la corrección y pureza de lenguaje compatible con esa inteligibilidad. 3.<sup>a</sup> Para conseguir estos fines con más eficacia, los Académicos se reclutarán entre aquellos HH. Estudiantes que habiendo hablado vascuence en su niñez lo conservan en tal grado, que con la labor de la Academia puedan ponerse en disposición de llegar a conseguir el fin de esta Academia. 4.<sup>a</sup> En la preparación no se empleará más que el tiempo señalado para las Academias de la lengua. Estas reglas antes de imponerlas a las Academias las consultó con varios de los nuestros más peritos en la lengua vascongada y a todos les parecieron bien y muy prácticas”.

Sortu da euskal akademia; berorren bizi-indarrak eta dinamikak urrazkiko ditu gero muga eta baldintza horiek. Izan ere, norbaitek idatzi beharko zuen, bada, *Deya*-n! Arau horiek ezarriz, ordea, bere burua zuritutzat ematen zuten Agintariek eta hor konpon gero, nolako euskara ikasten zuten gazteek! Hori beren gain geldituko zen eta batez ere Akademiaren buru izendatzen zutenaren gain. Eta badakizue nor izendatu zuten, Orixe, lehen nazionalista zelako salakuntza sartu ziotena. Katalogoak hala dio: “Ormaechea Nicolaus, praefectus academiae linguae vasconicae”. Eta gogoz ekin zioten lanari, dirudienez, Azaroaren 2lean hau irakurtzen baitu egunkarian: “Vespere omittuntur toni et academiae, praeter euskaram, quae habetur hora 6.<sup>a</sup>”; alegia egun

hartan gainerako tonu eta akademiak ez zirela izan, biharamonean Santa Cecilia eguna zelako edo; euskarakoa bai, ordea.

Ez dugu pentsatu behar zizak bezala sortu zenik batbatean euskal akademia hori; urteetako garraxi eta eskabide iraunkorren ondorioa izan zen. Iadanik 1918an Castellako probintzia erdibitu zenean, Leondarrak aldendurik, aita Ledochowsky jeneralak hori gaztigaturik idatzi zuen gutunean aipatzen zuen hizkuntza auzia. Honela kontatzen du aita Lopetegik pasadizu hori bere Egunkarian: “Con esta ocasión dirigió el P. General, Wlodimiro Ledóchowsky, una carta a los integrantes de las dos provincias, en que *por primera vez* aparecía este tema en el asunto de separaciones de provincias en España. Al hablar de los que habían de pertenecer a ambas provincias, se estatuye que pertenezcan a la nueva de León tanto los nacidos en su territorio o que vivían en él al entrar en la Compañía, como los que hicieron el noviciado en Carrión de los Condes. Y aquí viene el inciso: “menos los vascos, tanto Padres como Hermanos Coadjutores, porque serán más útiles en su tierra natal por su lengua patria”. Y ahí se comprendía los escolares nacidos en las cuatro provincias civiles vasconavarras, aunque no supieran vascuence”.

Euskararekiko jarrera berria eta haize fresko bolada bortitza gure etxeetako leihoetan barrena iragazi zen batez ere Erroman jabetu zirenean hemengo jesuiten arteko iskanbilak eta tirabirak ezin ezti eta bare zitezkeela, baldin Erromako Jeneralak berak esku hartzen ez bazuen. Egoera lekuan berean ikertzeko bere ordezkari bat igorri zuen aginpide osoarekin. Aita Lopetegiri ematen diot berriz ere hitza: “El P. Boetto, que fue después cardenal y luego Arzobispo de Génova, por una intervención personal de Pio XI ante Mussolini por medio del P. Tacchi Venturi para aligerar los trámites, había venido como Visitador de la Provincia jesuítica de Aragón entre 1919-1920, y al año siguiente, fines de 1919 hasta el verano de 1921, giró una detenida visita a la de Castilla [...] Ya veíamos que nos animaba a conservar y estudiar la lengua vasca, pero a mi me llamó la atención el énfasis que puso en este tema en su informe y en sus mandamientos y consejos a toda la Provincia, aconsejando la formación de Academias, en el sentido que tenía entonces entre nosotros de clases especiales y facilidades de biblioteca, con algún que otro acto público en dicha lengua para los que quisieran acudir a ellos [...] Este cambio oficial de actitud, corroborado con la forma que tomó la provincia de Castilla en 1918, convirtiéndose casi en provincia vasca sin el nombre, pero con una inmensa mayoría de cuatro quintos del total, supuso también un cambio de mentalidad en jóvenes y viejos. Muchos lo atribuían a política, pero poco a poco se fue imponiendo el buen sentido y no hubo choques ni incidentes especiales ni en Oña ni en Loyola, aunque aún hubiera cierta rigidez de criterio para permitir la lectura de determinados libros... [Dicha visita del P. Boetto] era la consa-

gración oficial definitiva en esta dirección, cosa difícil de sospechar unos años antes. Eso apareció en el Memorial de la Visita del P. Boetto (1921, p. 18), donde habla de cómo el euskera es lengua vernácula en nuestro País”.

Abenduaren 7an heldu zen Oñara aita Boetto eta biharamonean honela dio etxeko egunkariak: “Inmaculada. Se leyó en el comedor al mediodía la patente del P. General, en la cual nombraba al P. Boetto Visitador de la Provincia de Castilla”. Bi hilabete eta erdi luzatu zuen bisita, harekin hitzegitera joan nahi zuten guztiak bere gelan soseguz hartu eta haien arrenkurak eta keixuak, usteak eta nahikundeak astiro eta erne entzuten zituelarik. Teologoei bere txanda Urtarrilaren 3an heldu zitzaien, apaizen eta irakasleen ondoren: “Hodie inceperunt theologi agere privatim de suis rebus cum R.P. Visitatore”; egun hartan hasi zirela teologoak, alegia, haren gelatik txandaka pasatzen beren arazoan berri emanez. Hamaika gertari eta ixtorio larri, berari gertatu eta berak jasandako, jalki zion agidanean Orixek! Geroxeago entzungo dugu Orixeren beraren ahotik zer erantzun zion aita Boettok. Otsailaren 18an etxeko bizilagun guztiak kapila zabalean bilarazi eta azken mintzaldia egin zien.

Ondoko hilabeteetako gertariak arinki jalkitzera lehiatuko naiz, Orixeren Lagundiko bizialdiaren azken ateka gaiztora lehen bait lehen iristearren. Ikasturtea burutu eta hamabost egunetako opor handiak Oñan berean eman bezain laster, Estefanía Holandako Valkenburg-era doa Pedro Leturiarekin batean teologiako hirugarren eta laugarren kurtsoak ikastera. Orixek berez ere bere lagunik minena gabe gelditu da, haren laguntzaren eta aholkuaren beharrik handiena izango duen kenkan. Ala elkarrengandik bereizi baino lehen kontaktu ote zion zer asmo bihurri zerabilen buruan? Ez dut uste. Irailaren 3an egunkariak dioskunez “en el auto de línea salen el P. Gil para Madrid y el H. Ormaechea para Durango para leer dos trabajos que presenta en las Fiestas Vascas”. Astebete geroago, 10ean, itzuli omen zen.

Ikasturte berriari hasiera eman eta katalogoan berriz ere “Praefectus academiae linguae vasconicae” kargudun agertzen da. Aita Bianchi du erretore eta aita Manuel Arín andoaindarra, Comillasen bi urtez erretore izan zuena, gogo-zuzendari eta irakaslerik gehienak ere euskaldunak dira: Zameza, Zapelena, Ogara, Laburu eta abar. Otsailaren 12an “tuvo lugar una sesión pública a cargo de los teólogos pertenecientes a la Academia de Oratoria Sagrada; versó sobre S. Juan Crisóstomo” eta Orixek txosten bat irakurri omen zuen: “El Predicador, delegado de Jesucristo”. Martxoaren 5ean On Mateo Mugicak apaiz ordenak ematen dizkie teologia ikastaldia osoro amaitu duten laugarrengoei eta arratsaldean literatur jaialdia eskaintzen diote. Biharamonean “el Sr. Obispo y con él algunos Padres fueron al refectorio de los teólogos para oír un sermón en vascuence que un Hermano teólogo predicaba”. Bedelaren —anai Jose

Agirreeciagaren— egunkariak sermolariaren izena ere gorde digu: anai Juan Migel Izagirre, azkoitiarra, izan omen zen eta oso gogoko izan omen zuten predikua (“multum placuit”). Izagirre horixe izango zen hurrengo ikasturtean, Orixek Oñatik aldegitan, euskal akademiaren buru.

Maiatzaren 21ean Erromatik iristen da baimena aurrerantzean teologoak hirugarren ikasturtea burutzean apaiz egin ahal daitezen, eta ez orduarte bezala laugarrena amaitzerakoan. Hori dela eta, Uztailaren 7an Estefania Holandatik Oñara dator atzera eta 30ean bere ikasturteko lagunekin batean apaiz egiten da. Orixeren zirrara eta ikara! Jose Agirreeciaga bedelak hona zer dioskun bere egunkarian: “Hora 5,30 ‘ezpatadantzaris’ in viridario philosophorum a pueris oniensibus”; Oñako haurren ezpata dantza, alegia, festa handi hura ospatzeko. Nork irakatsi dizkie euskal dantzak, baizik teologoren batek? Ez dira gutxi aldatu gauzak Burgosko bazter hartan.

Eta Orixe bitartean zer? 1923ko katalogoan —1922-1923ko ikasturtea hasi eta lauzpabost hilabetera argitaratua— ez da gehiago Orixeren izena Oñan ageri, baizik Xabierren. Gerkerazko eta frantsesezko eskolak ematea omen zuen hango bere ogibidea, baina laster ikasiko dugu hori ere kendu egin ziotela azkenean. Etxeko egunkariak bitan aipatzen du Orixeren izena: batean aita Belderrain eta aita Basaberekin Zangozara joan zela esateko, ez dio zertara; bestean Eguberri egunez beste hiru jesuitekin palaz jokatu zuela jakinerazteko.

Zer gertatu da Oñatik aldegitiko? Noiz eta zergatik hegatu da Xabierra! Estefania Holandatik apaiz egitera Oñaratu baino lehen? Ondoko orrialdeek irakatsiko digute ezetz, artean Oñan zegoela. Zenbat hitzaspertu elkarrekin! Kontatu al zion Orixek nolako karta-borroka ari zuen Eguberri gero Batikanoko eta batez ere Erromako jesuiten aita Jeneralarekin eta bere Probintzialarekin? Ez dakigu. Urriaren 17an, teologiako hirugarren ikasturtearen hastean, oraindik Oñan zela bai, badakigu. Geroxeago joana izan behar zuen handik Xabierra. Zazpi urtetako Gurutzbidea izan omen zuen ibilaldi luze bezain lazarri haren gailurra harrapatu du ia-ia.

## 7. LAGUNDITIK KANPORA (1923)

Ondotxo dakizue marmar asko eta iritzi ezberdin ez gutxi ibili izan dela gure artean Orixeren Lagundia uztea edota utzaraztea zela medio. Aita Onaindiari berak esan omen zizkion hitzak ez ditut hemen errepikatuko; Andima Ibiñagabeitiak esanak ere ezagunak dira eta beude hartan. Batare ezagunak ez diren aita Lopetegirenak, bere Egunkarian idatzi zituenak, aldatuko ditut hona. Barka luzexkoak baldin badira: “Ormae-

chea fue a estudiar Teología a Oña en el curso de 1920-1921, mientras yo hacía mi noviciado en Loyola, y desde su llegada a aquel centro de estudios eclesiásticos inicia una nueva actividad docente allí: es el primer prefecto o presidente de la Academia vasca, que ese año empieza a funcionar en el teologado de Oña, figurando en el catálogo de las actividades de la provincia religiosa de Castilla. Siguió en esa función los dos años que cursó teología, pues en el curso de 1922-1923 vuelve a Javier como profesor de griego y francés y al poco tiempo deja la Compañía de Jesús. No he podido saber la causa. He oído alguna vez, y aún lo he visto en algún periódico, que él decía que ignoraba esa causa. Me llama la atención, pues al tomarse una medida de éstas, si no es uno mismo el que toma la iniciativa, los superiores llaman la atención al interesado sobre las cosas que no encajan bien en su proceder con el espíritu de la vida religiosa concreta y dejan cierto tiempo de experiencia antes del paso definitivo. Tal vez se referiría a que él no viera que aquellas observaciones no tenían (sic! ‘no tenían’ ez, ‘tuvieran’ behar du izan) tal gravedad o importancia. No lo sé, pues esas cosas no se solían decir más que en forma vaga a los demás. De todos modos, el hecho de que cuando yo le conocí, hiciera el sexto año de magisterio antes de ir a teología, era ya llamativo e indicaba que los Superiores veían algo que no les parecía bien. No sé si algo relacionado con sus aficiones a la lengua vasca pudiera influir en esto, pero los dos provinciales que tuvimos por aquellos años, los Padres Vicente Leza y su sucesor y antes secretario P. Gabriel Vilallonga, se nos manifestaron siempre favorables a la lengua y a su cultivo, y en su tiempo comenzaron a fundarse y multiplicarse las academias de la lengua euskérica en nuestros centros de estudio de Oña y Loyola. Por eso es preferible no insistir en esos motivos, de no contar con documentos auténticos y concretos que los expliquen”.

Ea nik gaur dakarzkizuedan agiriek zerbait argitzen duten. Baina galdera bat aurrera baino lehen: egia ote da Orixek ez zekiela zergatik atera zen edo, nahiago bada, zergatik aterarazi zuten? Gauza bat da guztiz nabaria: Zekiena, asko edo gutxi, isilik gorde zuela beti, ez zuela hartaz inoiz garbiro mintzatu nahi izan, ez batere argibiderik eman. *Quito-n arrebarekin* liburuan arrebak geldegiten dionean [“gero beste lagunarte artan”], Lagundian alegia, “Zer gertatu zitzayian?”, haren erantzuna hauxe da: “Bego, bego...”. Guk dakigunez ez zion inoiz inori kontatu —Estefaniari bai ote?— zer egin zuen Oñan 1922ko Eguberri jaiak inguruan eta, jakina, hori egin zuela bazekien. Zergatik ez hori bederen konta? Eskubide oso-osoa zuen, noski, isilik gordetzeko, baina kontatu izan balu, geroko susmoak, esamesak eta marmarrak —ustezkoak, eta ez seguruak— hein handi batean gutxituko ziratekeen.

Nik gaur dakarzkizuedan ixtorioak Loiolako artxibo izkutuan gorde-rik dauden paper-agirietan xurgatu ditut. Agiri horiek orduko eskutitzak

dira; guztira hamazazpi, latinez idatziak, damurik; batzu aski luzeak. Orixerenik ez da horien artean, Orixerenak Erroman egongo dira gordeak. Orixek Erromara idatzi zituenek han sortu zuten burrundaren oihartzunak entzuten ditugu hauetan eta haren eskutitzen zati osoak irakurtzen tartean-tartean Erromatik hona igorrietan. Izan ere, aita Jeneralak hemengo probintzialari eta honek hari eginak dira guztiak. Osorik eta zehazki ezin iraul ditzaket hemen, ongi ulertzen duzuen bezala, eta saiatuko naiz funtsa eta mamia “deus edequi ez eratchequi” gabe —Leizarragak liokeenez— zuei jakinerazten.

Aita Jeneral Ledochowsky-k Erroman 1922ko Urtarrilaren 24ean eginitako karta bat hartzen du aita Leza hemengo probintzialak. Honela diotsa gutxi gorabehera: Nicolas Ormaechea horko teologoak Batikanoko Erlijosoen Kongregazio Sakratu delakoari gutun bat igorri dio, eskatuz eman dakion baimena teologiako bigarren urtea bukatzean apaiz egiteko, —beste bi urte itxoin gabe, alegia; ez ahantz artean laugarren ikasturtea bukatzean egiten zirela eta geroxeago iritsi zela eskua hirugarrena bukatzean apaizteko. Ez dakigu noiz idatzi zuen gutuna Orixek, baina Eguberrietan edo izango zen, beste horren datari bagagozkio—. Bere eskabidearen alde arrazoi hauek ematen omen zituen. Magisterioko lau urte burutuak zituelarik, beste biez geldierazi zutela ikastetxeetan. Horrek *Derecho Canónico* delakoa aldarrikatuz gero, noraezean Apaizgoaren bi urtetako luzamendu edo atzerapena zeramala berekin —eta hemen datoz lehen aipatu ditudan hitzak—, “siquidem elapso studiorum theologorum curriculo, Superiores prohibentur negare Ordines nisi de causa vere canonica”, esan nahi baita, teologiako ikaskizunak igaroz gero, Agintariak debekaturik baitaude, arrazoi egiazki kanonikoa izan ezik, Apaizgoa ukatzea. Bidegabek jokatu omen zutela Agintariak horretan, gainera; bada bosgarren urtea eginerazi ziotenean ez zutela entzun nahi izan, eta ertsatuki arrazoiak eskatu ziotenean, Probintzialak hau erantzun ziola: “erlijioso oso ona zara, baina zeure lurraldearen maitaleegi dirudizu” (“nimium amator regionis suae”). Seigarrena eginerazi ziotenean, aldiz, ez zetozela bat Probintziala eta Tuterako erretorea, honek adierazi omen baitzion ez zela jokabide edo ohitura kontua, baizik Lagundirako gai ez izatea; hark, berriz, gutunez gaztigatu (1919ko Abuztuaren 10ean) “te male gubernare linguam cum agiteris animo” esan nahi baita, “ez zara zeure mihiaren jabe, zeure onetik ateratzen zarenean” (“cuando está Vd. de mal temple”). Gutunez zuritu zuela bere burua eta erantzun hau hartu (1919ko Abuztuaren 25ean): “me esse gallum gallinaceum (gallo de pelea) in mea defensione”, hots, joko oilarraren pare nintzela, neure buruaren alde aritzean. Tuterako erretoreak salatu zuela makur honezaz Probintzialaren baitan eta hori egiteko apika hura baliatu izan zela berak, Orixek, idatziz hari eman omen zion “kontzientziako kontu” zeritzanak (alegia, urtean behin edo bitan mendeko bakoitzak bere Nagusiari eman ohi zionaz eta ‘berezko sekretu’ pean Nagusiak gorde behar zuenaz), ezen etxeko kon-

tseilari bati itzuri omen zitzaiola behin beste batekin ari zelarik eta berak, Orixek, Erretoreari egin karta aipatu zuela. Orain bada, “nola nik”, dio, “ez nuen horrezaz ezer esan, ez eta Nagusiri beste inoiz kartarik idatzi, hortik ateratzen da hark larriki urratu zuela bai Derecho Canonicoa bai Lagundiko Legedia”.

Aita Boettok, honekin urte hartan mintzatu zenean, esan ziola Nagusiak kontent zirela bere jokabide erlijiosoarekin, baina lehengo iraina xahutzeko ez ziola ordainik eman. Horiek horrela izanik, 971garren kanona begiztaturik eta Probintzia osoko erlijiosoen baitan jasan zuen iraina eta bere bokazioan horrek eragin zion bake galera kontuan harturik, Kongregazio Sakratuari 976garren kanonak 2garren atalean eslegitzen zuenaren dispentsa eskatzen ziola teologiako bigarren ikasturtea amaitzean apaiztu ahal izateko. “Kongregazio Sakratuak guzti hori aditzera eman digu”, diotsa Ledockowsky-k Probintzialari, “Ormaechearen berri emateaz gain geure iritzia ere ager diezaiogun, eta nik zuri sekretu ertsipean gaztigatzen dizut. Horrek ez dizu galerazten, noski, zerorrek derizkiozun apaiz jesuitei iritzia eskatzea Ormaecheak kontatzen dituen puntu horien gainean, bai eta haren dohain, bizitza eta jokabidearen gainean, argibide ahalik zehatzenak eta gehienak eskuratzeko. Guzti horiek zuk bezalaxe sekretua gorde behar dute eta ez zaie zilegi horrezaz inorekin mintzatzea, ez eta deus ere esatea, nondik Ormaecheak susma dezan Kongregazio Sakratuak haren eskabidearen jakitun egin gaituela”. Aita jeneral Ledochowsky-ren sinadura du gutunak azpian.

Akzio bipila egin du gure Orixek, arranoak ez baditu! Ez zekien asko nolako trumoa eta hodei marraka sorreraziko zuen eskutitz hark. Bestalde, berriz, pentsatu behar zuen, bada, Kongregazioak informeak eskatuko zituela. Ez baitzen txantxetakoa gutunean zioena. Salakuntza latzak ziren egiten zituenak: Agintarien bidegabea, batetik, eta kontzientziako kontu delakoaren sekretu haustea bestetik. Eskea bera ere agian sekulan inork egin ez zuena: Apaizgoa bi urte aurreratzea. Lehen emana zioten zigorraren ordaina, pentsatuko du norbaitek. Bai, baina Nemesio Ariztimuñori ere sei urtetako Magisterioa eginerazi zioten eta ez dakigu Erromara halako gutunik egin zuenik. Erreta, are xigortuta zegoen Orixe eta ez zituen ondorioak neurtu, agian. Bere bizi osoan ohartu ere ez, eskutitz haren ondorioa izan zela Lagunditik ateraraztea? Ala ohartu bai eta bizi osoan isilik gorde? Ez dakit zer erantzun.

Gainerako eskutitzak lehenbiziko horren doinuan ari dira dantzan. Aita Lezak Otsailaren 10ean honela erantzuten dio Jeneralari: Ormaechearen esanetan zati bat egia da, bestea isildu egiten du, ordea: gauza batzu jakinaren gainean, beste batzu ezjakinean. Magisterioa luzatzeko arrazoi nagusia ez zitzaion esan, ez komeni ere esatea: eri zen, buru eri, eta eritasun horren ezaugarriak Comillasen nahiz Carrionen agertu ziren, aita Bianchik eta aita Arregik, haren erretore izanek, diotenez. Eritasun

horrek batbateko suminaldiak eragiten zizkion; horien jatorria, ordea, haren borondatea ez baina eritasuna zela Agintariak zekitelarik, erlijioso ona zela esaten zioten. Hala igorri zuten Tuterara bosgarren urtea egitera. Gauza ezdeusagorik eta desegokiagorik haurrak hazi eta hezitzeko! Behin baino gehiagotan hartu ziren haurren arrenkurak eta keixuak haiekin zuen portaeragatik eta esaten zizkien hitzegatik. Hori zela eta, neronekin egin nion eskutitza esanez Lagundiko eginbideetarako ezgai ikusten nuela. Arras umilki erantzun zidan: anai laguntzaile izateko eta zernahi jasateko prest zegoela Lagunditik ez ateratzeagatik. Atseginez entzun nuen hori, baina hara non egiten didan beste eskutitz bat egun gutxiren buruan guztiz bestelakoa, agian inork burua berotu ziolako, behiala onduak zituen literatur lanak, bere lagunak txalotuak, aipatuz eta harrokeria pixka batekin aditzera emanez ez zela hain traketsa Lagundian ikaskizunak egiten segitzeko. Bigarren gutuna baino lehena atseginago izan zitzaidala erantzun nion, bigarrenean “joko oilarra” (“gallus gallinaceus”) —hau hark eginiko itzulpena da, nik “gallo de peleas” esaten nion— zirudielako. Bide batez haurrei esaten zizkien hitz itsusiez ohartxo bat egiten nion.

Probintziala eta erretorea bat ez zetozeela: nondik daki hori Ormaecheak? Batak bata, besteak bestea esan ziola; ez biek guztia; baina hori ez da bat ez etortzea. Kontzientziako kontuaren sekretua hautsi zuela erretoreak? Nondik atera du hori, esan nion guztia ikastetxeko bizilagun guztiek ahotan baitzerabilten?

Beraz, lehen ere izan ditut zalantzak eta orain berriro ditut: ez dakit Lagundian bizitzeko gai den. Erljioso den aldetik ez du esankizunik, suminaldi gori eta batbateko horiek izan ezik; bere onetik irtereta eta burua galtzera isuri samarra dirudi. Seigarren urtearen ondoren erabaki nuen joan zedila teologia ikastera, Xabierko kontseilarietatik biek bederen ez baitzuten deus haren kontra. Egia esan, bi horietatik batek bizpahiru hilabete geroago iritzia aldatu zuen, baina ez nuen gehiago arazoa nahastu nahi izan.

Beste gauza bat: Oñara iristean “cursus minor” —era eratsi zutela jakinik bere lagun bati keixatu zitzaion esanez “De universa Philosophia” azterketako notak guk aldatu genituela eta gutxitu, ziur omen zegoelako ongi burutu zuela azterketa, egia oso besterik delarik, bi “superavit” baizik —bat “aegre” gainera— ez baitzuen irabazi eta beste hirurak “attigit”. Horrek berorrek ez al du aski erakusten —ez baitzuen baieztatzeko frogarik eta halere segurantza osoaz baieztatu baitzuen, entzun zionak berak kontatu zigunez— adimendua okertuxea duela?

Egun gutxiren buruan, Otsailaren 22an, Ledochowsky-ren erantzuna aita Lezari: Ez zenuten igorri behar teologiako ikaskizunak egitera; beste bizimodu bat proposatu behar zenioten. Orain bada, oso arrisku handia baillizateke, Ormaechearen aiurria eta izaera ikusirik, hori Lagundian



apaiz izatera iristea eta erlijioso den aldetik ez baitu esankizun larririk Lagunditik gogoz kontra jaurtitzeko, argi eta garbi eman behar zaio aholku anai laguntzaile izatera pasa edota bere oldez Lagunditik irten dadin. Irteteko agiriak idatziz eskatzen baditu, bertantxetik ematen dizut esku kanpora dezazun.

Probintzialak ez zuen nonbait garbi ikusten hori nola egin zitekeen eta Jeneralari karta egin zion bere kezkek azalduz. Honek Martxoaren 18ko beste batean lasaitzen du honela idatziz: Lagundian apaiz izatea ez zaio galerazten hoben edo erruren bategatik, baizik bere aiurri eta izaeraren berezko makurragatik, ezen Lagundian apaiz izatea lagunarteko bakearen eta ongiaren kaltegarri litzateke, bai eta bere buruaren etengabeko ezinegon eta artegatasun iturri. Nork daki, aldiz, Lagunditik kanpo eta mendetasun lotura gutxiagorekin ez den herri apaiz bipila izango?

Ekainaren 4ean aita Gabriel Vilallonga bilbotarra izendatu zuten Probintzial aita Lezaren ordeaz eta hark honako karta hau Ledochowsky-k sinaturik hartu zuen Erromatik Uztailaren 30eko dataz: Ormaechearen gutuna hartu berria dut. Honela dio: "Aita Probintzialak eskatu dit zuri eskriba diezazudan. Ez diot ongi aditu, ez dakit berak ere ongi aditzen duen, zergatik proposatzen zaidan Lagunditik irtetea. Ikastetxe honetako erretoreak ez behin, baina birritan oso ongi portatzen naizela; Probintzialak ere berriki gauza bera... 'Ezdeus al naiz, ala?', galdegin nion, aita Lezaren gutunak halako zerbait susmarazten baitzidan, eta hark: 'Inondik ez, eta ez dut ere uste aita Lezak hori esan nahi zizunik. Ez da dudarik Lagundirako gai zarela'. -'Zer, bada? Abertzaletasuna al dugu berriz ere auzitan?' -'Sines nazazu: ez eta hurrik eman ere'. -'Hortaz zer?' -'Agian aita Jeneralak baduke zure Magisterio garaiko zenbait argitasun eta beldur dateke lagunarteko bizitzarako ez ote zaren gozakaitz samarra'. Hala dio berak; egia den ala ez, zuk ikus; nik jakinaren gainean jartzen zaitut. Horrez gain aita Lezak Otsailaren 10ean egin zidan eskutitza ezagutzen dukezu, noski, bai eta nik hil beraren 22an eta Martxoaren 18an idatzi nizkionak. Han duzu garbiro nere burubidea; lehia zaitez han esana burutan ematera. Ormaecheak ez duela bata ez bestea onartzen? Ez utzi teologiako ikaskizunetan aurreratzen; atera lehen bait lehen Oñatik eta igor haurren ikastetxe batera. Egiten dukezun guztiaren berri eman neri".

Urriaren 8an aita Ledochowsky-k Orixeri eginiko eskutitzaren aldakia igortzen dio aita Lezari, hau Probintzial-orde izendatu baitute aita Vilallonga gaixotu delako, eta aita Lezak Loiolatik honela erantzuten dio Urriaren 17an: 'Hartu nuen aldakia. Ormaecheak otoitu baitzidan ez nezan Xabierera igor, harik eta zure erantzuna har zezan arte, hala egin nuen, baina orain berriro idatzi diot esanez joan dadila hara luza gabe. Ez doala esaten badit, eta kapaz da, mendetasun santuaren pean aginduko diot eta jakineraziko Lagunditik kanporatzeko arriskuan jartzen dela; hala ere obeditzen ez badit, hiru egunen buruan berriro aginduko diot.

Esadazu zer egin behar dudan bitan esana betetzen ez badu: Lagunditik irteteko agiriak sinarazi? Oso buru-iritzi dela iruditzen zait, berak erabaki behar balu bezala Lagundian zein mailatakoa izan behar duen”.

Barka, baina ez du merezi, nik uste, honen xeheki Orixeren atze-aurreak kontatzen jarraitzeak, nekagarri baitira maiz fraileen arteko ikamikak. Puntu nagusiak gainera agertuak daude oraino jalki ditudanetan. Gero gertatuak laburkiago adieraziko ditut. Beste bi gutun igorri zituen Orixek Batikanoko Erlijiosoen Kongregazio Sakratura, Lagundiko Agintariek urte haietan izan zituen jardunaldien berri emanaz, eta aita Ledochowsky-k horien kopiak igorri zizkion aita Probintzialari, haietan Orixek kontatzen zituenean garbitasuna eman ziezaion. Horretarako aita Bianchi eta aita Armisengana jo zuen eta Orixeri buruzko zenbait agiri eta txosten zahar igorri zion Jeneralari, ez kopiak atereaz, baizik egin zirenean egin ziren berberak, Batikanon sinesgarriago izan zitezen. Horiekin batera idatzi zion gutunean badira hitz batzu hemen agertzea merezi dutenak. Honela dio aita Vilallongak, bere gaitzetik sendatu eta berriz Probintzial lanetan hasi berria zenak: Denbora gutxi daramat Probintzial karguan eta behin bakarrik mintzatua nintzen Ormaechearekin. Ez nekien segurki zergatik eman zitzaion Apirilean aukera hura: edo anai laguntzaile edo kanpora. Banuen, ordea, susmoa biotako bategatik emana zitzaio-la: eri zelako edo bestela ezgai nolazpait, “ez noski Lagundiko eginbide guztietarako ezgai, ene ustez, zeren aski adimendu nabari baitu, geuretako askok aitortzen dutenez, bai eta erdi mailako jakitatea baino gorago-koa latinean, gerkeran eta bereziki euskaran”.

Erlijiosoen Kongregazio Sakratuko Idazkaritzak eskuratu zitzaizkion agiri eta txosten guztiak ongi ikertu ondoren, honako hitz hauek gehiagoren artean egin zizkion Batikanoaren eta Lagundiaren arteko arazoan Arartekoari: “...questa Sacra Congregazione tutto considerato non crede di intervenire ad obligare i Superiori a ritirare la fatta ingiunzione...”; ez du uste, alegia, sartu behar duenik Lagundiko Agintariei gibeleraztera Ormaecheari ezarri dioten agindua; eta geroxeago, egin behar luketela “invitarlo (Ormaechea, alegia) a considerare se non gli venga meglio accettare il consiglio del Preposito Generale di lasciare cioè la Compagnia”; esan nahi baita, gomita egin, pentsa dezan ez ote duen hobe Jeneralak ematen dion Lagundia uzteko burubidea onartzea.

Batikanoko hizkuntza dugu hemen: “...ez du uste sartu behar duenik Agintariei gibeleraztera...” eta “...gomita egin pentsa dezan ez ote duen hobe...”. Aditzera eman zion hori Arartekoak Orixeri eta honek Apirilaren 6an erantzun Lagundian irauin nahi zuela, apaiztuko ez bazen ere; ez ordea anai laguntzaile izatera aldatuz, baizik betiko eskolarior izaten jarraituz eta bizi osoan gramatika irakatsiz. Jeneralaren erantzuna: “Kongregazio Sakratuak erabakia egin behar duzu: edo anai laguntzaile bilakatu edo Lagunditik ateratzea eskatu, betiko eskolarior izatea ezina

baita Lagundian. Hobe duzu ez gehiago gogor egin Agintarien erabakiri eta Lagunditik ateratzea eskatu. Jainkoak emango dizu kanpoan ere grazia zeure arimaz arduratzeko eta haren aintzari zerbitzatzeko". Aldi berean aita Probintzialari erantzun hori jakinerazi zion eta eskatu ez ziezaion Orixeren nahiari amore eman; ken zezala irakaskuntza lanetatik eta anai laguntzaileen etxeko lanak eginerazi ziezazkiola, Lagunditik irtea eskatzen ez bazuen.

Probintzialak orduan Erromara: Aspaldixko utzi erazi zizkiola eskolak; harrez gero Ebanjelioa euskaratzen ari zela Xabierren. Orixeri beste eskutitz batean galdegiten ziola ea eskatu behar zizkion ala ez irteteko agiriak. Ezezkoan Ameriketara destinatuko zuela Ekainean, han anai laguntzaileen lanetan ari zedin.

Jeneralak bere aldetik: Irten nahi ez badu eta bai anai laguntzaile izaten hasi, esaiozu Lagundia prest dagoela horretarako, non eta froga bat egin eta erakusten duen anai laguntzaile izateko balio duela. Espainatik alde eragiteko asmoari ongi deritzat.

Handik egun batzu geroagoko beste eskutitzean: Ormaecheak egin dizun gutun berria irakurri dut; ezagun du burua nahastuxea duela. Ez eman amore eta ari dadila bakarrik anai laguntzaileen lanetan.

Hona buruenik Erromako azken eskutitza aita Vilallongari: Hartu dut Uztailaren 14eko zure gutuna, non adierazten baitidazu erabaki duela Ormaecheak Lagundia uztea eta denbora pixka bat eskatu irteera prestatzeko. Zuk ikus zenbat luzatzen duzun; gehiegi ez. Egin itzazu nolana ere ahalak Jaunaren bakean eta bozkarioan atera dadin. Gomendiorik edo laguntzarik eman ahal badakio, eman pozik, ez baitago bere borondatearen gain bakarrik irtenerazteko arrazoia.

Aho txarra, badakit, are mingotsa eta garratza egin digu guztioi, zuei eta neri, ixtorio triste honek. Nahiago nuke, egia esan, bestek kontatu balu. Ez da inor atera irabazle, bai guztiak galtzaile, ene ustez: Orixe, erreminak eraginik, ausarta izan zelako Batikanora jotzen; Lagundia, kupidagabea izan zelako, Orixe aldegin zezan bide guztiak erabiltzen. Badakit ere ez dudala betiko galdera garbitu: atera egin zen ala aterarazi egin zuten? Biak esan daitezke eta aurrera ere biak esango dira. Gaurdanik badugu, ordea, lehen ez genuen zenbait argitasun eta xehetasun. Ez diot nik galdera horri erantzungo; nik adina dakizue oraidanik eta ni bezain gai zarete erantzuteko. Hirugarrenik eta azkenik, badakit ere Orixe Lagunditik atera zela nahiz aterarazi zutela eta, izan direla gure artean poztuak eta tristatuak. Ni, egian esan, azken hauetarikoa nauzue eta, beste arrazoiak beste, Orixe bera ere tristatu zelako. Lazki eta minki tristatu ere! Poztu izan direnen arrazoia ezagutzen dut: ez zukeela Lagundian burutuko kanpoan egin zuen euskal lan itzala. Hauei ez ote lieke, ordea, Orixe hain minki eta lazki tristatu izanak pentsarazi behar, Orixe berak edo

euskal idazle izatea baino hobesten zuela jesuita izaten jarraitzea, edo —hau agian seguruago— ez zuela uste Lagundian irauteak euskal idazle izatea galeraziko zionik? 1923ko Irailaren 29an sinatu zituen irteteko agiriak Xabierren eta jesuita izatea utzi zuen.

Hemen amaitzen da nere lana, ez ordea erabat Orixeren eta Lagundiaren arteko lotura eta harremanak. Gogoz eta bizimoduz jesuita izaten jarraitu zela esan behar. Ez zuen inoiz Lagundiaz ukatu; ez zioten ere inoiz —ez genion— jesuita askok geure atxikitasuna ukatu. Estefania, Arcitio, Olabide, Leturia, Belderrain, Argarate eta ehunka gehiagoren —euskara maite ez ezik landu ere egin dugun— jesuita guztion bihotzean txoko berezia izan zuen, du eta izango du beti Nikolas Ormaechea Orixe handiak. Hemen duzue, diodanaren lekuko xume, Orixek 1933ko Orrilaren —hala dio berak— Sean Orexatik “Argarate, Zaitegi et reliquis” eginitako eskutitz bat Belgikara.

Baina nik beste eskutitz batez emango diot azkena txosten honi, Jose Mari Aranaldek Añorgatik 1973ko Azaroaren 5ean Orixeren lehen-gusu txiki Juan Dorronsoro jesuitari egin zionaz. Honela zioen:

“Agur, biotzeko Joan:

Atzo jaso nuen zurea ta or dijoakizu nere erantzuna. Osaba zanak, biali zuten egunetik, ez zuen berriro jesuitetara jo atea beste asmorik izan. Ortik bota zutelako, Jainkoak ere gaitzetsia izan zitekelakoaren kezka urtetako inpernu gorria erakutsi zion. Kezka ori noizbait bota zuen, eta bein pakeatu zanean, amets bakarra gelditu zitzaion: bota zuteneko etxe artan berriro ate aunditik sartu, au da, apaiz izatekotan, ortarako izan nai baizuen jesuita, batez ere.

Arek gogo ori bazeukan, eta jesuita batzuk sarrera eskeintzera etorri ere egin zitzaizkion; baina azkenerako ez sartzea erabaki zuen, ez berez, nik uste, lagunaren esanera baizik. Eta jesuitetakoa alde batera utzi ta apaiz izateko baimena eskatu zion gotzaiari. Ori da guzia”.

Nerea ere bai, hauxe da guztia. Jainkoak arratsalde on dizuela.

## **EUSKALDUNAK: ORIXE BERE BERRI EMATEN, EDO EGILEA PROTAGONISTA**

*Uitzi, 1988-XI-27*

*Joxe Mari Aranalde (\*)*

Agur, entzuleok, euskaltzain eta beste, uitziar nahiz kanpoko. Zatozte guztiok nerekin. Goazemazue "Erralde" baserrira.

Negua dugu. Hotz da kanpoan. Ilundu zuen aspaldi. Isildu ziren arratsaldeko ingurutxoentuntunak eta dantzari dibertitu den gaztejeandearen iji-ajak. Hontzen txanda da orain. Tabernazalaren batzu ez beteak beren etxeetan dira.

Baina ez danak. Uitzin agertzen da igandeetan herri horretan etxerik ez duen zenbait gizaseme. "Basagizonak" (VII 49) dira. Astegunez ez ditu inork ikusten herrian. Artzain dabilenak bakarrik egiten ditu topo mendian, beren txondar inguruetan. Hauek ez daukate etxerik Uitzin. Basoko txabola dute beren etxe gizaseme zaildu hauek denak. Han daukate zain beren "kamaina" (VII 609) lotarako. Baina ez dirudi presa haundiegirik daukatenik beren etzauntza horietara biltzeko.

"Jai egin eta, goiko ostatuan oi baino obeki afalduz/basora baino len, an genituen adiskidengana agertuz" (VII, 49). Ez doaz zuzenean txabolara. Errekaldera datoz, gaur gu bezalaxe. Sukalde bero hartan bukatzen dute beren igandea.

Ez zekiten asko "Iriondo Ataun'go seme prestuak" eta "Beltza" bertsolariak eta "Irube Donamartikoak" eta "Kosko" "epotxak" eta "Zarauzko Letek" eta "Bustintza Mañari'koak" eta "Oartzun'go Mitxelenak" (VII, 89-145), berriz esanda ere, ez zekiten asko beren izenak betirako josiak geldituko zirela norbaiten buru-bihotzetan, eta norbait horrek bertorik ederrenetan kantatuko zituela eta goretsiko sekulako. Ahaztuak

---

(\*) Oharra: *Euskaldunak* aitatzen den guztietan, eta besterik esan ezean, lehen argitalpena da (Itxaropena Argitaldaria-Zarautzen-1950), eta xifrek, kapitulua edo kantua eta beraren bertsoetako bat adierazten dituzte.

dira gizon haiek Uitziko mendietan botatako izerdiak, eta itzaliak beren oihuak eta zerra nahiz haizkora hotsak. Izenak hor daude, ordea, euskarak diraueno. Nolako begiak jartzen ote zituen gure lekuko honek, gizon haiek sukaldean sartzen ikustean “igande gauez ta neguz” (Vii, 49). Entzun dezagun bera, “igande gauez ta neguz” basagizonez betetzen den sukalde horren berri ematen.

Kantu bat osoa eskaintzen dio sukalde honi eta gaualdi honi gure lekukoak. “Denok bat” du izena. Hona lehen bertsoak:

“Negu luzean bost ipui eder / egun ta ardazleetan.  
ikasi nitun, artazuritze, / garbari ta ardazleetan.  
Gaualdi bat dut ezin-utzia / istori labur onetan,  
ua baitago ezarrienik / euskaldunen biotzetan.

Ortakoz, aipa-bearra dizut / azi ninduten sukalde:  
ain zuzen, etxe aren izena / len dakizun “Errekalde”.  
Nere lenengo euskal-eskola, / nere sortetxeko alde.  
Euskalerriko biotza dut nik, / artaz nai baduzu galde.

“Elbarren” zaion auzoan dago / errian dan aundiena;  
goiko auzoan balego, buruz / ager liteke gaillena.  
Errekatxo bat ondoan: ikus / egoki dun ez, izena;  
larraïña goien, iru sukalde, / berria irugarrena.

Aur nintzalarik, bi ama-alaba / banetan ziraden bizi.  
Txikienen alaba unidek / arretaz ninduan azi.  
“Beste sukalde” zitzaionera / zenbat aldiz nun igesi.  
amonordeak —zeruan bedi— / al du gaurgeroz ikasi.

Artzai bazera, badakizu zer / dan arkume gaitzetsia”;  
—praile bizardun batek jarria / ori nun izengoitia—.  
Ainak(arek), ama bat, bi ere ez aski / gose-erasana guzia;  
beti erkitu geldibearra / ama geigoren isia(gutizia).

Ama gisoak, aurraldi batez, / titi baiñon au geiago:  
ez nindun gaiztoz goseak utzi. Gaurgero zeruan dago.  
Azken jaioa nintzalako, ni / besteak baiñon aulago;  
bi iñude ta ama baiño / amona ez nun gorrotoago”.  
(VIII, 1-41).

Horra Orixe bere berri ematen *Euskaldunak* poeman. Eta irakurri dugun zati horretan, bere bizitzako berririk garrantzitsuena ematen digu. Entzun berriro bertsoa: “Ama gaisoak, aurraldi batez, / titi baiñon aur geiago”. Horra hor zoragarriro esanik Orixe Uitziko Errekaldeko sukaldean egotearen arrazoia. Beste bi seniderekin sortu zen mundura, eta titi bila etxetik kanpora joan behar, hura argira agertzerako amaren biak hartuak bait zeuden. Eta nora eramango gure Nikolas txikia, eta Uitziko

Errekalde baserrira. Arroxa Ariximuño izango du hemen inude, eta honek emango dio beraren amak ezinez ukatu zion titia.

Orixek ez dauka saltzeko ama-ordeko andre hau. Egokiera duen aldi oroz aitatzen du bere olerkietan, eta *Quito-n arrebarekin* liburuan. Eta ez ama Arroxa bakarrik. Familia osoa aitatzen du eta aupatzen Orixek. Entzun betirako idatzirik geldituko den aitorten biribil hau: “Azkenean iñudeari gaztiratu (Orixek Orexan ezin zuela etsi ikusita), eta an etorri omen amandre Mari-Axuntxi, ni bizkarrean eramatera. Lau orduko bidean mendiz. Oso maite nindutenan yende aiek, batez ere amonak, gerta oi dana. Askotan entzun nitenan guraso neuzkan aieri: Guri etzaigu beñipein iduritzen ere, gure ez dugunik. Geron lenbiziko aurra il zitzaigunean ekarri genun bularrera. Berak ere ez du etxera griña aundirik gizagaixoak.

Lekunberrira edo Leitzako Erasoteko Bordetara yuaten nintzanero, beti lelo bera zunan Etxarri zaparariak: Mutiko au zerea duzu?; ta ordun berritzen zunan gertakari guzia: iru yaio giñala ta azitzera ekarri nindutela; i Aresora eraman indutela, ta etxean azi zutena il egin zitzaiea. Nik, berriz, alako naigabe bat banenunan, yende on aiek guraso ez nitulako, edo ez nitula esaten zidatelako. Egiazko gurasoak guraso nitunik ez siñestu nai. Esanago ta gutxiago. Ez dinat oben aundirik, nere ustez”. (*Q.A.*, 40 orrialdea). Eta 44 orrialdearen haseran beste aitorten biribil hau: “Halako yende onik ez nenunan arkituko billa ibillirik ere”.

Merezi zutela uste dut uitziarrek aitorten eskertsu hori entzutea. Eta merezi, batez ere, orduko errekaldearrek. Bihoakie euskaltzale guztion eskerrona eta txaloa.

Baina sukalde hari eta jende haiei egiten zaien omen honetan, badugu norbait denen artetik bereiz hartu beharrekoa. Seinalatu du Orixek berak, lehen irakurri ditugun bertsoetan. “bi iñude ta ama baiño amona ez nuan gorrotoago” entzun diogu Orixeri. Hor ez du ematen amona honen izenik. Ez digu esaten ere ama-ordekoaren edo aita-ordekoaren ama duen. “Mari-Axuntxi” du izena eta aita-ordekoaren ama da, “aita zapatariaren ama”, berak dioen bezala (*Quito-n arrebarekin*, 44 or.). Orixek zergatik zuen bereziki maite —“ez nuan gorrotoago” hori da— amona hau jakiteko, sukalde horretatik atera beharra daukagu. Baina oraindik ez gaitezke atera. Bilera eta gaualdi horiek poema egilerentzat zer izan diren esan baino lehen ez behgintzat. “Pestaburu” lehen kantuko bigarren bertsoak erakusten duela ederki esango nuke gauza hori. Hona zer dion:

“Lapurtarrek erakus belar-sega-lanen;  
Bizkaitik etor ziren txondarrak egosten;  
giputz iaioak ere baziran zur-lantzen...  
Bost ipui eder orok emen erein zuten”.

Euskal Herri osotik etorritako jende horiek ditu Orixek bere inspirazio-iturri poeman. Horien ahoetatik jalkitako “arnasa” da berak “manitu” diguna. Ohore, beraz, gizon haueri, Errekaldeko sukalde hartan gure “erritasuna”ren (IX, 222) ederra erein zutelako mutiko haren bihotzean. Eta horrenbestez atera gaitzke sukalde horretatik, amona-ilobekin mendira joateko. Ilobak amonari dion atxikimendua zergatik den, mendian dugu jakitekoa.

“Letari” izeneko kantuan ematen zaigu geretakariaren berri. Mikel Eleder da kontatzailea, eta Garazi Gerrieder entzulea. Hona:

“Lenengoz atera nun kabitik mokoia;  
 (artean soil nekian erriko zokoa)  
 larranbillutan giñan: “Zanbat da mundua?”  
 esan nion; eta arek: “Aaundi...Jaungoikoa?”  
 Bein ere etzait aztuko ango zirrakoa”.  
 (IX, 181)

“Entzelai” deritza amona-ilobak “larranbillutan” dabiltzan leku hori, kopiatu dugun honen aurreko bertsoan esaten zaigunez. Orixe irakurri duen edozeinek, neke haundirik gabe, asma zezakeen, noski, amona-iloben arteko gertakaria idazlearen beraren eta Errekaldeko amonaren artekoa behar zuela izan. Baina ez dauka inork asmaketan ibili beharrik. Aski du *Quito-n arrebarekin* liburua hartzea eta 51 orrialdea irakurtzea. Hona nola ari zaion bere arrebari “Bolibi’ko zabaldua” dekrizatzean: “Amona Mari Axuntxiz oroitu nintxinan”. Eta arrebak: “Zergatik hartaz”? Eta Orixek: “Uitziko Entzelaira mutiko lenbiziko arekin larranbillu biltzera atera nintzanean, an ikusi nitunan, Uitziko kabi txiki artatik aterarik, alderdi batean Aralarko malloa, ta bestean Berueteko, Ezkurra-ko, Leitzako, Goizueta aldeko mendiak. Ordun esan nionan: “Zein aundi ote da mundua”?, ta, “aundiago Yaungoikoa” esan zidanan. (*Q.A.*, 51 or.).

Hona ziur ikasi orain poemako gertakari hartako pertsonaiak egiazki zeintzu diren. Ez dira Mikel eta bere amona. “Mikolas” eta Mari Axuntxi dira. Jainkoak bestek ez daki amona-iloba hauen artekoa zer izan zen, eta amandre hark haur harengan nolako eragina izan zuen. Ez da dudarik, Orixeren izaera gehien markatzen eta erabakitzen duen pertsona, amonordeko hau dela. Horregatik bereizten du Errekaldeko guztienartetik eta bere bizitzako beste guztienartetik. Hau ere komeni zela uste dut uitziarrek jakin zezaten.

Ez dira hor bukatzen Orixek bere buruaz poeman ematen dizkigun berriak. “Amonaren illetak” kantuan, “Apezen pilota jokua” deitu zatian, honako hau irakur dezakegu:

“Xaldi gaiñean Baraibar’koa / -aurrera baitzoan urtez-  
 etxera asi da. Esku zabala, / dirurik ark ezerten ez.  
 Meza ari denek lagundu nai ta / genbiltzan ito-bearrez:  
 amar sos eman zizkidan bein, ta, / ez ni etxera negarrez.



Etxean, berriz, atsekabea, / dirua ostu nuela.  
 Orduan negar. Emanan nunik / ez adirazi berela.  
 Luzaro bage sinetsi zuten / ark emana zitekela.  
 Oinbeste gabe itzuliko zen / Baraibarra aren sakela”.  
 (XV, 617-625).

Nolako pena hartu oten zuen amona Mari Axuntxiren “mutiko txintxoa, mutikoa ernea” omen zen hark, etxean lapurtzat hartu zute-nean! Eta nolako malkoak lertu oten ziren haren begi bietan!

Eta guztia zergatik, eta Baribarko apez eskuzabalarengatik. Zeinen ederki pintatzen digun Orixek “xaldi gaiñean” apez zaharra. Azken urte-tan itsutu egin zela? Bagabiltza hura baino itsuagorik bi begietan argiare-kin. Baina utz dezagun apeza eta segiogun poemari.

Nik esan behar banu, Orixek ez da ageri poeman negarrez, etxean lapurtzat hartu zuten hartan bakarrik. Neri Nikolas dela iruditzen zait “Iñauteriak” kantuan, “Emakunde” deitu zatian, negarrez dagoen hura ere. Emaztekiek eguna da. Eta haurrek etxez-etxe puskak biltzekoa. Bildu ahala burruntzia-puntan sartu behar dituzte xixtor eta bastelako puskak. Baina horretarako burruntzia behar. Hona haur baten arazoa:

“Aur bat exean negarti,  
 ez dula burni-burruntzi;  
 aita ein dio lizar zuzenez,  
 aitzoz koska, burniz gori gori.  
 Erdi-lotsaz ba doa auzora;  
 negarra doi-doi du geldi.

Lenen atean asi da  
 bildurrez “ziztor-miztor”ka.  
 Andre xaloak ekarri dio  
 jan-aldi on bat lukainka.  
 Goxoagorik izketan dio:  
 “Ori burruntzia apaiña!”.

Beste atetan berori.  
 Poztu diote belarri.  
 Etxeratzean, barna zabalduz,  
 adierazi aitari.  
 Ark: “Tutulu, ez nin esaten?  
 Urrena siñesta neri”.  
 (VI, 193-205).

Badut gauza politik irakurririk; baina hauxe baino politagorik! Zein da etxeoandre horien jendetasun errukibera eta diplomazi fina ederkiago adieraz ditzakenik? Zain, haur horren hiru momentuak ederkiago eta laisterkiago adieraz ditzakenik? Eta aita hori? Eta zeinek ez du haur

izengabe horrengan Nikolas irakurtzen eta ikusten? Nik bai behintzat. Familia behartsu hartako mutiko behartsu hori Nikolas da dudarik gabe.

Nikolas den bezala, nik uste, maiteari gaztainadian kantuz ari zaion mutila. Dena irakurtzeak luze joko liguke, eta bi bertso bakarrik. Honako hauetxek:

“Labainak ditu maekak, baina / saskittoa tinkatzeko  
naiko nabari. Nekez ikusi / ditiot beso ta zango.  
Uretan inoiz luze, biriril, / oiala bai; o zurigo;  
zenbaitez ere belarrekoan / larrak odulduta gero.

Gerria berriz... artatik dizu / Gerrieder izenondo.  
Aren mintzoa zein biguin ote? / Oso bakan zaigu mintzo.  
Olloai deika goizean goizik / noiz baiño noiz nik entzungo;  
ta nere saiets igarotzean / agur doi doi bat esango”.

Bi bertso hauen aurrekoak eta ondokoak ez ditugu irakurri, baina zazpi badira maite-kantu horren bertsoak. Nik bi hauetan ikusten dut, hala ere bereziki, Orixe bera dela Uitziko neskatxaren bati kantari ari dena.

Emakumezkoak arropaz orain baino jantziagoak ibiltzen ziren garai haietan, ikus nolako egokieraz baliatzen den gure gizona nexkaren gorputzaren berri ikasteko. Eta ikus nola dauzkan gogoan! Eta mintzoaren hori? Maitearen zantzen egarririk egon behar da benetan eta maitemindurik, goizean ordu horietan oiloak gobernatzen ari denaren purra-purra ere entzuteko. Eta ez ahazteko? Horiek ere eragin egiten nonbait bihotzeko suari. Xehetasun zoragarri horiek denak, nik uste, maiteminduaren bihotzak bakarrik gorde ditzake eta gogora erazi maiteari esateko, maitasunaren haundia agertuz. “Gaztaiñaro” kantuko Mikel hori, nik esan behar banu, Nikolas ber-bera da.

Eta Orixe bera dugu “Eztaiondo” kantuko “Estropadak” zatian ezkonberriei norgehiagoka horren berriak zoragarriro ematen ari zaiena. Behin baino gehiagotan entzun izan genion, berak puntu horietatik guztietatik ikusi zituela estropadak kantua egin baino lehen.

Bera dugun bezala Orixe, txerria hiltzerakoan hiltzailearen hankapatik ateratzen ez dena, eta gero amonaren esanera eta arrebarekin sesioan odolkiak partitzera doana. Zeinek bestek, protagonista izan gabe, jaso eta gorde zitzakeen detaile horiek guztiak? Eta bera ere da, tximista hasten duenean, bere ondoan daraman nexkak bezala aitaren egiten ez duena, gizonago agertu beharrez. Eta non ez da Orixe bera protagonista *Euskaldunak* poeman?

Honetan bukatzen dut, entzuleak, nere hitzaldia. Barka bekit hala ere eraskin txiki bat hitz bi esateko. Hauetxek: Orixeri omen egitean,

Uitziri eta uitziar guztioi egiten dizuegula omen, eta bereziki errakaldetareiri, eta baitipat amona Mari Axuntxiri.

Bihoazkizue denoi gure eskerrik beroenak, Nikolas Ormaetxea haurra hain goxoki hartu zenutelako eta hain maiteki hazi eta hezi zenutelako. Milesker!



## IZAERA ETA OFIZIO BEREZIKO PERTSONAIEN ERRETAULA “EUSKALDUNAK” POEMAN

*Uitzi, 1988-XI-27*

*Juan Mari Lekuona*

Zer giza mailako pertsonaiez hornituko dugun gaurko erretaula zehazteko, bidezkoa derizkiot zein giza sailez ari gaituzun aipatzeari. Oso mugatua eta berezia da hemen adieraziko dugun giza klasea: poemako mundu itsian agertzen diren kasta, ofizio eta talde berezietan kideko diren gizon eta emakumeak.

Argigarri eta ulerbide har dezagun J. Caro Barojak bere *Ensayo sobre la literatura de cordel* liburuan, gizarte maila eta estratoei buruz eginiko sailkapenean dioena. Lau estrato bereizten ditu: 1) aristokrazia, 2) klase ertaina, burgesa ere izenda litekeena, 3) klase herrikoia edo “baxua” eta azpikoa deiturikoa, 4) kasta eta talde bereziena (1). Eta esan dezagun hasteko, hirugarren eta laugarren mailez ariko gaituzula eskuarki, baina laugarrengoak ditugula bereziki gogoan eta egitasmoan.

Horregatik, nahiz eta poemako pertsonai gehienak hirugarren estratokoak izan, guk hemen izaera eta ofizio berezia dutenak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Ez ditugu eskainiko protagonista nagusiak, ez nekazal eta beste ofizio herritarturikoa duten gizon eta emakumeak, ez erakundetako buruzagiak, ez gainerako “status” jakinetako pertsonaiak.

Gure ikus-helburu dira eskaleak eta ijitoak, ikazkinak eta mantenu-trukeko langileak, danbolitero eta bertsolariak, kirolari eta apostulariak, ardosaltzaile eta harakinak, garbari eta sorginak, talogile eta zamarginak, beor-zun eta moxkor, autorearen gogoko andre zabala eta Baraibarko Apaiza... Lana eta festaren inguru mugitzen diren kristau klaseak, tradizioaren eusle, jaien suspertzaille, ogibidearen esklabu, herriko sentimentu bizienei su ematen dieten protagonista bero, pasiodun, gatz eta piperra. Guzti hau litzateke guk gogoan hartuko dugun giza multzo arretagarria.

---

(1) J. CARO BAROJA: *Ensayo sobre la literatura de cordel*. “Círculo de Lectores”. Barcelona, 1988, 33 or.

Bestalde, pertsonaien *erretaula* esatean, zera bakarrik kontatu nahi dizueta: lauki, iduri eta koadro modura Orixek ziriborrotu dizkigun aipatu pertsonaien traza. Erretaula estatikoa duzue, kondairarik eta elkarrizketarik gabea. Baina esanahi haundiko irudigintza dugu Oixerena, ipuin-kondaira asko bururatzen diguna.

Lauki bikainok Orixek berak irudikatu eta pintatu dizkigun eran emango ditugu, beraren hitzak erabiliz pertsonaien aurkezpena egiterakoan: berarenak bertsoak, berarenak ikuspuntuak, berarenak barne eta kanpoko antzirudiak. Gehienak historikoak izango dira, noski, nahiz eta pentsa daitekeen asmatu-erako xehetasunik ere egon litekeela, batez ere zenbait izenek euskal kulturako egileren bat gogora ekartzen digutenean.

Gure egitekoa izan da, pertsonaien zerrenda osatzea, bakoitza bere kantuaren barruan kokatzea eta guztietan erretaula bat osatzea, Orixeren piezekin kontaktuz berri bat irakurleari usma-arazten diogula. Dena dela gure idazki honen ekarria, idek dezagun laukien atea, ager dezagun trozuka-trozuka ikusgaiaren figurazio sendo eta koloretia, eta has gaituzen hitzez azaltzen izaera eta ofizio bereziko pertsonaia herrikoei buruz *Euskaldunak* poeman Orixek esaten diguna.

## I

### PERTSONAIK LAUKIETAN KOKATURIK

Urtearen buru egutegiak dagien ibilpideak markatzen ditu eremu eta sail bereziak, poemaren kantuak bereiziz. Personai bakoitza urtegiroak bere dituen lantegi, festa, ohitura eta sinesteetan partehartzaile gertatzen da. Eta urtearen aroiak damaio bakoitzari behar duen tornua.

#### I. PESTABURU

Honela hasten zaigu kontakizun nagusia: “Naparroa zârrean Larraun’*en* Uitziz”. “Ain zuzen pestaburu dute Samigelez” (17 or.) (2). Kasta eta ofizio bereziko pertsonaiak kantu honetan aipatzen zaizkigu ugariarik. Orduan datoz eskaleak, kirolariak, apostulariak, eta orduan du lanetik aski danbolinak. Beraz, festaburuan aintzindari diren pertsonaien aurkezpena egin dezagun.

---

(2) N. ORMAECHEA “ORIXE”: *Euskaldunak*. Facsimil de la Edición Príncipe, con prólogo, enmiendas y glosario de Justo Moco-roa. “Editorial La Gran Enciclopedia Vasca”. Bilbao, 1980. Geure idazkian aipatzen ditugun poemako testu guztiak, Mokoroia Jaunaren argitaraldi honetatik hartzen ditugu.

## 1. ESKALEAK

“Eskaleak ba datoz pestân usaiera  
beleak sarraskira doazen antzera.  
Erri artara dute bereizki joera,  
an aurkitzen baitute iñon ainbat txera” (19 or.).

## 2. IJITOAK

“Etxe igesi dabiltzan esku-kakoairi  
ukatzen ditiete zintzur eta biri;  
atean ez daroite esan ‘Agur Mari’;  
garorik, sutillorik ez dute merezi” (19 or.).

## 3. ZUBIETAKO PONTXO

“Danbolin-soiñua da Amazkar’en bêra  
—Zubieta’ko Pontxo urteroz errira—;  
kabia aizatzen diten txorien antzera  
etxe-barna garbituz aurra atarira” (18 or.)

## 4. SALDITSEKO BELTXA

“An dute bertsolari Salditse’ko Beltxa,  
ziri-bertsoak sartzen ez guztiz aketsa.  
Artan ari izan balitz, ua bai Apeza!  
makurrik sor baledi, usu zuzen leza.  
Beñola gazteño bi bata besterena;  
mutillak bidegabez eman etsipena;  
Beltxak zorroztu zuen bere mî-eztana,  
mutilla aizatu zizun Irati’n barrena” (21 or.).

## 5. GOLDARAZKO OTXANA

“Zaldabean ari da Goldaraz’ko Otxana,  
Uharte’koan noizpait ikazkin izana;  
bertsotarako ez du txarra gogoana;  
bizkai-dantzaz ba daki jakiteko dana” (55 or.).

## 6. APOSTUAK

### 6.1. Epaleari: ZALDIBIKO OKERRA

“An Zaldibi’ko Okerra —agoten belarri,  
(dindil aundiak) eta sudurra are larri—,  
apustu guzietan au dute epailari;  
auziak onek ditu ebakitzen garbi” (21-22 or.).

## 6.2. Balankariak: EZKURRAKO MAKIL

“Ezin-egonez an da Ezkurra’ko Makil  
 —eskuetan beti du balanka biribil—;  
 biâmon-âtsaldean ba du norekin bil:  
 Antso’rengan ba duke arerio bipil” (22 or.).

## ANTXO LABAINDARRA

Satai edo balanka Ezkurrako “Makil”-ek eta Antxo Labaindarrak apostua jokatu ondoren, labaindarra gertatu zen irabazle. Ondoren “oitu-raz ario”, gorazarre hau eskaintzen dio Saldiseko Beltxa bertsolariak.

“Labain’go seme bizkor  
 Gurutz Ansorena:  
 ire goraipatzeko  
 aski duk izena.  
 Aiten aiten aritik  
 zuzen atorrena,  
 ez duk ik lotsatuko  
 balankari izena” (49 or.).

## ERATSUNGO KOXKO

“An da talogilea, Eatsun’go Koxko,  
 kana t’erdi luze eskas, goiez-beiaz sendo  
 —arbi-eraitekoan nonbait aziak jo—...  
 talogiteko behintzat ba duke balio” (22 or.).

## 6.3. Pilotariak: ERRAZKINGO ZAMARGIN

“Errazkin’go Zamargin ez daukat âzturik,  
 naiz esku-uska, naiz larruz ez baitu kiderik” (22 or.).

## TARTIKO

“Betelu’tik Tartiko —pilotari maisu—” (22 or.).

## 6.4. Aizkolariak: URTXUPE BERUETEKO eta

## GORRITIKO GASTESI

“Beruete’tik dugu Urtxupe aizkolari  
 —enborrharen gaiñean txori bat txantxari—;  
 Gorriti’ko Gastesi or dugu begirari;  
 egurgiten astean, au duzu nabari” (23 or.).

Eta jokoan gora-beherak eta apostuen nondik-norakoak ematen zaizkigu aditzera.



## 6.5. Apostuak: BERUETEKO TXORTXI

“Batak urde ernaria, besteak artantxu,  
 âl dunak âl duena bero du jokatu.  
 Beruetetik Txortxik marka dizu urratu:  
 artalde ta âria gal —loregei-bar buru— (50 or.).

## PERU ETA ANKAMAKUR

“Beste zokoan dira Peru ta Ankamakur...  
 Elkarrekin ba dute zenbait mintzo zuur;  
 bat azeria bada, bestea da zakur;  
 bata ankaz luze, baina bestê ez buruz labur.” (30 or.).

“Pestaburu” deritzan kantuan kanpotar jendeak du lehentasuna eta protagonismoa. Danbolina, bertsolariak, kirolariak, apostulariak eta abar. Jende xehea baina alai, indartsua, beroa. Eta hauekin batera, festa-zurri, beleak sarraskira bezala, datozen eskale eta ijitoak, errealismo jakin baten lekuko. Eta jendaki hauek dira tradizioaren suari eusten diotenak, hauek usarioa bizi-arazten duten festa-jartzaileak, urterik urte.

## II. ARTAZURIKETA

“Arta-zuriketa zuten gaeuz Errekalde’n...” (62 or.). “Literatur beila”. baten itxura zuen hartzen lanerako zen bilgura honek, eta bertan ahoz-ahoz hel-arazten eta transmititzen zenez gure herri-literatura. Herrikoak bertakoak edo dira kantuaeren han-hemenka agertzen diren izaera bereziko beilariak.

## 1. Komedigile, zahar eta berri: DANBOLIN ZARRAREN EMAZTEA

“Aien artean, Danbolin zârraren emazte;  
 mihiz arrotuko ditu ango zâr ta gazte,  
 komeri zâr baten bidez emanik ikaste;  
 naiz beste bat asmatzen, zâr ta berri, nâste” (81 or.).

## 2. Ehiztariak gezur kontari: JOANES EIZTARIA

“Jo-ta-ke ari ziraden: Joanes eiztari  
 erdi-bearrean dago egin zûn einkari:”  
 “Onako buru au —dio— basurde-ortzari  
 nik kendua diteke... aurten il nunari” (63 or.).

## BEKAIN EIZTARIA

“Ba du Bekain’ek, ark ez dun eiztari-adoia;  
 begiak nora ditun, an du zizta doi-doia;

—eper, oillagor, naiz erbi— danean aldia,  
etxean badu sarri mokadu guria” (66 or.).

3. Aipamen berezia, hala egokituta: MIKELA OTSANBELAKO

“Mikela Otsanbelako bai Andre zabala!  
—bete dezakenik ez da ark utzi zun itzala—.  
Maisuari agin zion erakus nindezala...  
Jaunak oinbestegatik zeruan dezala” (86-87 or.).

4. Artuburuen lardaskatzaila: ZIMURRIO

“Zimurrio bat ba ginun goizero landetan  
artaburuak urratuz oraindik esnetan;  
—lasarik uzten zituen beti beazketan;  
agerian beste iñoiz txorien pozetan— (63 or.).

Lana, dibertsioa eta eskola, hiruok bateginik artazuriketan. Egin behar-  
raren egin beharrez lorturiko bizitz eta kultur batasuna. Poeman zehar  
leku gehiagotan azalduko den naturaltasuna, arte konposatua, heziketa  
globala. Etxeak berak familia barruko zeregin guztiak bere gain hartzen  
zituen garaietako kultur adierazpen etxetiarrak.

### III. GAZTAIÑARO

Bikote gaztearen historia aipatzen da, eta gaztain biltzean gertatu  
bait litzan aipatu ere. Besteren aholkuz sartua omen kantu hau poema-  
ren barruan (3). Orixerentzat kontagai honetako pertsonai nagusia izenik  
gabeko herria bera da. Baina Gaztaiñaro kantuan leku gehiago dute  
protagonistek, herri-mailako pertsonaiek baino. Hala ere, badago aipamen  
bat, Orixek maisuki marrazten diguna, eta gaurko erretaula honetan lauki  
bipila eskaintzen diguna.

1. Erruki-okelaren bila dabilen neskazaharra: MIKELA BORDA

“Ortzak zorrotzik, su-atzean da  
Mikela-Borda baldana.

---

(3) “Si bien en estilo de epopeya no debe representar papel primario ninguna pareja enamorada —testigos Homero y Virgilio— condescendiendo con el público moderno he accedido a la petición de dos amigos, uno de los cuales me ha proporcionado hasta los nombres de esta pareja secundaria, pero que resulta importante. El personaje primario y principal es el mismo pueblo innominado”. ID., *ibid.*, Colección “Auñamendi”, 100 z., Zarauz, 1976, 69 or.

Amaika baba ta artopil bero  
ango sukaldean jana...

Okotzaundia, begi-ekzela,  
galbaia aiñeko ezpaiña;  
ortzez ederra, agoz betea,  
gaiñez dario mingaiña.  
Oiñak igesi, besoak zintzil,  
koloka du bizkar-gaiña;  
ipurdí, aldiz, galdu-eiñean:  
orra neskazar liraiña..." (128-129 or.).

Gero *Eztaietan* agertuko zaigu pertsonai hau bera, dantzan ari zaigula.

#### IV. IRULEAK

Lihogintzaren nekeak eta penak ditugu kantagai: lanaren astuna eta aringarriak. Herri-literaturazko beila dugu berriro. Eta gorago *Artazurike-tan* esan dugunez, uztarturik datoz hemen ere lana, dibertsioa eta eskola. Gauza berezia bezala, kantu alaien eta kantu mingarrien aukera eskaintzen da. Eta ez da ahaztekoa bertan datorren kontapoesiaren ikuspegia eta antologia. Badu honetan kidesun bat Jaurgainen eta Guerraren irizpideekin (4), gaur baladak deituriko piezetan.

Irri kantuetan badirudi bertako tradizioak agintzen ote duen, denen artean kantatzen direnez, bereizkuntzarik gabe. Baina kanpotarrek ekarritako piezak ere aipatzen dira, hauei ikasiak bait litzan. Ez dira kultur maila eta eskola haundiko artistak. Herri xehea dugu aintzindari berriro ere.

Pertsonaiei buruz esan dezakegu, herritarrak eta auzoerrikoak direla agertzen zaizkigunak. Eta hauetan bat, dirudienez, Orixeri gogoko egiten zaiona, hemen bezala *Eztaietan* kantuan berriro tartekatzen duenez.

#### 1. Langile behartsuak: AZPIROZKO MARTTOLO

MIKELA BORDA

"Ondarrak xêatzeko ba dizu jotzaille:  
Azpirozko Marttolo, maiz an dan eskale.

---

(4) J. JAURGAIN: *Quelques Légendes Poétiques du Pays de Soule*. In "La Tradition au Pays Basque", "Bureaux de la Tradition Nationale". Paris, 1899, 359-409 or. J. C. GUE-  
RRA: *Los Cantares antiguos del Euskera*. "Martín y Mena". Donostia, 1924.

Mikela Bordaren bat sortuko da ardazle.  
Neska bera da, bere lana egingale” (138 or.).

Azpirozko Marttolo hau, kantu honekin zerikusia duen gaiean, “Arreoa erakustean”, han agertuko da berriro ere, zurtasunaren horniduraz ari denean:

“Naiko zurtasuna berak orni baitu,  
Azpiroz’ko Mattoloz (sic) ezin iñola âztu.  
Eskale gaixo onek bost illaun iretsi du  
lio-jotzen! Garazi’k oge bat agindu.

Aren ezkon-ornian zenbat da arek joa!  
Erruki-okelaz bat lan-galdezka doa.  
Etxekal ibil, ez du galdu lan-gogoa;  
gai da âl duna atxitzeko Mattolo zintzoa” (477 or.).

## 2. Emakume langileen suspertzaile: MAIÑAZI

Erdi-irrintzika asten da Mañazi gaillena,  
ukondoa jasorik berotuz barrena.  
Milla aldiz jasoko du jotzean armena.  
Lio-xorta bukatzen ez dabil azkena” (137 or.).

Agerian dago Azpirozko Marttolorentzat duen abegi ona: ezin ahaztuzkoa zaio, maitasunez egiten dio aipamena, langile estimagarritzat jotzen du, eta Garaziren eta honen etxekoen errukia ezezik guztizko begirunea jaso du.

## V. OLENTZARO

Guk aukeratutako pertsonaia izendun gutxi aurki daiteke kantu honetan.

### 1. Txerri-hiltzearen gaibarruan: ARAKIN POTXOLO

“Biâmonez dei dute arakin Potxolo;  
beste arakiñik ez da auzo guzirako;  
urtaroaz jan oi du amaika âmen goxo!  
galtzen ertzetik sabel-zorroa dario” (179-180).

## VI. IÑAUTERI

Festeak bere bidea darama, pertsonaia, ekintza eta ospakizunetan.

Baina tarteka-marketa hor ateratzen zaizkigu herri-maila xeheko pertsonaiak. Erliche haundirik gabeak, baina arretagarriak, ihauterietako umoreari atxekiak.

1. Urteroko bisitaria: MARI ANTONI OIARTZUNGO

“Mari Antoni Oiartzungo,  
ez egun artan paltako.  
Ark ere ba zun mugaren berri;  
ta an izua artu zulako,  
beti usmoka gain-ezpain arroz  
sudur-zuloak gordeko” (212 or.).

2. Ardoketaria: ANTON KOKO

“Anton Koko’k mandoka dakar  
*beltza*, barna berotzeko” (210 or.).

3. Txirula jotzen duena: IÑAZIO DANBOLIN

“Inazio Danbolin,  
txirula garbitu ezin;  
aiza ta ziztu, noizbait uxa du  
tarteaz zedukan zikin.  
Mortxil ordeaz arratzeaz du  
urre gorritziko txin-txin.

Obeki zegola, agian,  
andrearen belarrian,  
Josepe Xipo’k esaten dio  
ikusten duen guzian.  
—Nik ez nian ijotorik artu  
ezkondu nintzan goizean” (212 or.).

4. Zaldabai-jolea: MARIMIL DANBOLINĒNA

“Marimil Danbolin’ena,  
zaldabai-jotzen onena.  
Amalau txintxil, lau kana girgil,  
txirrikaz jantzi du dena.  
Igandero joz, larruak ez du  
lizun-usai apurrena” (221 or.).

5. Dantzan gogotik: KASKAZURIREN OTXANDA

ANIZKO GANIX

“Kaskazuri’rez Otxanda:  
ark eginen dio txanda;  
eskuak bezain zangoak arin  
ditula ager-naiean da.

Emakunde, ta, dantzatu bage  
ua bein ere egon al-da? (223 or.).

“Janaldia bukatzean,  
ezin-egona lurrean.  
Aniz’ko Ganix dantzan asten da  
oin batekin erpiñean.  
Berak dantza, berak kanta,  
almute baten gaiñean” (224 or.).

6. Jokoen estualdiak: XURIO larri aulkien dantzan.

“Estu da gure Xurio,  
gerrikoa baitario;  
an oztopatuz erori, eta  
pagatzea dagokio.  
Denen aurrean lotsa-bearrak  
min aundígo eman dio” (218 or.).

MARIENEO ILLARGI, antzarajokoan zilipurdika

“Mariene’ko Illargi  
baten gaiñean da jarri.  
Ezle ona arren, zilipurdika  
larratza-barna du jaurti.  
Bestên batek –azkena dedi!–  
joko du lurrez ipurdi” (239 or.).

AIZARRENEKO MUXU antzarajokoan

“Aizarrene’ko Muxu  
an dago, begiak irtu.  
Beorra apaintzen ari delarik,  
isatsez du milikatu;  
ez, aurrena bestêk bezala,  
isatsa tontortu balu” (239 or.).

DOMITXI IRURTEKO

“Igaz, Domitxi Irurte’ko,  
arturik beor-ostiko,  
ez zan agertu plaza agerira;  
aurten or da bigarrenago...  
Urkabe aldera doazi  
agiñik âl duten lerro” (239 or.).

7. Aserreak: PERU ETA MATXIN

“Gure Peru eta Matxin,  
mingaiña gelditu ezin.

Ardandegitik atera dira  
 nor geldi txapelarekin.  
 Burrukan eldu baiño lénago  
 itzez luzaro dute ekin” (226 or.).

Aipatu gizakumeok festaren su-biztaile eta eusgarri ditugu. Jende alai, beroa, osasuntsua. Bisitariz, ardosaltzailez, artistez eta parte-hartzaile suharrez honituriko ospakizuna “jainko txikiaren” oroipengarri.

## VII. DENOK BAT

Oraingoan herritar ez diren pertsonaiak ditugu aintzindari. Ikazkinak, zerbait idealizatuz, noski, irudikatuak, gure kantutegiko abeslari bikain eginik. Neguko igande gauetan sukaldean zituzten mendigizonok, “bizi giñanen belarri, biotz,/pozten ipuiez ta kantuz” (255 or.).

### 1. Basagizonen andana: IRIONDO ATAUNGOA

“Guzien buru Iriondo da,  
 Ataun’go seme prestua” (256 or.).

#### BELTXA

“Urrena Beltxa, Euskalerriko  
 jakingai denen gordairu;  
 buruan ipui ainbat ez, baiña  
 sakelan ere bai diru.  
 “Ikazkin beltzak sakela zuri”  
 esana betetzen digu:  
 aren andreak azi detzake  
 izan dituen amairu” (257 or.).

#### IRUBE DONAMARTIKO

“Urrena Irube Donamarti’ko,  
 Amerikati itzulia;  
 ezkon-urtean il andrea an ta  
 senti zun ezin-etsia.  
 Geldi zitzaion diruaz, doi-doi  
 pagatu zuen ontzia.  
 Zeribait eldu bear, ta artu zun  
 basagizonen bizia” (257-258 or.).

#### KOSKO

“Urrena Kosko, lèn esandako  
 epotx, arbiazi-joa.

Esaten baita ziza larrean  
 bein nork ikusitakoa  
 ez dala azitzen? norbaitek begiz  
 geldierazi zun borroa.  
 Lepoa lodi, burua txiki,  
 ziza are eguterakoa” (258 or.).

#### ZARAUZKO LETE

“Aren urrena Zarauz’ko Lete,  
 gain-zerran naiko egiña;  
 beti agotan erabiltzen zun  
 bere erriko txakoliña:  
 —Bakio’koak zer balio-omen?  
 Ixo Getari’ko miña—  
 Alâre, napar-ardoagana  
 zun ezin-gordezko griña” (258 or.).

#### BUSTINZA MAÑARIKOA

“Gero Bustintza Mañari’koa,  
 itz laburreko gizona,  
 bere bizian baso-nagusi  
 baten mendean egona.  
 Mí-motelari bezala, kantan  
 mingaiña aska zitzaiona.  
 Saillean denek maitêna zuten,  
 ain baitzizun oial ona” (258-259 or.).

#### OIARTZUNGO MITXELENA

“Gero, Oiartzun’go Mitxelena, lèn  
 burni-olan ari izana,  
 deabru gorri, gizabeltz, lana  
 azala aiña alda zuana.  
 Kontrabandoan erori ta, asto  
 beltzarenak eramana;  
 muga-lagunen isilla, apezak  
 bezain gorde zedukana” (259 or.).

#### MATXIN LEKUONA

“Txokoan ixil, ba zan beste bat  
 ere, kanta-zai zegona;  
 goierritarra, buru-zuria  
 azkeneko Ola-gizona;



aitona, bañan oraindik lerdin;  
bera, Matxin Lekuona.  
Kantuz asteko zorutzen zegon;  
entzungo duzu ziona” (282 or.).

Eta poeman bertan ematen zaigu gizakumeon egitekoa eta betekizuna:

“Atsaldea alai eman, afaldu,  
basorakoan gurera,  
bata bestêren urrena sartuz  
osatzen dute bilera.  
Berri ta kontu, ipui ta kanta,  
kolkoa dute bete:  
bakarrago da txondarrak zaitzen  
basoan talogilea” (256 or.).

“Eleder an zan, belarri-erne,  
upiu ta bertsu jakin nai;  
sukalde artan laratzak aiña  
zekienik etzan nor-nai.  
Ango kontu ta kanta alaietan  
bat zan guzietan alai:  
Euskalerrria guzien Ama,  
elkar ezagutuz anai” (259 or.).

Euskaltasunaren zabalkunde, ikazkinen ahotik eta sentipenetatik. Nongoak diren ikazkinak, hango jendeei eta tradizioei dagokien kanturen bat jartzen die Orixeek ahotan. Zarauzko Letek P.M. Otañoren *Zazpiak bat* kantatzen du, Bustintza Mañarikoak Arrese-Beitiaren *Arbola bat*, Irube Donamartikoak Ademaren *Agur eta ohore Eskual-Herriari*, Oiarzungo Mitxelenak itsas gizonen bizitzaren berri kantuz ematen du. Bertako Mikel Elelderrek Iru bigaen zerga kontatzen du. Eta azkenik, Matxin Lekuona goierritarrak *Azkeneko ola-gizona* kantua. Eta Uhitzi euskal bazter txikia izanik ere, ikaskinek dakarte bertara euskaltzeletasuna eta beste bizibideen berri zehatza eta minbera.

## VIII. AXURTARO

Zozo-mikoteak igaro ondoren, axurtaroko kontakizunak datoz poeman: Garazi Dohatsuaren ermitara ikusaldia, laisterka-apostua eta Anton Kokoren salerosketak.

Gure aukeraren araberako personaia berri gutxi egonik ere, bada bar aipamen berezia ongi merezi duena: Anton Koko, Erriberatik salerosketara datorrena. Azken batean, merkatal mailako harremanek gizarte mailan ekartzen dituzten ezagueren eta tratuen adierazgarri da.

### 1. Apostulariak: URRUTILMITXO KOSKO

Bata apostuaren galdezka are dena. Eta bestea, zelatan egon zena, Lekunberriko laisterkariaren markak ezagutzeko, segurutik jokatu asmoz.

### 2. Salerosketan: ANTON KOKO

“Atsalde-erdian etorri zaie  
axurketari kokoa;  
etzalekua Errekalde'n du,  
amaika jendêñ zokoa.  
Bi mandorekin —baten gainean—  
zorroan dula zâtoa,  
zuri ta neri, gogoz eskaintzen  
bidean etor daroa” (317 or.).

“Orizu, kartzu, gariak eder”  
euskera lardaskatzen du;  
sudurra luze, okotza zorrotz,  
odolik ezin uka du.  
Koko geienak diran bezala,  
ez da betazal gorrizu;  
besoa bai beltz, kaizua labur,  
esku eta lepo zaintsu” (317-318 or.).

### 3. Erriberako ibilerak gogoratzen: ZIMURRIO

“Sudurra igurtzi, begiak ertsi,  
goibeldu bekoki latza;  
aren bekaiñek iduri dute  
eultzi biltzaillên arratza.  
Ardo eraiaz gorritzen dizu  
bakar-bakar daukan ortza;  
oskarbitzen da, begiak izar,  
aitu dularik arnasa” (319 or.).

Maisutasuna ezin ukatuko diogu Orixeri, zahatotik ardoa edaten ari den honen lauki hau ikusita: zeruraturik, begiak ñir-ñir, atsigenezko gainezkaldian arnasa ere galtzen duela.

## IX. LETARI

Ez du aipatzekorik kantu honek, gure helburuetatik begiratuta.

**X. ARTAJORRA**

San Juan suaren eta sorginkeriaren ingurunetik pertsonaia bat dugu hemen aipatzekoa:

## 1. Sorginkeria: KATALIN SUTEGI

“Saillean ari zaie Katalin Sutegi:  
sorgin biur ote-dan norbait bildurregi.  
Agopetik esana gerta balaite egî,  
Doniane-goizean galduko du begi” (365 or.).

*Eultzia* kantuan berriro egingo da honen aipamena.

**XI. BELARREKOAN**

Kontaeren barruan aipaturiko pertsonai arretagarriak badaude kantu honetan: apostulariak batik bat. Baina guz hemen poemaren garaian eta lekuan bizi diren haiek aipatzen ditugu, kondairetakoak utziz.

## 1. Lenean lagun: KASKAZURI

“Lanean lagun ‘Kaskazuri’ du,  
larogeitsuko aitona...  
Bere pausoan aitona ari da  
arturik zelaigunea.  
Zabal -ondoan atsedengune:  
atsegin dan itzalera...  
Zârrakin dauden ordûn, jakiña  
gazte guztien joera;  
ziri ta koipe, beartzen dute  
ipuinen bat jalkitzera...  
Arren, diote jalki dezala  
Manex'en sega-apustua... (399-400 or.).

**XII. EULTZIA**

## 1. Songinkeria: KATALIN SUTEGI

“Erri-begian an dakusate  
Mezara doan Katalin,  
artajorretan esan baikenun  
ote-zan ez ote sorgin.

Iruria'ko errekan, ausaz,  
 orduko lana du egin:  
 elkar orraztu, mintza ta asmatu  
 sorgin zârrago batekin" (442-443 or.).

#### DONAMARTIKO ATSOA

"Ola zeudela, Donamarti'ko  
 atsoa arri-jasa-billa:  
 Eiheramendi'n Etxegarai'ek  
 bai omen andre abilla.  
 Aren mendeko sorgintto bati  
 autsi baitio orkatilla,  
 ostu naiean joan zaiola  
 seaskan zeukan mutilla" (499 or.).

#### XIII. EZTAITEN

Lehen aipaturiko pertsonaiak ditugu berriro, noski.

#### XIV. EZTAIONDO

Ez dator, noski, gauza berririk guri dagokigun arlorako.

#### XV. AMONAREN HILETAK

Pare bat protagonista jakingarri badugu oraindik aipatzeko:

##### 1. Begirale kritikoa: JOSEPE MOTZ

Ateratzean Josepe Motz'ek  
 —sakristau izana baitzen—  
 begi-zearka *Pater*-zaleai  
 gaiztoz die begiratzen.  
 —"Or ari dituk, dio kanpoan,  
*Pater noster* lardaskatzen.  
 Olako otoitzik ez diat uste  
 Jainkoak dunik onartzen" (557-558 or.).

##### 2. Behartsuen apaiza: BARAIBARKO APAIZA

"Aren xaldiak topa baleza  
 gizaki xarpil-jantzirik,

eskale zala oartu eta,  
 aren parean geldirik.  
 Ala zedukan gizagaisoak  
 aspaldi erakutsirik.  
 Apeza, azkenik, itsutu zan. Bai  
 âl du zeruan argirik!” (566 or.).

Oker haundirik gabe, esan daiteke, Orixek erretaula honetan bi pertsonai dituela lehentasun bereziz marrazten dituenak: Azpirozko Martolo eta Baraibarko Apaiza. Hizkerabiderik goxoenak darabilzki hauen aipamena egiten duenean.

## II

### ERRETAULARI BURUZKO LITERATUR IKUSPEGIA

Erretaula honetan, hamabost hormairudi paratu ditugu, pertsonaien andana luze bat aurkeztuz. Kondaira baten haririk gabe agertu ditugu, irudiok era estatikoan emanik.

Hala ere, hemen Uitziko entzuleentzat, bertako historiaren zati bat dira laukiok, hemen bizitutako jendeak. Eta, beraz, horitutako argazki zaharrak begien aurrera ekartzea bezala izan da erretaula hau gaurko uitziarrentzat; gogoangarri bat, berauei dagokien kondaira bizia uitzia-  
 rrek berek jartzen dutela.

Gainerakoentzat, ordea, besterik da. Argazkion kondaira bizia ezagutzen ez dugunez eskuarki, poemaren izaerari amore emanetz, erretaula estatiko honi literatur ikuspegitik begirada bat ematea izango da gure egingizuna, datu ertenen batzu azpimarratuz.

#### 1. ONDORIO XEHEAK ETA ZENBAIT DATU

1.1. Guk espreski izaera eta ofizio bereziko pertsonaiak aukeratu ditugu aukezpengai. Arruntak izateaz gainera, badute beste ezaugarriak ere. Gizartearen laugarren estratoaz arreta hartzeak, literatur mailan ere aukera bat eta gutizia bat suposatzen badu, Orixeren kasuan ongi nabarmentzen da hemen, laugarren mailako pertsonaiei dien txera berezia, eta beraz, kasta eta ofizio bereziei egiten dien aitortpena poemaren barruan.

1.2. Gure aukerari utsiz, bildu eta sailkatu ditugun pertsonaiak 70 dira gisa honetakoak. Kopuru ondrosoa eta erretaula aberatsa.

1.3. Herriko zenbait ekintzetan protagonistak ditugu:

— apostuetan berak ditugu aintzindari: herri-kirolariak dira, batzuren batzuk ospea eta izen ona zutenak, batez ere bailara mailan.

— Lanordutako dibertigarri ziren teatro eta kantuak eskaintzerakoan berauek artista ezin hobeak ziren antzerki eta kantuen zahar-berritzean: errando, balada, koplak, irri nahiz negar kantu zela.

— Musika tresnak jotzen, eta dantza mota ugari dantzaten eta erakusten ere bai, hala behar bazen.

1.4. Izaera eta kasta berezikoak: eskekoak, etxeetan “erruki-aragiaren eta lanaren eske” agertzen direnak, etxearen goraipe eta alabantzetan, noski.

## 2. HERRITAR HAUEI BURUZKO LITERATURA ETA KULTUR IKUSPEGIA

Lehenago ere gai honen antzekoa erabili zuen Jokin Zaitegik *Euzko-Gogoa*-n, nahiz eta pertsonaien aukera ez zen gurearen berdina. Hark “Orixe-ren gizakume izengabeak” aipatu zituen, gizarte estratoak bereizten ibili gabe. Guretzat, ordea, helburu jakina zuen gizarteko azpimailetakoa gogoan hartzeak, gorago esan dugunez.

Bestalde, gizakumeon mintzaera eta jatorria dira bereziki arrasatearraren ikuspuntu. Euskaldun jatorria dute, on eta gaizto dituzu, muin eta mamizale gaietan eta modetan, baikor eta osasuntsu eta guztion gainetik fededun. Gure ikuspuntua, berriz, Zaitegik azpimarratutako balio horiek ukatu gabe, literaturaren bidetik daramagu.

2.1. Ez daude bi poesigintza *Euskaldunak* poemak: bata autorearena, kultura eta ikasia, behar bezalakoa; eta bestea jende xehearena, ezjakintasunez josia, traketsa. Orixek, ez ditu farregarri uzten izaera eta ofizio bereziko pertsonaiok zerbait kantatzen edo esaten dutenean.

Arlotekeriarik ez da nabari horien ahotan. Aitzitik, berauen ahotik sortzen dira bitxirik finenak askotan, tradizio jantzienaren eusle bait liran.

2.2. Orixe ez da erromantiko burges edo aristokratiko bat, *pathos* indartsu baten bila herrira datorrena. Bertakoa da Orixe: aiputan dabilen (5) eta modan dagoen gaia, euskal folklorea, hurbiletik ezagutzen duena, eta mundu etnografikoaren lekuko eta kontzientzia dena. Hala ere, berak ezagutzen du inork bezain ongi gaiaren bizitasuna, eta gizartean eredugarri ez diren *pathos* eta indarra.

---

(5) “Folklore edo erri-jakintzako poema egitea gogoak eman dit, folklore au baitago gaur aiputan”, “Facsimil de la Edición Príncipe”, 8 or.

2.3. Pertsonaion ahotan jartzen ditu Orixek poeman azaltzen diren herri-literaturako pieza asko eta asko. Txistulariek, bertsolariek, ikazkinek, artazuzitzaileek, iruleek, mutikoeak, artajorratzaileek, langile xaharrek jalkitzen dituzte hainbat bertso. Eta hauetan izaera eta ofizio berezikoak dira kantaririk aipagarrienak. Berauen ahotan dabiltzan kantu eta esaldiak dira piezarik bitxienak herriak gordetako altxorrean. Eta ateraldietan ere eremu horretan lantzen dira sakerik finenak eta bizienak.

Eta ez hori bakarrik: gure pertsonaiotako askori buruz esan daiteke ikazkinetaz Orixek esaten duena: “Berri ta kontu, ipui ta kanta, kolkoa dute bete” (256 or.); edota Beltxa ikazkileaz dioena: “...Euskalerriko / jakingai denen gordairu” (257 or.). Liburu biziak ikusten ditu Orixek herriko jendeetan, bereziki guk begiz jotako hauetan.

2.4. Lana, festa eta eskola elkaturik zihoazen garaietan, gure giza-kumeok eginkizun berezia bete ohi zuten gizartean: lanordutako dibertsioaren bizkorgarri, festa eta ospakizunetan protagonista eta animatzaile, tradizioaren zenbait alderdi alai eta arin erakusteko orduan maisu-maistra “gutxi pagatuak”.

2.5. Azken batean, gure herri-mailan askotan gertatzen dena da, laugarren estratoko pertsonaiak direla gure bertsolaririk finenak, eta sekulan ez dugula eskertuko behar adinbat, herriz-herri dabiltzan eskale, langile ebentual, minero, ikazkin eta abarrek egin duten herri-literaturaren zabalkunde, kontsumo kolektiboa eta zabaldu duten prezeptiba ezin hobea (6).

Hau litzateke gure gaurko ikuspegia, izaera eta ofizio berezia dutenei buruz Uhitzirako taxutu duguna. Hau da guk Orixeren jendaki berezi hauei poemabarruan aurkitzen diegun literatur funtzionalatasuna.

Azkena: hala zioen J. Zaitegik bere aipatu lana amaitzerakoan: “Orra gizabarrok gizon gordin, euskaldun zintzo ta fededun zindo. Onelako zenitun gure arbasoak. Oien antzeko izango al dira oraingo ta geroko euskaldun xeiak!” (7). Poemako izangabe gizakumeek dituzten balio horiek ukatu gabe, eta gaurko geure helburuari eutsiz, apalagoa izango da, edota mugatuagoa behintzat, nik gaur Uitzin, mintzaldi honen bukaera, agertuko dudana apeta eta gogo: “Egungo euskaldungoak estima dezala Orixeren literatur eredu, eta erabili ere bai, batez ere ikasien artean. Azal latzeko baina mami gozoko janari honetaz balia dadila gure idazlegoa. Harrobi ederra bait dugu beti Uitziko mezu bizi eta herrikoia zabaldu zigun Orixe idazlea, tradiziorik onena jaso nahi luketenentzat”.

(6) Nire mintzaldi hau bakatutakoan, J. Haritschelahar eta J. San Martinek gogorarazi zidaten, nola R. M. Azkuek ospitale eta zaharren egoitzetan, hau da, laugarren giza mailako jendartean, eskuarki biltzen zituen bere kantuak eta herri-jakintzari buruzko gaiak.

(7) J. ZAITEGI: *Orixeren gizakume zengabeak*, in “Euzko-Gogo”, 1 (1950), 14 or.





## FERMIN IXURKO ASTIZEN PREDIKUA

Uitzi, 1988-XI-27

Senideok: ez dugu ukatzen Nikolas Orixen-Orexan-jaio zenik, ez eta ere bataioa Orixeko bataiarrian hartu zuenik. Egia da, halaber, haritza ezkurreen gordea dagoela, eta zerua bataioan. Ordea, haritz bihurtzeko, denbora eta lur aproposak eskatzen ditu ezkurrak, eta orobat bataioak zeru bihurtzeko. Orain bada, Uitzin aurkitu zituen Nikolasek fedean, gorputz eta euskal-giroan hazteko behar zituen lur gizen eta haizeak.

Orixen lo egingo dute Nikolasen errautsek, baina hezur horiek hemen, Uitzin, izan ziren hezeen, bizkor eta zaluen. Gainera —esan dut— haren fede zein euskararen hazkuntz eta hezkuntzak Uitzikoak dira. Eskola, zer esanik ez; Uitzin ematen zen eskolarik ez baitzen bestetan ematen. Eta hemen, oharkizun bat heriko agintariei, errespetu haundirekin.

Eskolak eraiki eta abiarazi zituen Don Mariano Iriarte ta Otsanbelari, eskerronez, Uitzik jasotako marmolarria kendu beharrik ba al zen, Orixena ipintzeko?

Bi marmolarriak etzeudekeen txit ongi elkarren ondoan, Don Mariano ongilearena lekutzen zelarik ere, hala nahi izan ezker, Orixerenak zentrua har zezan? Oker badiot, kristauak, barkatu. Oraintxe utziriko harira bihurtuz: behin esan: Nikolasen haurtzaro-gaztaroak hemen ziren garatu, eta edozeinek daki bizitzaldi horrek giza-bizitzean eduki ohi duen inportantzi izugarria. Goraki, ozenki esan: Nikolasen lehen hamazazpi urteak gureak dira.

Hau esanik, natorren Abendura, natorren Elizak, aterrunerik gabe, aldi honetan darabilen erasiara: “Zatoz Jesus Jauna, ez berandutu”. Erasia honek, Orixeren erregu baten gainean bi hitz esatera narama. Honela idatzi baitu Orixek *Jainkoaren Billa* deritzan liburuan, hots, bere Amandre-orde Mari-Axuntxi uitziarri eskainian: “Bitartean, (hau da, Amandre Mari-Axuntxiri eskaini liburua zegieino), zenbat adiskidek eta lagunak eutsiazi diote nere biziari, bai beren otoitzekin, bai lurreko laguntzarekin. Eskerrik asko guziei, eta egin dezatela berriro otoitz, len-

bailen zerura nadin”. (Iraizean bezala esan: Uitziko eliza liburuetan Orixeren Amandre-ordearen izena bestela heldu da. Bataioan Maria Ascencia paratu zioten. Geroago Ascensia irakurtzen da, eta, azkenik, Ascension. Behin ere ez, ordea, Maria-Asunción.

Jaio Maria Ascencia, mila zortziehun hogeitau bederatziko Maiatzaren hogeitau zortzian jaio zen, hots, urte horretako Igokunde jaiaz. Gure amak Mari-Axintxi esan ohi zuen). Amaiturik iraizean bezala esana, diot, ez dugula motiborik Orixeren eskakizuna, —lehenbailehen zerura zedin egin genezan otoitz, alegia—, literatur hutstzat hartzeko. Egia da frankotan bi mihiz mintzo ohi garela: lumarenaz eta bihotzarenaz. Bossuet bera, nahiz eta haren otoiz-liburuak zeruratzeko intziriz josirik egon, berak uste zuen baino itsasiago bide zegoen munduari. Bestek esana. Hola da. Halaz eta guztiz, ez dugu uste gezurretan ari denik, beste hau ere idatzi zuena hitzez-hitz: “‘bizi naiz, ez nigan biziz’. Ori esan duna Jesukristok bizi du; Jesukristorekin bat egiña dago. Eta ez badago gezur haundi da, olerkarien beste ainbeste bezala”.

Niri gehiago eragiten dit Orixeren zeruratzeko lehia honek, berrehun orrialde mistikuk baino. Maizegi entzunik bainago, betiraundea, hor dagoe-la beti guri begira, eta, beraz, orainari heldu behar zaiola, orainari. *Quito-n Arrebarekin* deritzan liburuko azken hitzekin, eta, itxuraz, bihotzetikakoekin amaitzen dut prediku laster hau: “zatoz Iesus Iauna”.